

Goienkaria

2006ko maiatzaren 19a > Egubakoitze > VI. urtea > 244. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Rubalcabak
bakarrik ez
ditu zalantzak
ETAren
asmoez"

Juan Mari
Atutxa
Politikari ohia
> 09



G2a

Disko jartzaileen
kultura pil-pilean
gurean ere > 43

FAGOR

Fagor taldeak irabazien %35
emango die Etxetresnei > 07

ETXEBIZITZA

Tasatutako 38 etxebizitza egingo
dituzte uda ostean Bergaran > 25

ARRASATE

Jon Agirrerren aldeko agerraldia
deitu dute biharko, zapatua > 18

KIROLA > FUTBOLA

Aloña 3. mailara igo liteke

Etzi, domeka,
jokatuko du partidu
erabakigarria
Azkoagainen > 42

BERGARA > HIRIGINTZA

Jolasparke gehiago eta berrituak

Bergarako Udalak 300.000
euro inbertituko ditu herri-
ko lau jolasparke berritzen eta
bi berri egiten. Azken urteot-
tan ez du horretan inbertitu,
eta aurten premia dago.

Lan horiek ekainean eslei-
tuko ditu Udalak, eta iraile-
rako bukatuta egon beharko
dute. > 15



Bi ume jolasparkean. X. URTZELAI

LANA > ERREFORMA INDARREAN JARRIKO DA UZTAILEAN

Lan erreformak ez ditu ibarreko sindikatuak asebete

CCOO ETA UGT Kontratu
finkoen aldeko apustua
baloratzen dute, baina zenbait
gauzaren falta igartzen dute

ELA, LAB ETA ESK Talde horiek
iritzi txarra dute erreformaz,
eta langileen eskubideak
urratzen dituela salatzen dute

CONFEBASK Euskal patronalak
dio orain egin zitekeen
erreforma onena zela, nahiz eta
eurek hobea nahi izan > 02-03



JOSEBA TAPIA *Elgeta* trikitilariaren jarraitzaile nagusienetakoa.

IRATI AGIRREAZALDEGI

'Elgeta' trikitilariaren mendeurreneko jaialdia egingo dute Espaloian

Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilaria jaio zene-
ko 100. urteurreneko jaialdia egingo dute
bihar, zapatua, Espaloia antzokian, eta
bere emanaldia prestatzen ibili da Joseba
Tapia soinu-jolea. *Elgeta*-ren ikasleen ilo-
ba eta ikasle da Joseba Tapia.

Tapia eta Leturia, Epelarre eta Zabale
eta Laja eta Landakanda trikitilariak alai-
tuko dute jaialdia, eta Patxi Santamaria eta
Inazio Tolosa aktoreek antzezlanak egingo
dute. Jaialdia 22:30ean hasiko da, eta 3
euro da sarrera. > 45

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailekuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55

Kalitatezko ametsak

bede®
Koltxoi dendak

ZABALIK
BERGARAN!

pikolin

TEMPUR

lalloflex

BULTEX
Tu Futuro Descanso.

Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91
Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35

SEAT TOLEDO
DEPORTIBOTASUNA ETA FUNTZIONALITEA ZURE ESKU.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

LANA > LAN ERREFORMAREN LEGEA HITZARTU DUTE

Debagoieneko sindikatuak ez ditu asebate lan erreformak

ELA, LAB ETA ESK dira iritzi txarrena dutenak: euren ustez, lan erreformak enpresei egiten die mesede, eta langileen eskubideak urratzen ditu

UGT ETA CCOO sindikatuek iritzi ona dute, nahiz eta biek igarri neurri batzuen falta, hala nola: azpi-kontratazioa, pentsioak eta errelebu kontraturako epea

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Lan ezegonkortasuna eta aldi baterakotasuna saihesteko helburuarekin hitzartu dute Espainiako Gobernuak, CCOO eta UGT sindikatuek eta Espainiako patronalak Lan Erreforma berria, uztailaren lehen indarrean sartuko dena. Langileendako zein enpresaburuendako oso ona izango dela diote egileek.

Debagoieneko CCOO eta UGT-ko ordezkariak hainbat alderdi nabarmentzen dute: itxi duten enpresetako langileendako kalte-ordain hobekia; aldi baterako enpresek egindako kontratuak finkotasunerako kontuan hartzea, orain ez bezala; edo lan ikuskari gehiago egotea. Hau bereziki ona izango da ibarrerako, orain ez dagoelako apenas ikuskaritza-rik; hala diote sindikatu horiek.

ELA, LAB eta ESK sindikatuek, berriz, guztiz aurkako iritzia dute. Horien ustez, enpresei egiten die mesede lege berriak, eta langileak kaleratzea gutxiago kostatuko zaie enpresei. Lan erreformaren ondoren pentsioa etorriko dela eta, arduratuta daude. Gainera, euskal sindikatuek ez dutela parte hartu salatu du ESK-k.

Kontratu finkoak eta mugagabeak egitea bultzatu gura da erreformarekin, eta enpresei hobariak emango zaizkie horientatik

ELAk, LABek, ESK-k eta Confebask-ek azpimarratzen dute Euskal Herriko sindikatuak elkarrizketatik kanpo geratu direla

Confebask-ek erreforma behar bezain ona ez dela dio, baina bai egoerak ahalbidetzen zuen onena. Euren proposamen batzuk ere ez dituzte aintzat hartu: esaterako, kostu sindikala jaistea, Europakoarekin parekatzeko.

ENPRESAK ETA KOOPERATIBAK

Erreformaren neurri garrantzitsuenetako bat da 30 hilabeteko epean behin-behineko kontratupean 24 hilabete jarraian egin dituzten langileak finko egin beharko dituztela enpresek, eta baita kooperatibek ere: hala, baldintza horiek betetzen dituzten langile asko dago Ederlanen edo Coprecin, adibidez, eta horiek bazkide egitera behartuko du legeak.

Bestalde, 2007 bukaera arte mugagabe bihurtzen diren kontratuek bidegabeko kaleratzearen inguruko 33 eguneko kalte-ordaina izango dute, ez 45eko.

Enpresek hobari mota asko izango dituzte: behin-behineko kontratuak mugagabe egitea; kontratu finkoen langabezia kotizazioa jaitsi egingo da, eta Fogasara (Soldata Bermerako Funtsa) egin beharreko kotizazioak ere baxuagoak izango dira.



GAZTEAK Gazteei bereziki laguntzeko asmoa aitortu dute legegileek. Gazteei eta emakumeei eg

Enrique Marcos
CCOO

"Fogasako langileek sari hobek izango dituzte laster"

Denbora beharko da gurean zer eragin izango duen ikusteko baina erreforma ona da. Adibidez, ibarrean, Zubi, Olabarri, Tesa, Azbe eta beste lantegi batzuetako langileak Fogasara joan dira, eta euren sariak hobek izango dira. Horrek eragina izango du eskualdean.

Hala ere, gurean errelebu kontratuarekin iruzur asko egin dira, eta hori ez dute ukitu. 1967az geroztik kotizatzen hasi direndako errelebu kontraturako gutxienerako adina 61 urtekoa izatearekin ere ez gaude ados.

Egoitz Iturbe
ELA

"Errenta enpresari pasatzen dio Lan Erreforma honek"

Langilea bere osotasunean hartu dute, langile denetik hasita, eta pentsioen legearen erreforma ere egiteko asmotan daude. Langile-arendako oso erreforma txarra da, errenta enpresaburuei pasatzen dielako: kotizazio kuota jaitziaz, hobariak emanaz... eta langileei kalte-ordainak gutxituz. Enpresa txikiei, kaleko langileei, gazteei... egingo die kalte handien.

Debagoienean eta Euskal Herri osoan eragin bera izango du: langileok ez dugu ezer irabaziko. Oso arduratuta gaude eta gogoeta bultzatuko dugu.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zembakira
 SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

smsoinu
 Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
 Abestiaren izena (Abestaria) | KODEA

Himnoak
 Eibar | **EIBAR**
 Athletic Club | **BILBAO**
 Osasuna | **OSASUNA**
 Real | **REAL**
 Real Union | **UNION**

Folk
 Arratsakle honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
 Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
 Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
 Bizkaia Maite (Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**
 Eperrak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
 Euskal Herriaren Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**
 Euskaldun berriaren balada (Oskorn) | **EUSKALDUN**
 Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
 Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**
 Galiziara noa (Oskorn) | **GALIZIARA**
 Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA**
 Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
 Abestiaren izena | KODEA

1.2.3.4...Real! | **REAL**
 Alboka | **ALBOKA**
 Athletic Iuep! | **IEUP**
 Buztan bertsoa | **BERTSO**
 Hartu...Aitaren ta semea... | **AITAREN**
 Hartu...Ansar | **ANSAR**
 Hartu...Argentinarra | **ARGEN**
 Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**
 Hartu...Miamol! | **MIAMOL**
 Independentzia! | **INDEPEN**
 Irrintzia | **IRRINTZI**
 Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
 Milazu! (pilota) | **MILAZU**
 Suprinua | **SUPRINU**
 Tobera | **TOBERA**
 Txalaparta | **TXALAPARTA**
 Txanbela | **TXANBERA**
 Txooxt | **TXOTX**

LOGOAK (SMS 1)
 KODEA

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta ko jaitziera bekarrak ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea duan dira.
 * Euskaltel deitu 900 94 02 00 telefonora./ * Vodafone deitu 123-za./ * Movistar deitu 609-za.
3. ZALANTZAK: Ezdozen zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.



ERREFORMAREN GAKOAK

> **HELBURUA**

Behin-behinekotasuna eta lan baldintza txarrak saihestea, batez ere gazteendako eta emakumeendako. Gainera, zenbait iruzur motari aurre egin nahi die.

> **ALDI BATERAKO KONTRATUAK**

Langileak aldi baterako bi kontratu baino gehiago ezingo ditu izan 30 hilabeteen: orduan, finko egin beharko dute. Salbuespena dira errelebu, prestakuntza eta bitartekotasun kontratuak.

> **LAN IKUSKARITZA**

Lan ikuskatzaile gehiago izango da: 700 inguru daude orain, eta 950 inguru egotea espero da.

> **KONTRATU MUGAGABEAK**

2007 urte bukaerarako mugagabe egin diren kontratuak 33 eguneko kalte-ordaina izango dute bidegabeko kaleratzeagatik, ez 45.

> **HOBARIAK**

Urte bukatzean finko egin diren kontratuengatik urteko 800 euroko hobaria izango da gizarte-segurantzari, hiru urtez. Gainera, emakumeei, 30 urte arteko, 45 urtetik gorakoei, gutxituei eta formazio kontratua dutenei hasierako kontratu mugagabea egiteagatik urteko 500-3.200 euro arteko hobariak jasoko dituzte enpresaburuak eta autonomoak.

> **KOTIZAZIOAK JAITSI**

Enpresek mugagabeko kontratuengatik ordaintzen dituzten langabezia kotizazioak jaitsi egingo dira: orain %6 ordaintzen badute, uztailearen 1ean 0,25 puntu gutxiago izango da, eta 2008ko uztailearen 1etik aurrera, beste 0,25 gutxiago.

> **ALDI BATERAKO LAN ENPRESAK**

Horien bidez egindako kontratuen langabezia kotizazioa %7,7tik %6,7ra jaitsiko da uztaile ezkererako.

> **FOGASA**

Soldata Bermerako Funtzari (Fogasa) enpresek egin beharreko kotizazioa %0,4tik %0,2ra pasatuko da. Fogasaren kalte-ordainak Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren hirukoitza izango dira (gaur egun, bikoitza da).

> **45 URTETIK GORAKOAK**

Familia erantzukizunik ez duten 45 urtetik gorako langabeek subsidio hobe izango dute.

gindako kontratu mugagabeek 800-850 euro bitarteko hobariak izango dituzte urtero, lau urtez.

ULMA PACKAGING

Asun Agiriano

ESK

"Langilea kaleratzea merkeagoa izango da erreformarekin"

Langileendako dira alde txarrak: kaleratzea merkeagoa da, ondorio latzekin, hau da, lan segurtasun eza; eta gizon eta emakumeen berdintasunaz ez da akordio-rik lortu.

Enpresaburuendako dira alde onak: gutxiago kotizatuko dute eta kontratu mugagabeak egiten badituzte laguntzak izango dituzte. Langileendako alde on bakarra da bi urte eta erdiren buruan lanpostu berean jarduten duena finko izango dela.

Balorazio orokorra ezkorra da ESK sindikatuarendako.

Maite Aliste

UGT

"Kontratu finkoen aldeko apustua hobekuntza da"

Kontratazio finkoaren aldeko apustua da, eta hori hobekuntza da. Oso garrantzitsua da aldi baterako lan enpresen kontratuak ere kontuan hartzea langilea finko egiteko; eta Fogasaren hobetzea.

UGTren proposamen batzuk ez dira kontuan hartu, hala nola, azpi-kontratazioen erregulazio zorrotzagoa; negoziazio kolektiboaren esku gauza gutxiago uztea, eta kontratua zergatik egiten den aztertzea. Bestalde, eskualdea gainbeheran dago, eta kontratazioa lan merkatuaren arabera dagoela gogoratu behar da.

Jon Garate

LAB

"Langileei iruzurra da, eskubideak kentzen dizkielako"

Langileei iruzurra da: botere gehiago ematen die enpresei eta eskubideak kentzen dizkie langileei. Oso goiz da eskualdean zelan eragingo duen jakiteko, baina Debagoienean, Gipuzkoan, Madril... hasieran kontratu finko gehiago egongo dira, baina itxura izango da hori. Ezegonkortasuna izen-abizenekin salatu behar dugu, ezegonkortasuna ez delako bakarrik kontratu finkorik ez edukitzea.

Gainera, inposatutako erreforma da, Madrilan eginga, eta guk ezin izan dugu ezer esan.

Miguel Lazpiur

CONFEBASK

"Orain egin zitekeen erreforma onena egin dute"

Ez da guk gurako genukeen erreforma, baina orain bertan egin zitekeen onena da. Bi parametrotan mugitu dira: lan finkoa bultzatzea, eta enpresek eskatzen duten malgutasuna.

Alde onak baditu: aldi baterakotasunaren aurkako neurriak, kaleratze kostua jaitea... Elkarrizketaren emaitza izan da, nahiz eta euskal sindikatuek ezin izan duten parte hartu.

Ibarrean ez ditu gauzak asko aldatuko: nabarmenena, urte bukaerarako aldi baterako kontratu asko finko egingo direla.




Erantzun web orrian eta eramán iPodá!

"Zenbat entrenatzaile izan ditu Errealak aurtengo denboraldian?"

informazio gehiago: www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa





HITZ KLABEA Ezkerretik eskumara, Juan Mari Otaegi, Jesus Catania, Jose Ramon Goikoetxea eta Constan da Costa atzoko batzarrean.

GOIATZ ARANA

DATUAK ZENBAKITAN

> **KORPORAZIOAREN AKTIBOIA**
la 23 mila milioi eurotara iritsi zen. Oro har, salmentak %13,4 igo ziren eta Emaizta Kontsolidatuak %8,5.

> **INBERTSIOA**
lazoarekin alderatuta %18,6 handitu zen; guztira 866 milioi eurotara iritsi zen.

> **LANTALDEA**
Urte bukaeran 78.455 pertsona-ko izatera iritsi zen eta kopuru osoaren ia erdiak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten du lan.

> **2006KO ARRISKUAK**
Petrolioaren eta lehengaien prezioen hazkundea eta Iranen mehatxua dira arrisku handienak.

> **2006KO HASIERA**
Lehen hiru hilabetean korporazioaren salmentek %10eko hazkundea izan dute.

> **2006RAKO AURREIKUSPENAK**
Urte amaieran 13 mila milioi eurotik gora fakturaztea aurreikusi dute eta 1.500-2.000 lanpostu sortzea, gehienak kanpoan.

KOOPERATIBAK > MCK URTEKO BATZARRA EGIN DU

MCC taldeak gezurtatu egin du krisialdian dagoenik, "barruko tentsioak" egon arren

2005eko ekitaldia ongi joan zela eman zuen aditzera Jesus Cataniak

Brandt erostea ona izan zela esan zuen hari esker lortu dutelako Europan 5. izatea

G. ARANA/U. MADERA > ARRASATE
Joandako urtearen gaineko balorazio positiboa egin zuen MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari Jesus Cataniak. Emandako datuen arabera, Industria eta Banaketa Taldeen salmentak %13,4 igo ziren, eta Emaizta Kontsolidatuak, berriz, %8,5. Hala, korporazioaren aktiboa ia 23 mila milioi eurotara iritsi da.

Arloka, Finantza Taldeak oso ekitaldi positiboa egin zuen: Euskadiko Kutxak 11 mila milioi euro baino gehiago lortu zituen bali-

bide bitartekotuetan, eta Lagun Aroren ondare fondoak %9 inguruko errentagarritasuna lortu zuen. Industriaren arloa %20 hazi zen, Brandt eta Electra Vitoriaren sarrerei esker; eta banaketak ekitaldi positiboa izan zuen, sei mila milioi euro pasako fakturazioarekin. Nazioartera begira, salmentak %33 hazi ziren eta hala, hiru mila milioi eurotara iritsi dira.

KRISIRIK EZ

Bestalde, zenbait komunikabidetan Fagorren krisialdiaren gai-

nean argitaratutakoa gezurtatu egin du Cataniak. Haren esanetan, ez dago krisirik inondik inora nahiz eta onartu "barruko tentsioak" badirela. Esan zuen justu orain dela urtebete inguru erosi zutela Brandt eta horren ondorioz, hozkailuen bi planta, garbigailuen beste bi planta... Fagorren esku geratu zirela; horrek berregituraketa eskatzen duela argitu zuen eta operazio hori guztia abiarazteak "zailtasunak" eragin dituela "berregituraketa prozesuak beti direlako zai-

lak". Edozelan ere, gaineratu zuen Brandt erostea ona izan zela, hari esker lortu dute eta Europako rankinean bosgarren lekuan egoeta. Gaineratu zuen kooperatibek enpresa pribatuekiko bestelako tratua izaten dutela; enpresa kapitalistetan normalak diren erabakiak kooperatibetan krisi bilakatzen dituztelako.

Fagorreko batzarrearen gainean, aditzera eman zuen zuzendariaren espektatiba ia guztiak bete zituztela eta oraindik Edesako falta dela ere gogorarazi zuen.

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

2006-2007

GOI MAILAKO HEZIKIETA ZIKLOAK

agorosabel@eps.mondragon.edu
Tel: 943 73 96 30
www.eps.mondragon.edu

ATE IREKIKO JARDUNALDIA

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA
2006.05.24	18:00	5001	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizatzeko Ekoizpena. • Proiektu Mekanikoen Garapena. • Industri Ekipoaren Mantentzea. • Sistema Informatikoen Administrazioa. • Informatika-Aplikazioen Garapena • Telekomunikazio eta Informatika Sistemak. • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.

IZENIEMATEA: ekainaren 1etik 7ra
ORDUTEGIA: 8:30etatik 12:00etara
14:30etatik 17:30etara

> OMENALDIA

'Jakín' aldizkariaren sortzaileak omendu dituzte Arantzazun

Jakín aldizkariak 50 urte bete ditu. Hori dela eta gaur, egubakoitza, aldizkaria abian ipini zutenak omendu dituzte Arantzazun, Gaudiaga Topagunean. Omenduak Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua, Fernando Mendizabal eta Imanol Urbietak dira. Arantzazuri esker ona adierazteko besteak beste aldizkari bilduma eman diete opari *Jakín* aldizkarikoek. Joan Mari Torrealdaik eta Joseba Intxausti izan dira hizlari.

> HITZARMENA

EHuko udako ikastaro bat Oñatin egingo dute uztailean

EHuko Udako Ikastaroek eta Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute asteon. Hitzarmen horren bidez, aurtengo uztailearen 3, 4, 5 eta 6rako ikastaroa antolatu dute. Ikastaroaren gaia izango da *Lege Soziologia giza eskubi-deen zerbitzura bake prozesuetan*; eta eskolak Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen egoitzan, Oñatiko Unibertsitatean emango dituzte.

> LAN ISTRIPUA

Langile bat zauritu da Torrealdeako etxetan lanean ari zela

Eguazten goizean gertatu zen istripua Elgetan, Torrealdean egiten ari diren etxebizitza libreetan. Eraikuntza enpresa bateko langile bat obretan jausi eta zauritu egin zen. Debagoieneko Ospitale-ara eraman zuten, eta handik Galdakaoko erietxera. Hala ere, Udalean esan digutenez, badirudi langileak ez dituela oso zauri larriak izan, eta obrek normaltasun osoz egin dute aurrera istripuaren ondorengo egunetan ere.

> HEZKUNTZA

Eraikuntzarako lan bertikalen gaineko ikastaroa Arizmendin

Arizmendi Ikastolak Lanbide Heziketa eskaintzen du Arrasaten. Merkatuari begira antolatzen dute euren eskaintza; eta eraikuntza sektorearen garrantziaz jabetuta hau hartu dute ildo estrategikotzat. Honela, eraikuntzarako lan bertikalen gaineko ikastaroa antolatu dute. Ekainaren 5etik 16ra bitartean izango da eta izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 23ra arte. 18 urte-rik gorakoendako da.

POLITIKA > PROZESU DEMOKRATIKOA

Konponbiderako Mahaia aldarrikatzeko ekitaldiak izango dira maiatzaren 23an

Arrasateko Seber Altube plazan erakusketa egingo dute arratsaldean eta herriko plazan, berriz, kontzentrazioa 20:00etan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoaren Sinatzaileen Foroak ekitaldiak antolatu ditu maiatzaren 23rako. Arrasaten izango dira ekitaldiok. Seber Altube plazan gaiaren gaineko informazio panelekin erakusketa ipiniko dute arratsaldean. Ondoren, 20:00etan kontzentrazioa egingo dute plazan *Konponbiderako Mahaia orain!* lelopean.

Hainbat alderdik, sindikatuk eta eragile sozialek gatazkaren konponbiderako oinarrizko hitzarmena sinatu zuten. Euren esanetan, "Euskal Herri osoan, herritar guztiei, Euskal Herriaren etorkizunari buruz galdetu behar zaie, eragileek adostutako moduan".

Bide batez, erabaki dute gatazkari "guztientzako baliozkoa den konponbide bakarra, guztion

artearen erabakia" izatea. Foroko kideek diote "konponbideak elkarriketaren eta guztion adostasunaren bidez etorri behar duela".

KONPONBIDERAKO MAHAIA

Aurtengo Aberri Egunerako helburu bat ipini zuen Foroak: Konponbiderako Mahaia eratzea. Helburua ez dute lortu, baina euren esanetan, "ez dago Konponbiderako Mahaia ez eratzeko aitzakia-

rik. Horretarako baldintza eta aukera guztiak indarrean daude".

Baldintza hauek dira: eragile politikoen arteko harreman dinamika zabala indarrean egotea; nazioarteko foroetan konponbiderako prozesuak babes handia jaso izana; emakumeen parte-hartzeari buruzko hausnarketa aurreratua izatea; eta herritarren atxikimendu eta babes zabala lortzea.

Horrez gain, Foroak dio ETA erakundeak martxoaren 22an emaniko su-etena balio handiko ekarpena dela. "Gatazka politikokoaren konponbidean prozesu demokratikoa eraikitzeak aukera ezin hobea ahalbidetzen duela. Orain dela gutxi arte eragile askok Mahaia eratzeko jarri duen oztopo nagusia ETAREN jardueraren armatua izan da. Egun egotira irauli denean, ez dadila Konponbiderako Mahaia eraketa atzeratzeko aitzakia gehiagorik jarri".

HERRITARREI DEIA

Horren ildora, Foroak eragileei eskatzen die "Konponbiderako Mahaia eratu eta gatazkaren sustaerian dauden gakoak hiltzea. Horrekin batera, konponbide prozesuak ezinbestean behar duen oinarri demokratikoa onartzea: Euskal Herria aitortu eta euskal herritarren erabakitzeak eskubi-dea errespetatzea".

Beraz, "prozesu demokratikoa abiarazi nahi duten" herritarrei dei egin diete ekitaldietan parte hartzeko.



FOROA Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoaren Sinatzaileen Foroko Utzune Urrizalki, Oxel Erostarbe eta Peter Encinas.

A. L.

Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA

Gustoko duzun kirola zure lanbide bihurtu nahi duzu?

KIROL TEKNIKARI GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA:

- Kirol entrenamenduaren teoria eta praktika
- Fitnessa, Spining, Aerobik, Entrenatzaile Pertsonala,...
- 3. adineko mantentze soinketa
- Lehen laguntzak eta uretako sorosle titulua
- Naturako kirol ekintzak: eskalada, BTT, eskia...

902 11 20 25
Informa zaitez!

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

C&C AKADEMIA

Matrikula zabalik!

LLONGUERAS

IRAKASKUNTZA ZENTROA

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA

Aurrena, eta zuek gertatu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!

C&C Llongueras diploma ofiziala

Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan

Nazioarteko lan-poltsa

Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.

Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: cc-llongueras@hotmail.com

0 km

- Mondeo TDCi - 130 ZP
- Focus TDCi - 115 ZP
- Focus TDCi - 136 ZP
- C-Max TDCi - 115 ZP
- C-Max TDCi - 136 ZP

Aukerako ibilgailuak

- 4x4 Nissan Pafainder Dci - 174 ZP
- 4x4 Toyota Land Cruiser D4D - 163 ZP
- 4x4 Toyota Land Cruiser HDJ-100 - 204 ZP
- 4x4 Toyota Rav 4, 3 ate SP D4D - 110 ZP

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

Javier Ruiz de Munain > Ikerlaneko komunikazio eta kalitate arduraduna

"Enpresei lehiakorrak izaten laguntzen diegu proiektuekin"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Ikerlan teknologia ikertegiak batzar orokorra egin du asteon. Iazko ekin-tzen berri emateaz gain, 2006rako proiektuak ezagutarazi zituzten. Guk ere horietaz jardun dugu Ikerlaneko Javier Ruiz de Munainekin.

Ikerlanek ia 16 milioi euroko diru sarrerak izan zituen iaz. Urteik urtera emaitza hobekak lortzen dituzue?

Igoera ia urterokoa da; urte-urte urtera %5 eta 6 artekoa da, diru sarrerari dagokienez. Igoera hori neurri berean gertatzen da enpresek egiten ditugun proiektuetan. Ikerlanek produktu berrien garapenean eta produkzio-prozesuen hobekuntza proiektuetan jarduten du batez ere.

Beste enpresa batzuek emango egiten duzue lan.

Bai, esaterako, enpresek epe motzean zein laburrean beharko dituzten teknologia garatzen ditugu eurek eskatuta. Horrela, Ikerlanek diru sarreraren %60 lortzen du. Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketa baten arabera, Ikerlanek EAEko beste ikerkuntza enpresa batzuek baino maila altuagoa du. Iaz 107 proiektu egin

genituen enpresendako; azken finean, gure helburua delako enpresei laguntzea ahalik eta lehiakorrenak izan daitezten.

Zein dira Ikerlanen ikerkuntza lerroak?

Gure ikerkuntza lerroak diziplina askotarikoak dira, produktuek eta prozesuek teknologia asko batzen dituztelako. Inguru-eremua da ikerkuntza lerroetako bat. Lantzen ditugu proiektu batzuk produktuei beste funtzio batzuk emateko. Etxetresnei, adibidez, hitz egin ahal izateko gaitasuna ematea. Edo etxean sartu orduko identifikatzea nor sartu den eta musika ipintzea automatikoki. Horrek ahalbidetuko luke etxean eroso egotea. Horretaz, gain, beste ikerkuntza lerroak dira kudeaketa eta kontrol elektronikoen sistema aurreratuak; sistema mekanikoen

diseinua eta kontrola; parametro fisiko, kimiko eta genetikoan antzemate sistemak (sentsoreen bidez, gaixotasunak, batez ere minbizia, antzemateko elementuak egiten ditugu); eraikineta-ko energia efizientzia eta iraunarazteko ahalmena (konbustio eta hidrogeno teknologia); eta azkenik, produktuei eta zerbitzuei nork bere kutsua ematea letorke. Izan ere, askotan, badira produktuak begiratu hutsean berdinak diruditenak; baina elkarren artean ezberdinak direnak. Beraz, gure sistemak aldagarri horiek guztiak egingo dituzte baina produktu bera egiten ariko balira bezala. Gainera, urte batzuk barru enpresek emango dute aukera Internet bidez nork bere nahierara produktu zehatzak diseinatzeko.

Etorkizunerako asmoak?

Hainbat enpresa-partzuegok Ikerlan aukeratu dute Cenit programaren dirulaguntza jasoko duten 16 proiektuetatik bost garatzeko, eta horretan ipiniko dugu arreta. Bestalde, ikerkuntza lerroak garatu, eta enpresekiko eta unibertsitateekiko harremanak sendotu nahi ditugu.

"Enpresek emango digute aukera Internet bidez nork bere nahierara produktuak diseinatzeko"



Ikerlaneko komunikazio arduratzen da Javier Ruiz de Munain.

IKER BARANDIARAN

Saab Espazio Berria ezagutu ezazu

Giauto





SAAB 9-5

Hangarra txiki gelditzen zitzagun.

www.giauto.redsaab.com

ETOR ZAITEZ BERGARAKO SAAB SHOWROOM BERRIA IKUSTERA

Giauto

Olabarrena Auzoa, z/g
Bergara. Gipuzkoa. Tel. 943 763 344

EKONOMIA > FAGOR ETXETRESNAK

Fagor taldeak Etxetresnei lagunduko die, irabaziak emanda eta igoera ukatuta

Bazkideek %3,7ko igoerari egin diote uko eta taldeko enpresek irabazien %35 emango dute

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Fagor Etxetresnak sailari laguntzeko, bi erabaki hartu dituzte Fagor taldeko bazkideek, ia 8.000k guztira: aurtengo soldata igoerari, %3,7, uko egitea eta taldea osatzen duten enpresek aurtengo irabazien gehiengoa, %35, Etxetresnei ematea. Etxetresnetako bazkideek datozen bi urteotan berreskuratu dute ditu hori eta gainerakoek, datorren urtean.

Soldataren igoerari uko egi-teaz gain, beste bi erabaki ere hartu dituzte Fagor Etxetresnetan: interesak ez kapitalizatzea eta abenduko aparteko ordainsaria %25 gutxiago ez izatea. Eta horrek egoera okertu du, neurri baten. Hil honen 31n du batzar orokorra Fagor taldeak eta orduan berretsiko du -edo ez-erabakita-koa. Edesan eguenean, atzo, egin zuten bozketa eta Coprecin gaur.

BOZKETEN EMAITZAK

> **Etxetresnak:** Aurten soldata igoera ez kobratzearen alde 814 boto eta kontra 745. Eta 660 aldeko boto interesak kapitalizatzearen eta abenduko aparteko ordainsaria %25 gutxiago izatearen bozketan eta 863 boto aurka.

> **Ederlan:** Aurtengo soldata igoerari uko egitearen alde 391 boto eta 193 kontra.

> **Elektronika:** Igoerari uko egitearen alde 184 eta kontra 54.

> **Automation:** Aldeko 236 eta kontrako 31.

> **Arrasate:** Aldeko 218 eta kontrako 29.

> **Industrial:** Aldeko 372 eta kontrako bat ere ez.

kontsumoa



Seilu sortak eskaintzen zituzten, balio handia zutelakoan. GOIENKARIA

Debarroko ehun lagunetik bat, seiluen iruzurrean kaltetuta

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Forum Filatelico eta Afinsa inbertsio enpresen ustezko iruzurrak gutxienez 23.000 euskal herritarri egin dizkie kalteak: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 20.000ri eta, Forum Filatelico zehaztu duenez, Nafarroan 3.000ri. Afinsak ez du datu zehatzik eman. Debagoien eta Debarroko ehun lagunetik bat kaltetu dute, 1.500 bat lagun. Bi inbertsio enpresek, ustez balio handia zuten seilu sortak eta ondasun higigarriak bermetzat jarrita, errentagarritasun handia eskaintzen zieten bezero txikiei. Behar baino balio handiagoa izateaz gain, seilu asko estanpatze faltsuarekin zeuden. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak adierazi dute kaltetutakoei laguntza eskainiko dietela auzian. Horretarako, kaltetuei eskatu diete agiri guztiak biltzeko eta kontsumitzaileen elkartearekin harremanetan jartzeko.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA	Arrasate	Goierri	
lehen zikloa	ikasmaila	ikasmaila	ate irekiak:
- Mekanikan Industri Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1., 2. eta 3.	ARRASATE:
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	> maiatzak 25,
- Industri Elektronikaren Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	2. zikloa
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	> ekainak 10,
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	Biteri Ikastetxe Nagusia
- Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
- Telematikan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
bigarren zikloa			
- Industri Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza	1. eta 2.	-	
- Automatika eta Industri Elektronikaren Ingeniaritza	1. eta 2.	-	
- Informatikan Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA	Oñati	Bidasoa	
lehen zikloa	ikasmaila	ikasmaila	ate irekiak:
- Zuzendari Idazkaritza	1., 2. eta 3.		OÑATI:
- Enpresa Zientzietan Diplomatura. Ibilbideak:		1., 2. eta 3.	maiatzak 25
- Nazioarteko Merkataritza			BIDASOA:
- Enpresa Logistika eta Garraioa			maiatzak 24, 2. zikloa
ziklo luzea			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura. Ibilbideak:	1., 2., 3., 4. eta 5.		
- Finantza Zuzendaritza			
- Merkataritza Zuzendaritza			
- Erakundeen Kudeaketa			
bigarren zikloa			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura. Ibilbideak:	3., 4. eta 5.		
- Finantza Zuzendaritza			
- Merkataritza Zuzendaritza			
- Erakundeen Kudeaketa			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura. Ibilbidea:		1. eta 2.	
- Enpresa Proiektuen Garapena			
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA	Eskoriatza		
lehen zikloa			
- Irakaslea. Haur Hezkuntza Espezialitatea			
- Irakaslea. Hezkuntza Berezia Espezialitatea			
- Irakaslea. Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea			
- Irakaslea. Heziketa Fisikoa Espezialitatea			
- Irakaslea. Entzumena eta Mintzaira Espezialitatea (2. diplomatura soilik)			
- Irakaslea. Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura soilik)			
ziklo luzea			
- Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura			
bigarren zikloa			
- Psikopedagogian Lizentziatura. Ibilbideak:			
- Hizkuntzen Psikopedagogia. On line eta aldika bertaratzekoa			
- Esku-Hartzeko Psikopedagogia. On line eta aldika bertaratzekoa			
- Giza Zientziak Lizentziatura. Ibilbideak:			
- Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta			
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari Aplikatuta			

inskripzio epea zabalik

943 71 21 85 www.mondragon.edu



Paperezko hegazkin txartelak desagertu egingo dira

Bidaia eta hegazkin konpainiek paperezko 350 milioi hegazkin txartel ateratzen dituzte urtero, baina 2007tik aurrera desagertu egingo dira. Bestalde, orain maletan itsasten diren etiketak siliziozko txipekin ordezkatu dituzte. Egitasmo horren helburua da modernizatzea eta dirua aurrezte.



Autobusetan, segurtasun uhala ez da derrigorrezkoa

Aurki derrigorrezkoa izango da segurtasun uhala autobusetan, baina Gobernuak zirkulazio araudia aldatu arte ez da beharrezkoa izango hura janztea. Gero, gidariek edo arduradunek bultzatu beharko dituzte bidaiariak uhala janztera. Bestela, isuna 300 euro artekoa izan daiteke, autoetan bezala.

Kontsumoa kultur asteko gai Mariaren Lagundia ikastetxean

Kultur astea ospatu dute aste honetan barrena Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean. Kontsumoa izan da aste osoan gai nagusia, Aghenda 21 egitasmoaren barruan. Besteak beste, izan dira paper birziklatu tailerra, iraunkortasun eta etiketa tailerra, birziklatutako materialekin eginiko tresnak...

Estatuan %78k birziklatzen dute beira

Ikerketa baten arabera, Estatuko %78k beirazko ontziak dagozkien edukiontzietara botatzen dituzte. Hala ere, askok ez dituzte bereizten birziklatu eta berrerabili hitzak. Euskal Herria dago, Madril eta Kataluniarekin batera, beira gehien birziklatzen duten erkidegoen artean.

gure artekoak

UHARRI > Bi azpeitiar Antzuolan, surferako materiala Internet bidez saltzen. Hori da, laburbilduz, Uharri. Orain dela urtebete inguru sortutako enpresak Antzuolako Olanan etxean du egoitza.

Aitor Izagirre

"Barnealdeko jendeak gero eta gehiago egiten du surfa"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Haritz Muxikak eta Aitor Izagirrek osatu dute Uharri. Besteak beste, ikasketek ekarri zituzten gurera, eta enpresa ibarrean sortu zuten. Surf eta snow materiala saltzen eta zabalitzen dute.

Nola bururatu zitzaizuen horrelako enpresa sortzea?


Duela urtebete inguru surf materiala Internet bidez saltzeko aukera etorri zitzaigun esku artea; eta ondoren banaketa arloan ere sartu ginen, Estatuko zenbait marka hartuta.

Zein produktu eskaintzen duzue?

Gehienbat surfeko materiala, bodyboard taulak, arropa, hegatsoak... Bestalde, banaketari dago-kionez, snowboarderako materiala ere zabalitzen dugu; oholak eta.

Internet bidez egiten duzue salmenta. Zer dela-eta?

Ni surfean ibiltzen naiz eta Haritzek ordenagailu kontuak dakizki; bi arloak uztartuz era egokia iruditu zitzaigun salmentarako. Gainera, hasi ginenean apenas zegoen salmenta modu hori erabiltzen zuenik. Gehienek denda dute eta osagarri moduan Internet.



Uharrikoek internet bidez saltzen dute surfeko materiala.

GOIENKARIA

FITXA TEKNIKOKA

> ZAILTASUNAK

Hasiere guztiak dira zailak; eta proiektuak berez inbertsio handirik ez eskatu arren, arazo handienak logistikak eman dizkie.

> SALMENTAK

Neguan, surfa praktikatu arren, material gutxi saltzen da; apiriletik aurrera gehiago.

> INTERNET

Uharri Internet bidez egiten ditu salmentak, www.uharri.com helbidetik.

Nolakoak dira zuen bezeroak?

Surfa praktikatzen dutenak eta ordenagailuan moldatzen direnak. Espainia guztian ditugu bezeroak. Ibarrean oraindik ez, kostaldean batez ere.

Azpeitiarrak Antzuolatik surf materiala saltzea ez da bitxia?

Baliteke, baina gure zaletasunek elkartu gaituzte. Gainera, barnealdeko jendeak gero eta gehiago egiten du surfa.

Etorkizunerako asmoak?

Enpresa finkatzea eta Internet bidezko salmentak sendotzea.

etxeke leihotik



Leire Kortabarria > GOIENKARIAko erredakzio-burua

Seiluetan baino hobe, 'Seguro'la'-n inbertitu

Loteriak eta iruzurrak, biak unibertsalak dira, eta Debagoienara ere iritsi dira. Iruzurrak ditut hizpide oraingoan, Forum Filatelico eta Afinsa seilu-enpresek egindakoa, alegia. Albistea kaleratu eta gutxira jakin genuen EAEn 20.000 kaltetu inguru egongo zirela; eta Debagoienan eta Debabarrenean, 1.500 lagunek galdu dute seilu horietan inbertituta zeukaten dirua.

Norbera libre da diruarekin eta ondasun guztiakin zer egin eta non sartu erabakitzeko. Hala ere, horren harira, ekonomista bati egindako elkarrizketa baten honakoa irakurri nion: iruzur horrek erakusten duela jendeak zein ekonomia kultura txikia duen. Hau da; diru kontuetan batez ere, maukak eskaintzen dituen seiluetan inbertitu beharko litzateke segituan, baina hemen ez dira alarmak garaiz piztu.

Debagoiendarrak oso aurrekoiak gara gauza batzuetan, baina inbertsio kontuetan kontserbadore samarrak gara. Inbertitzekotan, *Seguro*la inbertitzea gurago dugula, alegia. Ordea, ausarta eta zuhurraren izatea ez dira elkarren aurkako, eta akaso hori izango da urrezko araua.

> GI-2360 errepide zatian, Oñatin, ere inbertitu dute: bigarren aldiz asfaltatu dute, eta bigarren aldiz izan ditugu ilara luzeak. Ederki geratu da; ziur ez dagoela hirugarrenez ukitzeko beharrik!

> Txinatarrek gero eta zeresan handiagoa dute ibarreko hirugarren sektorean: bazarrak nonahi, jatetxeak... Oso saiatuak diren ospea dute, eta egia dela dirudi: askok jaieguntan ere zabalitzen dute.

"Maukak eskaintzen dituen hura susmagarri egin beharko litzateke"

begi-bistan



Dorleta auzoa (Eskoriatza) 2006/05/08

Argazkia: Iker Barandiaran.
Testua: Iker Barandiaran.

Eskoriatzako Dorleta auzoan lan asko egiten dihardute aspaldion auzoari aurpegia aldatzeko. Horretarako hankaz gora ipini dute dena, baita auzoa iragartzen duen plaka ere.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Alberto Iñurrategi
MENDIZALEA



Josemari Velez de Mendizabal
EUSKO IKASKUNTZA



Zigor Martinez
BIG BAND-EKO ZUZENDARIA

Shivlingeko gailurrera (6.543 m) heldu da Alberto Iñurrategi, Jon Beloki eta Eneka Guenetxearekin batera. Mendiaren mendealdeko ertzari jarraituta igo dira. Bidea oso teknikoa, zaila eta konpromiso handikoa iruditu zaie eta igoera gogorra izan da.

Nevadako Euskal Liburutegia Eusko Ikaskuntzaren Fondekin zabalduko dute. Eusko Ikaskuntzako gerente Josemari Velez de Mendizabalek Unibertsitateko, liburutegiko eta Centre of Basques Studieseko ordezkariekin sinatu du horretarako akordioa.

Arrasate Musikaleko Big Band-ek eta orkestrak kontzertua eskaini dute asteon Donostiako Zuloaga Jardun. Lehen aldia da Big Band-ek orkestrarekin jotzen duena. Guztira 35 musikarik jardun zuten Zigor Martinez beragarrenaren zuzendaritzapean.

2005eko maiatzaren 23an utzi urte bereko urriaren 4an, Lege- zion Juan Mari Atutxak Legebil- biltzarreko eserlekua utzi zuen. Harrezkero politikako jarduna alde batera utzita dauka eta poli- tikaz hitz egitea ere ez duela gus- tuko aitortu du. Egun, Sabino Arana Fundazioko presidentea da eta baita Artzain Mundua elkarteko presidentea ere.

Juan Mari Atutxa > Politikari ohia

"Perez Rubalcabak bakarrik ez ditu zalantzak ETaren asmoaren inguruan"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

GOITBko *Ilunpean* programara etorrita, gaur egungo egoerari buruz ere galdetu gura izan diogu Juan Mari Atutxari. Politika egiteari utzi dionetik ez zaiola horri buruz hitz egitea gustatzen aitortu du, baina, hala ere, erantzun ditu galdera batzuk.

Ze irakurketa propio egin diozu Gara egunkariak ETari egindako elkarrizketari?

Gogorkeria beti izan da, eta hori amaitzea doala edo amai daitekeen unea heltzear dagoela ikusteak interesa piztu dit, duda barik, gehienei bezala.

ETAk hausnarketa egin behar duela uste dut. Politika egiteko politikaria izan behar da eta hauteskundearen iragaztontzia pasa behar da.

Zer balorazio egiten diozu egungo egoerari?

Martxoaren 22an jarri zen oinarri horren gainean bakearen eraikuntza egin gura badugu, balorazioak lasaitasun osoz egin behar ditugu. Jakinekua da gauzak ez direla egun batetik bestera konpontzen, baina etorriko da eguna ETA eta ETaren ingurukoek jakingo eta onartuko dutela politika egiteko politikan sartu behar dela eta ordezkari izan behar dela. Esperantza hori dut nik, behintzat.

Perez Rubalcabak esan du ez dagoela seguru ETaren asmoa indarkeriarekin bukatzea denik. Zuk zer uste duzu?

Sinistu gura dut hori dela ETaren asmoa, indarkeriarekin erabat bukatzea. Matxoaren 22an, su-etena iragarri zutenean, egutegi txikiko orria kendu eta argazki marko baten jarri nuen. Oraindik hantxe daukat, nire bulegoko mahai gainean. Data horrek izugarriko garrantzia dauka niretako.

Edozelan ere, uste dut ez dela Perez Rubalcaba hori pentsatzen duen bakarra. Izan ere, jende asko dago zalantzan, egia ote den edo ez pentsatzen, eta mundu horretako mugimenduak posible ikusten duguna gauzatzen utziko ote duen edo ez zalantzan jartzten dut neuk ere. Baina kasu honetan fedez pentsatu gura nuke, eta, nire gorengo asmoa bakea lortzea eta sufri-mendua atzean uztea denez, sinistu gura dut momentu honetan benetan doala indarkeria erabat uzteko asmoa.



Sabino Arana Fundazioko eta Artzain Mundua elkarteko presidentea da orain Atutxa.

UBANE MADERA

KATALUNIA

"Ez da poztekoa gertatu dena, eta uda ostean hauteskundeak egingo dituztela uste dut"

Alderdien mahaia eratzeak du orain lehentasuna?

Politikan dabilzanean dago hori erabakitzea. Ni ez nabil eta ezin dizut erantzun, baina ez du garrantzirik orain edo bi hilabete barru eratzeak.

Zer eskatzen diezu zuk?

ALDERDIEN MAHAIA

"Politikariei eskatu behar diegu domeka gauean bildu behar badute, biltzeko"

Presak ez dira inoiz onak eta are gutxiago une honetan. Ezin daitekeena egin da albotik mundu guztia esaten hastea zer, noiz eta nola egin behar duten. Politikariei utzi behar diegu lanean eta eurek baloratu behar dute zein den une egokia. Hori bai, eskatu behar diegu ez dezatela jai-

ARTZAIN MUNDUA

"Artzain izateari duintasuna eman gura diogu; bat ez da artzaina leloa delako"

rik hartu eta domeka gau baten bildu behar badute, bil daitezela, horregatik dira-eta herriko ordezkariak.

Ze iritzi duzu Katalunian gertatu denari buruz?

Azken bi asteotan birritan egon naiz han hitzaldiak egiten,

eta galdetu diet hango lagunei: zuek izan zarete beti moderazioaren eredu, heldutasunarena, akordioak lortzearena, eta zer gertatu zaizue orain? Ez da poztekoa gertatu dena, baina politikan horrelakoak gertatzen dira.

Ze etorkizun ikusten diozu Pasqual Maragalli?

Ez da erraza. Uste dut epe mugatua duela eta uda ostean beharrezkoak izango dituztela hauteskundeak.

Hemengo hurrengo hauteskundeetan, batera joango dira EAJ eta EA alderdiak?

Hori da EAJren borondatea. Baina alderdi bietako buruek ikusi behar dute komeni den edo ez; eurek erabaki behar dute.

Faltan sumatzen duzu politikan jardutea?

Ez. Politikan egon naizen urteetan gauza asko ikusi eta ikasi ditut. Konturatu naiz borondate oneko jende asko dagoela, baina baita oso miserableak direnak ere. Hori ez dut inoiz ahaztuko, barruan eramango dut.

Horien guztien telefonoak dituzu oraindik agendan?

Askorenak buruz dakizkit, baina ez ditut markatzen.

Legebiltzarreko artaldea edo larreetan dagoena gobernatzeko da errazago?

Larreetakoak tranpa gutxiago egiten ditu. Nekazaritza Sailean lan egin nuenean ere esan nuen ganadu hura eta bestea ez zirela berdinak; politikak adarkada gogorak ematen ditu.

Artzain Mundua elkarteko presidentea izanda, ze helburu duzu?

Artzain izateari duintasuna ematea. Ez dezala inork pentsatu pertsona bat artzaina dela leloa delako. Artzain bat baino gehiago dago mendian ordenagailu eramangarria ondoan duela.

Blogik egingo duzu?

Ez. Nik neuk eta egindakoak ez du horrenbesteko garrantzirik, baina irakurtzen ditut lagun batzuen blogak.

65 urte bete dituzu asteon. Ze plan dituzu?

Orain ari naiz erretiroa tramitatzen. Eguneko zereginekin jarraituko dut, baina lasaiago, ez naiz berandu arte lanean ibiltzen.



zabalik

Oihane Agirre

Datuak dantzan

Asoia da. CIEsek eman ditu, besteak beste, telebista audientzien datuak. Horregatik, telebista guztietan ikusi dugu audientzietan gora egin duten datua. Bai, horrela da; bada-kizue telebistetako arduradunok ere datuak irakurtzen abilak garena eta norberari komeni zaion moduan irakurtzen ditugula. Beraz, denok gora audientzietan, *lider* bat baino gehiago... eta eskaintza berez ugari!

Eta hau kontatu ondoren sinistuko al didazue? Izan ere, Goiena Telebistak ere badu bere lekua datu zaparrada honetan. Egutero 7.000 ikusle inguru ditugu Debagoiengan; geuk ere gora egin dugu azken datuekin alderatuta.

Eta datu guztiak esku artean, pozteko beste datu bat: Debagoiengan ikusi daitezkeen euskarazko bi telebisten emaitzak batuta (hau da, GOITB eta ETB1) Tele5en (ETB2ren ostean bigarrena da rankinean) audientziaren pare gaudela!

Beraz, badugu debagoiendarrok telebista euskaraz ikusteko ohitura. Eta datorrenari (LTD) aurre egiteko gaztetxoek zaletu behar ditugu euskarazko telebista ikustera.

Ez da erronka makala, gaur egun telebista kate nagusietan programatzaileek bereziki gazteei zuzendutako saioen eskaintza ezerezean utzi dutela ikusten badugu. Gainera ez dakit zeurean, baina nire etxean semearena izaten da urrutiko kontrola!

Aurten *Popeye*-ri euskaraz erakutsi diogu. Debagoieneko gazte bat hurbiletik ezagutzeko aukera daukagu astero *Didjeridu* saioan. Eta *Danbaka* ate joka dator. Eta laster, nobedaderen bat edo beste ere gehituko diogu Goiena Telebistako programazioari. Bada zerbait!

Eta datuak hobetzen jarraitzeko ikusleak behar ditugulako, eskerrik asko, horietako bat baldin bazara.

"Goiena Telebistak ere badu bere lekua datu zaparrada honetan: egutero 7.000 ikusle ditugu"

"Badugu debagoiendarrok telebista euskaraz ikusteko ohitura"

herritarrak galdezka

OÑATIKO ATALA
'GOIENKARIA'-N

Oñatitik idatzi digun irakurle batek zera dio: "Zergatik ez da agertzen GOIENKARIA Oñatiko atalik? Pena handia da".

Gure irakurleak dakienez, GOIENKARIAk badauka atal bat, *Herriak* izenekoa, non ibarreko herrietako albisteak jasotzen baitira. Herri handienetik hasi eta txikienera, denek dute, gutxienez, orrialde oso bat herriko informazioarako. Salbuespena da Oñati. Izan ere, Oñatiko Udalak ez du diruz finantzatzen Oñatiren gaineko orririk GOIENKARIA berri-tuan. Oñatiko Udalak, Goienako bazkide legez, egitasmoa diruz laguntzen du, baina ez gainerako udalen neurrian, *Kontzejupe-tik* udal hilabetekaria lehenetsi duelako.

Horren harira, GOIENKARIA edizio bakarrekoa Oñatin ere banatzen da, baina Oñatiko informazioarako orri propiorik eskaini barik. Edozelan ere, Goienaren asmoa da hori aldatzea; izan ere, logikoa deritzo Oñatik ere bere tarteak edukitzeari GOIENKARIAren *Herriak* atalean.

Berandu baino lehen ibarreko herri guztiek beren tarte propioa izatea gurako luke Goienak.

SAN JUANAK
Arrasateko San Juan jaietako egitaraua dela-eta.

Azkenaldian hautsak harrotu dituen gai baten gainean galde-tu digute. Izan ere, haserre antzean daude Arrasateko hainbat

herritar, eta bereziki merkataria eta tabernari, San Juan jaietako egitaraua kanpoko enpresa batek egiten duelako.

Hainbatek jo ei du Udalera azalpen eske eta haserre adierazteko. Horren aurrean Arrasateko Udalak erabaki du jai egitaraua Udalak berak argitaratzea aurten eta publikatzerik ez sartzea egitarauan. Hala esan digu Ines Aldaik, Arrasateko Kultura zinegotziak.

Azken bi urteetan Leongo Mic enpresak atera du egitaraua, Udalari batere kostatu barik; izan ere, herriko merkataria eta tabernen iragarkiekin finantzatzen zuen Leongo enpresa horrek jai egitaraua. Baina aurten, esan bezala, Udalak erabaki du egitarau ofiziala berak ateratzea. Hala ere, aipatu Leongo enpresak ateratzeko asmoa ei du bere aldetik ere San Juanetako egitaraua, publikitatearekin. Horretan dihardu behintzat, ze hainbat balizko iragarlerengana jo du publikitate eske. Arrasateko jai egitarauarekin aldirkaritxo ateratzeko eskubide osoa daukala eta aterako duela erantzun ei dio enpresa horrek Arrasateko Udalari.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Alex Ugalde



Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martínez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Argutzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.

Goiena

OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Elebitasunaren erabilera interesatua

Marijo Deogracias

www.goiena.net/blogak/marijo

Gara ha decidido ofrecer también una traducción íntegra de la entrevista con ETA en castellano" zioen zapatuko Gara-k azaleko albiste nagusian. Eta baita egin ere. Domekan zioen moduan, azalean, "Junto con la entrevista, realizada en euskera y presentada en un cuadernillo

central especial, se incluye una traducción íntegra en castellano hecha por este diario, en atención a su valor periodístico y al interés suscitado por el actual momento político".

Gero, elkarrizketaren hasieran zioen: "Euskaraz egina dago, baina, unearren garrantzia dela eta, geuk egindako erdarazko itzulpena gaineratu nahi izan diogu gehigarri berezi honi". Zergatik, ordea? Zuek horixe bera egingo zenukete aukeran? Ala, lagun batek dioen moduan, "El euskera como el Alaves, ¿a segunda"?

Asmoa ez da elkarrizketan esaten denaz jardutea, hasteko

ez dudalako irakurri. Gure hizkuntzari ematen diogun tratua burutazio batzuk eragite da. Lagun batek esan zidan Gara egunkariak elkarrizketa bietara argitaratuko zuela iragarri egin zuela zapatuan. Eta, nire artean pentsatu dut: "Eta gainera esan! Egitea erabaki badute egin eta kito, ala?".

Gara-k ere uste du euskara hutsean argitaratzen dena ez dela hain garrantzitsua; edo hain justu oso garrantzitsua delako gaztelaniaz irakurtzeko aukera eman behar duela, edo, beste batzutan egiten duen legez, garrantzitsua ez denean euskara hutsean argitaratzea

plazara

Tren sozialaren alde dago Aralar, hiriburuak bakarrik lotuko dituen *Euskal Y*-aren ordez, eskualdeak ere lotuko dituen trenaren alde.

Hala diote artikuluaeren egileek. Bestalde, *Euskal Y*-aren ordez, Gasteiztik Donostiara joateko Altsasutik igarotzea proposatzen

dute eta han egitea Iruñarekin lotu-nea. Oro har, ahal dela, oraingo trenbide sarea erabiltzearen alde daude Aralarrekoak.


Rebeka Ubera eta Iñigo Iñurrategi *

Guztion trenaren alde, AHT gelditu!

Gaur egungo garraio ereduak mendebaldeko hiritarren garapen ereduaren garraio beharrei erantzuten die: merkatu libre asegaitzak exijitzen duen merkantzien garraio neurri gabekoari eta hiritarren mugikortasun neurri bakoien beharrei erantzuten die. Epe luze-
ra jasanezina den bide horrek epe laburrean garraio kolapsora garamatza. Garbi daukagu, beraz, garapen eredu bera kuestionatzen ez dugun bitartean ez dugula benetako konponbiderik aurkituko, begiak estali eta adabakiak ezartzen jardungo dugu etengabe. Adabakien prezioa, baina, garestiegia da.

Epe motzean, ordea, gurean daukagun garraio kaos honi erantzun beharra dago. Horregatik, sakonean garapen eredu kuestionatzeaz gain, momentu honetan dauzkagun arazoei proposamenak egin beharrean gaude. Horregatik, besteak beste, gaude AHT proiektuaren aurka.

AHT proiektua geratzeko hainbat arrazoi dago, eta gaurkoan beste bat jarri nahi dugu. Euskal Herriaren mapa begiratzenean duen edonor konturatu da Gasteiz eta Iruñea arteko lotura arrazionala Altsasutik igarotzen dela. Hori da ibilgu naturala. Horregatik jarraitzen du egun dagoen trenbideak bide hori. Bi hiriburuez gain, eskualdeko herri nagusiak ere lotzen ditu: Agurain eta Altsasu. Dagoen mugikortasun arazoari aurre egiteko behar dugun etorkizuneko trenbide sareak oinarri hauek beharko lituzke: egungo bideak erabiltzea eta hiriburuez gain eskualdeak ere lotzea.



MIKEL ARROIABE

Aralarretik ez legezko proposamena egin genuen Legebiltzarrean, Autonomi Erkidegoa eta Nafarroa lotuko dituen trenbide sareak Altsasutik izan dezan lotura. Eztabaidaren ondoren, EAJ eta EAKo botoek, PP eta PSOEren botoek bat egin zuten Altsasuri egiten zitzaion aipamena testutik kentzeko. Ez zen kasualitatea izan.

Ez da kasualitatea EAJ-EAK ez nahi izatea Altsasuko konexioaren aipamenik egitea. Izan ere, *Euskal Y*-aren gaineko zalantzak areagotzen ditu eta eztabaida berriaren abiapuntua da. Nafarroarekin konexioa Altsasutik egiten bada, Debagoiena zeharkatzen duen Gasteiz eta Donos-

"Garapen eredu bera kuestionatzen ez dugun bitartean ez dugu benetako konponbiderik aurkituko"

"Kontuan izan behar dugu bidaia gehienak ez direla hiriburuen artean izaten (%97 eskualde artekoak dira)"

tia arteko loturak ez du zentzurik. Izan ere, *Euskal Y*-an proposatzen den trazatuak, naturala ez den korridorea sortuko luke Debagoienean, sekulako ingurugiro inpaktua izango luke eta eskualdeei ez lieke inolako zerbizurik emango. Etorkizuneko tren sareak hiriburuak batzeaz gain, bailarak lotu beharko lituzke, hori baita herri honek duen errealitateari erantzuna ematea. Kontuan izan behar dugu bidaia gehienak ez direla hiriburuen artean izaten (%97 eskualde artekoak dira).

Ezin dira hasi *Euskal Y*-a eraikitze lanak. Mahai gainean dagoen proiektua bertan behera lagatzea nahiko genuke eta elementu berriak mahai gainean ipinita, euskal hiritarren mugikortasun beharrei erantzungo dien sarea osatzea. Are gehiago, mugikortasun behar horiek eraldatu eta gutxitzeko proposamenak landu nahiko genituzke. Guztion arteko eztabaida da beharrezkoa. Adostu behar dugu zein den trazatu egokia, trenak zein ezauzgarri behar dituen eta baita Euskal Herrirako nahi dugun trenbide sare eredu zein den. Eztabaida horretan Aralarrek bere proposamena egingo du: tren soziala, Euskal Herri osorako, ingurumena eta ekonomia kontuan hartuko duena, egungo ibilbideak erabiliko dituen eta guztion onarpena izango duena. Topa ditzagun adostasunak! Eztabaidari oztoporik ez! Guztion trenaren alde, AHT gelditu!

* Ubera eta Iñurrategi Aralarreko Gipuzkoako exekutibako kideak dira

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Ona da lan erreformaren lege berria?

BAI	%20
EZ	%80

> LAN KONTRATU FINKOA

Bai, ona izango da langileendako, ze lan kontratu finkoa egin beharko diote behin behinekoa duten langile askori. Hori ona da lan baldintzak hobetzeko eta egonkortasuna lortzeko. Lasuen

> KALERATZEA MERKEAGOA

Ona? Bai, zera? Langileak kaleratzea orain merkeagoa aterako zaie enpresariei. Lan kontratu finkoa bai, baina langileak kaleratzea ere errazagoa. Kiki

> EZ FINKO ETA EZ FINIKITO

Kontratu finkoa egin behar zaionean langile bati, pare bat egun lehenago, bota egingo dute. Eta orain kaleratzea merkeagoa denez, ba ez kontratu finko eta ez finikito. Kalera eta kito! Ipuldi

> KALERATZEA ERRAZAGO

Askosaz zailagoa da egoera zeren kontratu finko bat ez da bizi osorakoa izango. Basobaltz

DATORREN ASTEKO GALDERA: Beharrezkoa da 'Euskal Y'-a eraikitzea?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

nahikoa dela... Eta, hortaz, euskara apaingarri hutsa dela - beste askok uste duten legez-.

Propagandaren propaganda

Jabi Zabala
www.berria.info/blogak/zabala

Propaganda, propaganda eta propagandaren propaganda. Zer besterik ikusten dugu inguruan? Gero eta hartuago gauzka propagandak. Era guztietako iragarki handi zein txikietatik haratago,

bizitzaren arlo guztietan, ohartuki zein oharkabean, espantuka zein isil-gordean, muinetaraino txertatua.

Zer da, esaterako, politika, propaganda eta propagandaren propagandaz landa? Propaganda du habe nagusietakoa botereak, baina agintearen aurkako borrokak ere gero eta gehiago du, ezinbestean, propagandatik; eta askotan propaganda hutsetik gainera.

Kultura ere, ba al da beste ezer propaganda baino? Zer da liburu bete bat, zer da airea urratzen duen kantu bat, zer da bere burua autoerrukiaren arrastorik gabe gizateriaren

adierazpen eremu berrien bilaketari eskaintzen dion artista bat, zer da ezer ere, zer da inor ere, gaur eta hemen, benetan, propaganda gabe?

Okerrean ere, ordea, onerako behar dugu isuria. Bizitzak eskaintzen digunetik behar duguna eskuratzeko sena. Horixe antzematen diot askotan Bitoriano Gandiagaren begirada poetiko zirrikitu miatzaileari, Adio liburuko poema honetan:

Bakoitzak / berari dirudizkion / apologia dagi. / Idaztea / ba al da beste ezer / bakoitzaren / ikuspuntutxoan / propaganda baino?

Bloga ere, propaganda da.

koplak

Andere Arriolabengoa

Alaves, lehen maila amets

Egunkariak azken astetan dabilta oso arraro. Futbolak du gizarteak baino askoz garrantzi gehiago!

Zenbaterik sufritu duen aurten zelaietan bihotzetik. Ez nuen uste hainbeste jendeak jaten zuenik bertatik!

Ikasle txarrak lez Alavesak damua dauka buruan. Kurtsu osoan egin ez dena alperrik azken orduan!

Norena ote da Alavesa hori da orain problema. Arabar herriarena edo kanpotar aberatsena!

Nahiz eta askok pentsatu duen amets gaizto dela dena, gauza bi dira bigarren maila ta mailako bigarrena!

Abuzturako euskal taldeak ikusi nahi ditut fuerte. Denek aurtengo sufrimendutik zerbait ikasi bezate!

Ingurumena, propaganda eta Eibar-Gasteiz autopista!

Pedro Lasagabaster

(Onbide.org taldearen izenean)
Eskoriatza

Ingurumena "asko zainduz" egiten ari direla autopista; horrela dio Errepideetako diputatuak, Javier Zuriarrai-nek, apirilaren 28an GOIENKARIAn agertu zen publizitate gehigarrian.

Debagoieneko bizilagun guztiei: ez utzi engainuari aurrera egiten. Eibar-Gasteiz autopistaren arduradunei ez zaie batere inporta ingurumena. Autopista egiten ari direnek ingurumenarekin zer jarrera duten ikusi gura dutenek obrak ikustera joan baino ez daukate.

Baina mugitzeko gogorik ez baldin badaukazu, jakin egizu Bergarako epaitegian hainbat salaketa aurkeztu direla delitu ekologikoagatik, bai kaltetutako pertsonen egindako salaketak zein talde ekologikoen eraman-dakoak. Horrekin batera, jakin egizu, derrigorrezkoa izanik ere, obraren lehen bost hilabeteetan ez dela ingurumenaren arloko jarraipenik egin Eskoriatzako tartean; edo Arlabango tunelaren obrak direla-eta, Deba ibaiaren goiko aldea modu larrian kutsatzen ari direla, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak salaketa bat baino gehiago egin. Ez hori bakarrik: Marinen, Urdin deituriko pagadi ospetsuaren zati handi bat hondatu dute, babestutakoa izan eta seinaleak jarrita egon arren. Zarimutzen, lurren zabortege bat egiteko

Ondo pasatu genuen gero zapatuan!

Idoia Peñakoba (Basabeazpiko guraso ordezkaria) > Aretxabaleta

Guztia izan genuen lehenengoz antolatutako Udaberri jaietan. Goizean, irteera polita egin genuen familia giroan: Porruko-txara basora. Landare, zuhaitz eta naturaren inguruko zenbait azalpen jaso genituen Aitor Bengoaren eskutik. Batean, kukua agertu zitzaigun, jaiko maskota, eta kontu kontari izan genuen. Ikustekoa zen umeen aurpegia! Danel Goikoleak zeresan handia izan du kukuaren sorkuntzan, baita irakasle eta gurasoen egindako lanak ere.

Irteeratik bueltan jolasak umeen zein gurasoen gozagarri, eta ostean, Hodei Lazpita aretxabaletarrak ardi bat mutildu zuen artaziekin, guztiok aho zabalik utziz. 15 minutu ere ez zituen behar izan artzain gazteak. Bitartean, AZBE lantegikoek utzitako plazan eta Javier Oñaederraren gidaritzapean, 10 bildots erretzen jardun zuten goiz guztian, Karlos Ibarrondo elorriarrak utzitako burruntzietan. Nola ez, buruhandiak ere agertu ziren mozturro eta guzti, Leizarra musika eskolako trikitilarietara. Bazkaltzeko garaia iritsi zenean bildotsok probatu behar.

Zorionak sukaldari eta laguntzaile guztiei, ederra gertatu ziguten eta. Gurasook pattarra lasai-lasai hartzeko, umeek tailerrak izan zituzten Almeneko ikasleen eskutik, eta aspertu zirenean Iñaki Agirianok eta Vanessa Gonzalezek kontatutako ipuinekin gozatu zuten. Gurasook aldiz, Arizmendiko antzerki taldearen eskutik, ikuskizun bikaina izan genuen. Aparta benetan, ez genituen barre makalak bota! Egunari kukuarekin eta Argixorekin esan genion agur, eta datorren urtean berriz etorriko zirela hitz eman ziguten. Hortaz, zorionak guzti-guztioi, baina batez ere Basabeazpiko langileei eta orpo orpo lan egin duzuen gurasoari; gutxi batzuek egindako lanari esker udaberriko fruitu goxoak jaso genituelako beste guztiok. Ondo pasatu genuen gero zapatuan!

bertako zuhaitzez osatutako baso baten dozena erdi hektarea bota dituzte, eta Gipuzkoan ondoen gordetako erreketako bat hondatu (eta hamaika ikusteko jaiotakoak garenez, Eusko Jaurlaritzako obra geratu egin dute, baina kaltea egin eta gero). Zarimutz errekan hormigoi-kamioiak hustu dituzte; Mazmelako errekatik

gertu mila litro olio baino gehiago isuri zituzten; Mazmelan bertan, sarreran, hondeamakinak ehunka urteko haritzak zituen Zelaiaundiko haritzia txikitu dute, nahiz eta Euskal Herriko Unibertsitatearen txosten batzuek oso ondo zaindutako eta biodibertsitate handiko basoa zela esan; gorde beharrekoa zela ere esaten zuten

txostenean. Aretxabaletako sarreran inguru hartako artadi eder bat bota dute. Arrasaten, berriz, Etzezarretako harizti osoa bota zuten. Horrekin batera, obrak kaltetutako herritarrak nazkatuta daude obren ondoriozko dar-dar, zarata eta hautsarekin, eta baita auzoetara joateko bide eta pistak txiki-txiki eginda uztearekin, inolako arazorik gabe. Luze joko luke gertatzen ari diren kalte guztiak hemen aipatzeak.

Ezin da zaindu ezagutzen ez dena, baina are gutxiago egin daiteke ezagutzeko gogorik ere ez baldin badago. Hori da errealitatea, triste bada ere. Proiektuaren arduradunek esaten dutenez, ingurumena zaintzen ari dira, baina garbi asko dakigu mesprezatu baino ez dutela egiten. Zertan ari diren ikusi besterik ez dago.

Beharbada horregatik publizitatearen bidetik jo dute, erakutsi duten itxura negargarria zuritzen saiatzeko (propaganda hutsa, eta denon diruarekin ordainduta). Akaso uste izango dute propagandaren bidez hurrengo hauteskundeetan emaitza hobek izango dituztela. Edo, agian, badakitenez obrak ez dituztela epeen barruan amaituko, euren erabateko inkompetentzia dela-eta, horregatik heldu ote diote bide horri?

Aita Menniko langileen egoeraz

Xabier Udabe (ELA)
Arrasate

Arrasateko Aita Menni ospitaleko langileok borrokan gaude, lan baldintzak eta soldata hobetzeko asmoz.

Ospitaleko lanaren gogortasuna handia da. Zuzendaritzak, ordea, hau ez du aintzat hartzen. Bestela, arlo publiko-arekiko dagoen desoreka ez litzateke hainbestekoa izango. Ospitale honetako langileria-aren parte handienak arlo publikoan lan berdina egiten dutenek baino %23,5 gutxiagoko soldata du.

Zuzendaritzak eskaintako lanaldi murrizketa zazpi ordukoa da, bi urteko iraupena izango lukeen hitzarmena izanik. Gaur egungo lanaldia 1.660 ordukoa da. Konparaketa bat eginez gero, ikusi daiteke Gipuzkoako garbiketako langileek 1.592 orduko lanaldia dutela, hau da, astean 35 orduko lanaldia. Beste hainbeste esan daiteke zahar egoitzetako langileei buruz. Gehiengoak 35 orduko lanaldia du eta ez dutenak 2008an iritsiko dira 35 orduko lanaldira.

Orain arteko hitzarmenek urtebeteko indarraldia izango dute. Oraingo eskaintza bi urterako da eta beste urteetan adostutakoak baino eduki txikiagoa du. Lantalde finko eta profesionalak nahi izanez gero, lan baldintza duinak izatea ezinbestekoa da.

Aupa, Aloña!

Luis Elortza
Oñati

Aupa, Aloña! Aupa, mutilak! Aupa, Aitor Orueta! Domekan daukazue aukera historia egiteko eta berriro ere Aloña hirugarren mailan ikusteko. Domekan gurako nuke herriko zaleak ondoan sentitzea eta, horretarako, herritarrak gonbidatu nahiko nitzuke Azkoainera. Domekan, denok Aloñarekin!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Egin zaitez harpidedun eta 2006an etxean jasoko duzu

Asteleheneko Goienkaria.

Dei bat egin eta kitto!



24 €

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 18:30era.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

San Juan Jaiak eta uda 2006

Aurrez eginiko erreserbek deskontua dute
ARRASATE MARSANS BIDAIAKEN!

%
15
erainoko
deskontua

Karibea

Ekainaren 4 arte eginiko erreserbetan aplikagarria

%
14
rainoko
deskontua

Kanariar eta Balear uharteak,
Europa, Mediterraneo, Afrika
iparraldea, Karibea, Brasil, Txina...

Maiatzaren 31 arte eginiko erreserbetan aplikagarria



UMEAK DOAN

edo deskontu bereziekin.
UDA OSOAN

Zure konfiantza saritu nahi dugu!

Postal bat bidaltzen badiguzu, urte amaieran egingo dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu: bainuetxe baten aste bukaera zoragarria!

BIDAIA HANDIETAN ESPEZIALISTAK GARA

Costa Rica, Argentina, Australia, Zeelanda Berria...

Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



marsans
viajes

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

Euskal herriamendia, kultura, natura, bidaia aldizkariak
aurkezten du**Mundumira***munduko kulturen festa***Oñati-Debagoiena maiatzak 26-27-28****AMPARANOIA
MAL de OJO
TERRAFOLK
NINO GALISSA**

JUSTIN VALI Madagascar
 MARIEM HASSAN Rep. Saharaui
 AKLISO Costa de Marfil
 PAULINHO LÊMOS Angola Brasil
 SAKAPATU Chile Perú
 TENZIN CHOEGYAL Tibet
 JUAN MARI BELTRAN EH
 12 TRIBU EH
 ORQUESTRA Portugal
 MAMBO TAXI Cuba
 PEIO RAMIREZ EH
 DÚMBALA CANALLA Catalunya
 DEABRU BELTZAK EH

i 902 181 471

www.mundumirafesta.com**ORAIN** ESKAINTZA BEREZIA**berria**ren harpidedun egiten bazara...**aukeratu opari bat****mp3 irakurgailu digitala****Kamera digitala**

deitu orain

943 30 43 45**berria**

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Jon Agirre presoaren aldeko mobilizazioak deitu dituzte > 18



> **BERGARA**
Anbulatorioan emagin zerbitzua edukitzea eskatzen dute > 24



> **ELGETA**
Obrak egin ostean zabaldu dute atzera Maalako parkea > 37



> **ARAMAIO**
Mertxe Mondragon alkatea GOITBko Debarri saioan izan da > 38

BERGARA > JOLASPARKE BERRIAK

300.000 euro inbertituko ditu Udalak herriko jolasparkeak berritzeko

BAT ERE EZ

Azken urteotan ez dute berrikuntzarik egin, eta horregatik egingo dute orain inbertsio handia

SEI GUNE

Udalaren asmoa da jolasparke guztiak berritzea; orain sei gune berrituko dituzte

UBANE MADERA > BERGARA

Behar handia dago Bergaran jolasparkeak berritzeko eta berriak egiteko. Hori horrela, Udalak 300.000 euroko inbertsioa egingo du lau gunetan jolasparkeak egokitzeko eta beste bitan berriak ipintzeko. Gainera, hasiera baino ez da izango hori. Hala esan digu Hirigintza Saileko zinegotzi Juanjo Arrietak: "Egin behar duguna baino gehiagoren beharra dago, baina dena batera egitea ez da posible".

AUZO GUZTIETAN JOLASPARKEAK

Hark aurreratu digunez, datozen urteotan Udalak jolasparkeak berritzeko inbertsio gehiago egingo ditu Bergaran: "Beste hamar leku baino gehiago daude zabuak ipintzeko edo berritzeko beharrean; auzoetan, batez ere". Izan ere, Arrietak esan digunez, besteak beste, Udalaren asmoa da herriko auzo guztietan ipintzea behar bezalako jolasparkeak.

IRAILEAN ERABILTZEKO GERTU

Oraingoz, baina, sei gunetan lanean hasiko dira; izan ere, Udalaren hasierako asmoa zen maiatzean adjudikatzea lanok, baina ekainera arte atzeratu da adjudikazio prozesua.

Eta lanak adjudikatu eta gero, enpresa eraikitzaileak hiru hilabete izango ditu guztia bukatzeko. Horrenbestez, irailean estreinatuko dituzte bergararrek zabu berriak.

SEGURTASUN ARUAUAK

Besteak beste, jolasparkeok egongo dira egokituta Europatik ezarritako segurtasun arauetara. "Zabueetatik inguruko arboletara distantzia jakin bat gorde beharko dugu, aparailuek homologatutakoak izan beharko dute eta lurzorua ere berezia izango da, adibidez".

EUROPAN, IKUSTEN

Halaber, Arrietak kontatu digu herrirako aparailu egokiak aukeratzeko aldera leku askotan ibili direla begira: "Azoka handiena ikusi genuen Italian".

Eta ikusitakoak ikusi eta gero, eta nahiz eta oraindik zein aparailu ipiniko dituzten erabaki barik izan, aurreratu digu Donostian udalaxe aurrean badirela azoketan ikusten ibili diren zabuen antzerakoak; beraz, Bergaran Donostiako antzerakoak ipiniko dituzte. "Berezi samarrak dira; adibidez, ia guztiak egurrezkoak izango dira, nahiz eta metalikoren bat ere ipiniko dugun. Horrez gainera, kulunkak modernoagoak izango dira; baina, esate baterako, txirrista beti izango da txirrista".



AUKERATZEN Herri askotan ibili dira Udaleko ordezkariak jolasparkeak ikusten herrirako egokienak aukeratzeko.

UDALA

KONTUAN HARTZEKO

Oraingoz gain, beste hamar gune berritzeko

Espoloko, Poligonoko, Gorlako eta Martokoko jolasparkeak berritu eta egokitu egingo ditu Udalak lehenengo fase horretan. Esaterako, Espoloiaren zabuak zahaitzengandik urrundu egingo dituzte eta zabuak dauden lekuan jolas berriak ipiniko dituzte. Horrez gainera, jolasparke berriak egingo ditu Labegarieta eta Zabalotegi auzoetan. Adibidez, Labegarietakoa kiroldegi ondoan egingo dute. Bada, aurreneko fase horren ostean, Udalaren asmoa da apurka-apurka gainerako jolasparkeak ere berritzea eta jolasparkeak ez dagoen lekuetan berriak egitea; horrelaxe egin nahi du Bergarako Udalak herriko auzo guztietan. Aurreikusi dute beste hamar leku baino gehiago daudela zabuak ipintzeko beharrek.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 20	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Domeka, 21	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Astelehena, 22	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Martitzena, 23	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Eguaztena, 24	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Eguena, 25	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 26	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65

BERGARA

Zapatua, 20	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 21	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 22	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 23	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 24	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 25	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 26	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 20	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 21	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 22	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 23	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 24	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguena, 25	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 26	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Zapatua, 20	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 21	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 22	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 23	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 24	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 25	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 26	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalatzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 79 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Sorluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetako koendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 20

Eguna aurrera doan neurrian lainoak ugaritu egingo dira. Azkenerako zerua ilundu egingo da. Temperaturak epe-lak izango dira.




Domeka, 21

Hasierako orduetan zeruan laino altuak izango dira. Arratsaldean, berriz, lainoak eta ostarteak tartekatuko egingo dira.

EUSKAL HERRIAN

Eguraldi garbi-garbia ez du egingo oraingo asteburuan, baina oker-okerra ere ez da izango. Besteak beste, euri larregi ez dute aurreikusten. Temperaturari dagokienez, berriz, epel samarrak izango dira, zapatuan domekan baino gehiago. Gauean apurtxo bat jaitsiko dira.



oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

> Ondasun higiezinaren gaineko zerga

Zerga hori ordain daiteke ekainaren 30era arte.

OÑATI

> IT txartela ateratzeko azterketa

Informazioaren Teknologien erabiltzaile agiria ateratzeko azterketa egingo dute egubakoitzean, hilak 26, KZgunean, 16:30ean.

DEBAGOIENA

> Baserriko plastikoak jasoko dituzte

Baserrian erabiltako plastikoak jasoko dituzte hilaren 23an, martitzena, ohiko bilketa lekuetan.

ELGETA

> 'Postal bat bidali' delako Internet ikastaroa

Aipatutako ikastaroa emango dute hilaren 24an, eguaztena, KZgunean, 10:00-11:00 orduetartean.

ARRASATE

> Oporrak Bakean programaren gainean

Saharako kanpalekuek eta Oporrak Bakean programaz berba egingo du Fronte Poltsarioko kide batek astelehenean, Monterroren, 18:00etan.

ESKORIATZA

> 'Zure seme-alaba babestu' ikastaroa

Interneteko ikastaro hori emango dute gaur, egubakoitzean, KZgunean, 11:00etan.

DEBAGOIENA

> Lehen sorospen ikastaroa deitu du DYAK

Edozeini zabaldu-tako lehen sorospen ikastaroa antolatu du Gipuzkoako DYAK. Bergaran izango da, maiatzaren 29tik aurrera. Izenematea, 943 46 46 22 telefonoan.

DEBAGOIENA

> Fusilatuen omeneko eguneko bazkaria

Debagoieneko fusilatutako desagertuei omenaldia egingo die ekainaren 11n. Egundorretako bazkarirako txartelak salgai daude Menetan eta Arrasate Kristaldegian (Arrasate), Gurean (Aretxabaleta), Altuna estankoa (Oñati) eta Urkan Digitalen (Bergara).

OÑATI

> Chi Kung eta Tai Chi ikastaro trinkoa

Bi diziplina horien gaineko ikastaroa emango du Estibaliz Diez-Caballerok hilaren 27an. Argibideak, 943 78 36 60 edo 635 72 08 36 telefonoetan.

ANTZUOLA

> Organo emaile izan nahi dutenek horretarako aukera izango dute Antzuolan

Antzuolan San Isidroetako azoka egingo dute bihar, zapatua. Egundorretarako ematearen gaineko informazioa emateko postua ipiniko dute arlo horretako elkarte batzuek (Alcer, e.a.). Nahi duenak hantxe dezake organo-emaile txartela. Herriko plazan izango dira, 11:30etik 13:30era.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA
Eguena, 11 **6 °C**

MAXIMOA
Astelehena, 15 **30 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **10,3 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	24 °C	6 °C	- l/m²
Eguena, 11	28 °C	6 °C	10 l/m²
Egubakoitza, 12	22 °C	12 °C	0,3 l/m²
Zapatua, 13	16 °C	14 °C	- l/m²
Domeka, 14	28 °C	9 °C	- l/m²
Astelehena, 15	30 °C	11 °C	- l/m²
Martitzena, 16	28 °C	14 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA MAIATZEAN

Ilbehera 20	Ilberri 27	Ilgora 5	Ilbete 13

berezia... dituzte. Argibideak: 943 76 57 80.

DEBAGOIENA

> Aita Mennin aldi baterako egonaldia

Aita Menni egotzian aldi baterako egonaldia eska daiteke. Pertsona nagusiekin bizi diren familiei dago zuzenduta. Maiatzaren 31 da mugaeguna.

ARETXABALETA

> Udalekuekuan begirale lan egin daiteke

Udaleku irekietan begirale izan gura dutenek izena eman dezake hila osoan. Curriculumakultura etxera bidali behar da (kultura@aretxabaleta.net).

DEBAGOIENA

> Mundumirako kamisetak salgai daude

Mundumirako kamisetak erosteko aukera dago ibarreko kultur etxeetan, edo 902 18 14 71 telefonoan.

ESKORIATZA

> Osasun Pastoraltzak antolatutako hitzaldia

Acompañamiento espiritual al enfermo hitzaldia egingo du Millan Viñas abadeak gaur, egubakoitzean, Itarte etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA

> Santa Ritaren bederatzizurrea

Santa Rita eguna da hilaren 22an, eta bederatzizurrea egingo dute bezpera arte moja agustindarrek monasterioan, 19:00etan.

kale inkesta

Gero eta lapurreta gehiago daudela diote; kezkatuta zaude?



Kaiet Lazpita
Langilea
Aretxabaleta



German Glez. de Martin
Erretiratua
Aretxabaleta



Bitxori Lopez
Erretiratua
Aretxabaleta



Andrea Jimenez
Langilea
Aretxabaleta



Eli Arenaza
Langilea
Aretxabaleta

Baliteke lapurreta gehiago egotea, baina nik ez dut ezer igarri. Ni oso lasai bizi naiz eta uste dut hemen ez dagoela arazo handirik. Agian tarteka denda edo tabernetan lapurtzen saiatuko dira.

Nik dakidala, ez da Aretxabaletan lapurretarik egon. Orokorrean hemen oso trankil bizi gara eta ez dago segurtasun faltarik ezta arrisku handirik. Gurako lukete beste leku batzuetan horrela egon.

Sasoi baten entzun nuen zenbait etxebizitzatan lapurtzera sartu zirela. Nik beti izan dut zelabaiteko kezka: etxeke atea giltzaz ixten dut... Arduratu beharreko kontua da.

Hemen ez dago arazo handirik, baina gero eta gehiago entzuten da lapurretak izan direla. Egia esanda, lehen askoz lasaiago bizi ginen eta ez zegoen inolako arriskurik, baina orain kezkatzen hasi gara.

Neu kalean bizi naiz eta orain arte ez dut ardurarik izan. Horren ordez, gurasoek arduratzen naute, baserrian bizi dira eta jende nagusiak ez du neuririk hartzeko ohiturarik.

txaloak eta txistuak



IMANOL ELORTZA

Nafarroa etorbidea seinalizatu dute



Pozik hartu du batek baino gehiagok Arrasateko Nafarroa etorbidea errepideko marrak marrotu izana. Hala esan digu irakurle batek. Esan digu, era berean, kale-argiak ere ipini dituztela ospitalera bidean, eta eskertzekoa dela. Dena den, denbora luzea eman dutela ere uste du.

bertako berbak

Juan Martin Elempuru

"Zinkintrato"

Azpikeriazko tratua.
- Orrek ein ddabe zikintrato bat.



Marraskia > Jon Iraegi

asteko datua

20

Adinean geroago eta aurrera goaz, oro har. Horren adibide da oraingo astean Aramaio alkateak eman duen datua: Aramaion 90 urtetik gorako 20 lagun daude. 1.500 biztanleko herri batendako ez dago batere txarto.

ustek uste

Ubane Madera

Energia iturri arriskutsuen erabilera

Kezkatzen hasi naiz azkenaldian irratian entzuten nabilenarengatik. Izan ere, dagoeneko birritan tokatu zait energia nuklearraren gainean berbetan dabilzala entzutea, batzuk alde eta beste batzuk kontra. Entzun dut, baita ere, gertatzen ari dela Txernobilgo istripua gertatu zenetik hogeitaz hamar urte besterik pasatu ez denean, "ahaztu" egin dugula haren eragin jasangaitz eta beldurgarria eta horregatik hasi direla orain energia mota horren aldekoak apurka-apurka berriro ere hura defendatzen.

Eta ni kezkatzen hasita nago. Izan ere, iritzi publikoan halako gaiak lantzen hasten direnean izaten da, normalean, atzetik badatorrelako zerbait. Nahi dut esan hor beti izan direla interesak energia nuklearra bultzatzeko, ekonomikoak, jakina. Baina, beste erremediorik ez, eta isilpean geratu behar izan zuten Txernobilgoaren ostean. Hori bai, interesak hor dirau, eta aizue, azken urteotan, interesa baldin badago (batez ere erakundeena), azkenean nahi dutena egiten dute, herritarrok ia mobilizatzen ez garelako, nahiz eta egitasmo horren guztiz kontra egon.

Garofa Arabatik lau kilometrotara besterik ez dago eta arrakalak ditu.

5 galdera...

Aitor Madrid

KZguneko tutorea
Debagoiena

1. Telekomunikazioen Nazioarteko Eguna izan da maiatzaren 17an; Debagoiengan zela gabiltza alde horretatik?

Teknologia berrien inguruan esan beharra dago azken urte hauetan ahalegin handia egiten ari direla erakundeak, jendeak ezagut eta erabili ditzan. Abantaila handiak eskaintzen dituzte eta jendeak oso ondo erantzun du, interes handia erakutsita.

2. Bide horretan, igartzen da KZgunek eraginik izan dutenik?

Gure gizartean asko igo da Interneten erabilpena, eta ezbaierik gabe KZgunek eta halako ekimenek lan apal eta iraunkorra egin dute hori horrela izan dadin. Horren adibide da herritar dezente erabiltzen dituela gure zerbitzuak. Hasi ginenean, gure helburua zen herritarren %10engana iristea eta gaintu egin dugu kopuru hori. Abagune hori aprobetxatuz, gure zentroetatik oraindik pasa ez diren debagoiendarrak animatu nahiko nituzke KZguneetara etortzeko.

3. Zeintzuk dira, batez ere, herritarren gabeziak edo beharrak?

Herritarren gabezia nagusia formazioan dagoela esango nuke. Gauza bat da aparatuak edukitzea eta beste bat erabiltzen jakitea. Horretarako gaude KZgunetan, jendea alor horretan trebatzeko.

4. KZguneak betiko izango dira edo denbora mugatua dute?

Gizartearen teknologien beharren arabera egongo da zentro horien iraupena.

5. Eta zein da hurrengo pausoa atzean ez gertatzeko?

Herritarren partaidetza bultzatuko da, sareak elkartrukerako abantaila handiak eskaintzen dituzte. Bestalde, administrazio elektronikoa martxan jarri eta gizarteratuko da; hori bai, alor honetan egiten ari den heziketa ahalegina ahaztu gabe.



Enrike Letona eta Gregorio Agirre
> Jon Agirre Herri Ekimena

"Jon Agirrek itxaropen oso txikia dauka"

UBANE MADERA > ARRASATE

Jon Agirrek kartzelan 25 urte egin dituela-eta, mobilizazioak dabilta egiten. Jon Agirre Herri Ekimenak, besteak beste, maiatzaren 26rako lanuztea deitu du. Enrike Letona eta Gregorio Agirre (presoaren lehengusua) kideekin berba egin dugu:

Zertan da 92. artikulua aplikazio eskaera?

Hirugarren aldiz baztertu digute eskaera. Apirilaren 21ean erantzun ziguten. Eman dizkiguten arrazoiak kontrakoak dira: legeak dio 92. artikulua lortzeko presoak hirugarren graduaren egon behar duela. Eta hori, administrazioan, egun batetik bestera egiten dute; askorekin egin dute. Diote Jon lehen graduaren dagoela, bai-

na autoan aurrerago diote lehen graduaren kendu egin ziotela gaixotasun larria duelako. Esaten dute, baita ere, ez dutela espetxeko txosten medikurik, baina bazuten Poliklinikakoa, eta eurek bidaltzen dute Poliklinikara. Hortaz, hango txostena da espetxeko txostena balitz bezala. Eta horrez gainera, inor ez dago erizaindegian urte bi, larri egon barik.

Oraingo egoerarekin, ez dute aldatuko jarrera?

Hark itxaropen oso gutxi dauka. Ikusten du dena ukatu egiten diotela...

Hortaz, orain zer?

Berritoki errekurtsioa egiteko aukera daukagu, Auzitegi Gore-



Maiatzaren 20rako manifestazioa deitu du Askatasunak; 26rako, berriz, lanuztea Herri Ekimenak; argazkian Letona eta Agirre. u.m.

nean, baina ez dugu egingo, aurrerakaria sor dezakeelako eta beste batzuegan eragin. Presioa egitea da bide bakarra. Urtean ekin-tza mordoa egin ditugu eta orain arte ez du balio izan sentsibiliza-

zioa pizteko baino; beraz, maiatzaren 26rako deitu dugu ordu erdiko lanuztea (12:30etik 13:00etara, Arrasaten eta Aramaion) eta bidenabar, azken ostirala da eta Etxerat-en deiarekin bat egitera ere deitzen dugu: 19:30ean, plazan.

Bestalde, Herri Ekimenean hausnarketa egin dugu, ikusita giza eskubideak espetxean ez direla onartzen: sortu ginen Jon Agirreren egoera zela-eta, baina preso guztiek dituzte eskubide berak eta urratu egiten dizkiete; hortaz, pentsatu genuen guztien eskubideak defendatu behar ditugula, nahiz eta Jonen kasua berezia izan, duen adinarenatik, preso daramatzen urteengatik... Espetxe arloan urrats batzuk eman beharko lituzkete.

Jon Agirre bera zela dago animo aldetik?

Hemen dago (Langraitzen), gertutasuna igartzen du eta animo aldetik, lasai dago; baina gaixotasunak eta larrialdiak berak dira.

Ebakuntza gehiago aurreikus-ten duzue?

Hil honetan kontsulta dauka Donostian eta ikusi egin behar. Beharra badauka.

"25 urte espetxean, gaixorik... merezi du bere alde egitea ordu erdian"

ENRIKE LETONA

"Animu aldetik, lasai dago; baina gaixotasunak berak dira"

GREGORIO AGIRRE

M-20: MOBILIZAZIO EGUNA

Manifestazioa egingo dute Arrasaten

Askatasunak manifestazioa deitu du biharko, zapatua: 17:30ean Garibai etorbideko autobus geltokitik; gero, ekitaldia egingo dute Iturripen. Gogora ekarri du Agirrek 64 urte dituela eta gaixotasun larri eta sendaezina duela. Zera ere bai: "Legez kalean egon beharko luke, aspaldi bete zuen-eta zigorraren hiru laurdena. (...) Ordea, zigor osoa beteta ere ez da irtengo, *Parot doktrina* ezarriko baitzaio". Aralarrek, berriz, zera dio: "Espainiako Estatuak bere legea ere ez du betetzen. Garai berriak keinuak eskatzen ditu eta horiek egitea ezinbestekoa da".

Jaiaren osteko biharamun desagokia

San Pankrazio eguneko ospakizunen osteko argazkia da hau, Eskola ondoko Izarra dorreko bizilagun batek esanda ateratakoa. Izan ere, joan den asteke eguen gauean zenbait kalte eragin zituzten han inguruan, eta hainbat bizilagun oso haserre daude. Udaltzaingoak jakinarazi digunez, edukiontzi batzuk irauli egin zituzten Loramendi kalean eta Udala plazako seinalea lurtean botata agertu zen. Dena den, gaineratu digute oraingoz inork ez duela salaketarik ipini.



IKER BARANDIARAN

ETORRI ETA IRABAZI

Moztu, bisita gaitzazu eta ikusi zer irabazi duzun, Doan, TXANPUren lehen urteurrenari esker.

10
URTEURRENA

Seduzi zaiten

TXANPU

ILE-APAINDEGIKO PRODUKTUAK

Portaloian, Eroski Bidaiak ondoan gaude.



EGUNERO Ordubeteko lanuzteak egiten dituzte egunero, 14:30etik 15:30ak arte.

ASIER ZABARTE

LANUZTEAK > AITA MENNIKOAK MOBILIZAZIOTAN

Arlo publikoarekiko desoreka salatu dute

Urte hasiera ezker dabilta lan-hitzarmena negoziatzen zuzendaritzarekin; ez daude ados

UBANE MADERA > ARRASATE

Oraingo asteko martitzenean egin dute azkeneko batzarra Aita Menniko langileek euren lan egoera dela-eta. Eta han erabaki dute mobilizazioak egiten segituko dutela, ospitaleko zuzendaritzak eskaintzen diena "ez delako nahikoa". Hala jakinarazi digu ELA sindikatuko eskualdeko ordezkari Xabier Udabek. Oro har, lan baldintzak eta soldata hobetu gura dituzte ospitaleko langileek. Eskaera hori babesteko zenbait datu eman dizkigu ELAko kideak: "Ospitale honetako langileriaren parte handienak arlo publikoan lan bera egiten dutenek baino %23,5 gutxiagoko soldata du".

Lanaldiari dagokionez, berriz, ez daude konforme ezarri dieten ordu kopuruarekin: "Gaur egungo lanaldia 1.660 ordukoa da. Konparaketa bat eginez

gero, ikus daiteke Gipuzkoako garbiketako langileek, esaterako, 1.592 orduko lanaldia dutela; hau da, astean 35 orduko lanaldia. Beste horrenbeste esan daiteke zahar egoitzetako langileei buruz: gehiengoak 35 orduko lanaldia du eta ez dutenak 2008an iritsiko dira 35 orduko lanaldira". Horren harira, zuzendaritzak eskaintako zazpi orduko murrizketarekin ez daudela konforme gaineratu digu.

Oro har, ospitaleko zuzendaritzak eskaintzen dien lan-hitzarmena oso-osorik kontuan hartuta, beste urte batzuetan baino baldintza eskasagoak dituela salatu digu Xabier Udabe sindikalistak: "Orain arteko hitzarmenek urtebeteko indaraldia izan dute. Oraingo eskaintza bi urterako da eta beste urteetan adostutakoak baino eduki txikiagoa du".

ORDUBETE GELDI EGUNERO

Horren harira, erabaki dute maiatz hasieran hasi zituzten mobilizazioak egiten jarraitzea. Hain zuzen ere, langileak arratsaldero ateratzen dira ospitalearen sarrera nagusira eta ordubeteko agerraldia egiten dute. Udabek esan digu 100 langile inguru ateratzen direla, baina gaineratu digu euren eskaerak lantalde osoarendako direla, mediku, erizain, garbitzaile eta bestelako langileendako, alegia.

Protestekin segituz, gaur, egubakoitza, auto ilaran aterako dira langileak Arrasatera. "Nahi duguna da herritarrek ere jakitea Aita Mennin protestan gabiltzala.

OSPITALEKO ZUZENDARITZA

ELA sindikatuko ordezkariak ospitaleko zuzendaritzarekin dabilta negoziatzen lan-hitzarmena. Haien iritzia jakin nahian jo dugu Iñaki Agirre kudeatzailearengana, baina esan digute oraingoz ez dutela adierazpenik egin gura.

OBRAK > IGOGAILU BERRIAK

Aldaketak proposatu dituzte Ferixalekuko igogailuan

Proposamena ikusgai dago, herritarrek iritzia eman dezaten

U.M. > ARRASATE

Hondarribia eta Obenerreka kaleak Makatzenarekin lotuko dituen igogailuaren trazatua onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak oraingo astean. Haren arabera, inklinatutako igogailua ipiniko dute. Bi geraleku izango ditu: pilotalekuan bata eta Makatzena kalean bertan bestea. 15 metroko kota gaindituko du igogailu horrek; 6,80 metro lehen geralekuraino eta 8,20 metro bi geralekuen artean.

Bestalde, igogailuak lotura izango du Jose Luis Iñarra kalearekin, oinezkoen bide baten bitartez.

PROIEKTUA JENDAUURREAN

Ferixalekuko igogailuari dagokionez, berriz, alegazio bat aurkeztu diote kanposantura bidean bizi diren auzotarrek. Haiek eskatzen dute igogailuak irteera izatea euren etxeetatik gertuago; hau da, Mesedeetako ikaste-txearen ezkerreko aldera iristea igogailua. Hasierako proiektuan, berriz, igogailuaren irteera zegoen eskolaren eskumako alderako pentsatuta.

Hirigintza Sailean kontuan hartu dute alegazio hori eta erabakiren bat hartu baino lehen, nahiago dute bigarren aukera jendaurrean ipini, herritarrek iritzia eman dezaten. Hori horrela, 15 egunean egongo da ikusgai proiektua, Hirigintzan.

Ferixalekuko igogailuak 36,50 metroko kota gaindituko du, eta Amaia antzokiaren ondotik aterako da.



INKLINATUTAKOIA Halako igogailua ipiniko dute Makatzenan. **ARRASATEKO UDALA**

> ERRETIRATUEN EGUNA

Maiatzaren 27an hitzordua dute erretiratuek SUDC elkartearekin Erretiratuen Eguna ospatzeko

Besteak beste, lagunarteko bazkaria egingo dute erretiratuek datorren zapatuan. SUDCeko kide Andoni Altzelaik esan digunez, bazkarira gonbidatuta daude 65 urte eginda edo aurrean egin dituzten erretiratuek eta hortik gorakoak. Izena eman behar dute bakoi-tzaren erretiratu elkartearen. Egun horretako bazkariaren ostean, SUDCek sarituko ditu emakume eta gizonezko nagusienak.

Aitor Belardenda

**OSASUNTSUAGO
BIZI ZAITEZ
ZAIN ITZAZU PISUA
ETA BOLUMENA**

- Dieta pertsonalizatua. Azterketa indibiduala.
- Tratamendu dietetikoak. Botikarik gabe.
- Gorputzean koipea antzematea eta hari jarraipena egitea.
- Tratamendu eta kontseilu dietetikoak: kirola, hipertentsio arteriala, hezueria (gota) eta dietarekin harremana duten beste gaitz batzuk.

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

- Era guztietako garbiketak
- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

KULTURA ASTEA > ANDALUZIARREN OHITURAK GURE ARTEAN

Al-Andalus elkarteak asteburuan bukatuko du bere 17. Kultura Astea

Hilaren 13an hasi eta etzira arte, domeka, hainbat ekitaldi izango dira egunero

Asteburuan musika eta antzerki ikuskizunak eta moda desfileak egingo dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Al-Andalus elkartearen helburu nagusia da Arrasaten eta inguruetan bizi diren andaluziarren jatorrizko ohitura eta tradizioei eustea. Hori bai, Euskal Herrian bizi direla ahaztu barik. Hala azaldu izan digu behin eta berriro Al-Andalus elkartearen presidentea Rafa Gomezek.

Askotan izan dugu Al-Andalus albiste. Izan ere, ekimen asko antolatzen dituzte urtean eta herrian dagoen elkarte ekimetsuenetako bat da. Bada, aurtan, Kultura Astearekin buru-bela-

rri dabilta. Dagoeneko ospatzen duten hamazazpigarrena da, eta ziur horren ostean beste asko egingo dituztela.

EGITARAU BETE-BETE

Kultura Astea joan den zapatuan hasi zuten, baina ekitaldiek etzira arte, domeka, iraungo dute. Hain zuzen ere, ekitaldi jendetsuenak asteburu honetan egingo dituzte.

Joan den domekan, Al-Andalus elkartearen Aita Menni ospitaleko ate ireki jardunaldietan esku hartu zuten. Astelehenean, berriz, elkartearen edadetuak omenaldia egin zuten, eta afari-merienda egin zuten Andaluziako *fino*-arekin eta Arrasateko txakolinarekin.

JOKOAK ETA BESTE

Martitzenetik egubakoitzera bitartean hainbat joko antolatu zituzten helduendako eta baita txikiendako ere. Hain zuzen ere, mahai jokoak, umeendako jolasak eta txokolate-jana egin zituzten. Horrez gain, bazkideek eurek egindako gozoen dastatzea egin zuten.

Andaluziarren kultura ezagutzera ematearekin bat, dantza, parranda eta musika ere oso gustuko dituzte. Hortaz, gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean halako ekitaldiak egingo dituzte Musakolan duten egoitzan.

MUSIKA ETA ANTZERKIA

Gaur, egubakoitza, Kantineles taldearen emanaldia izango da 22:30ean. Zapatuan, berriz, Al-Andalus abesbatza errozieroak eta sevillana taldeak ikuskizuna egingo dute 13:00etan. Horrekin batera, parrillada egingo dute.

Egun berean, zapatuan, 18:30ean hainbat musika eta antzerki taldek esku hartuko dute: Garcia Lorca antzerki taldeak eta Alegria de la Sierra eta Sueños de Andalucía taldeek, hain zuzen ere. Zapatuari bukaera emateko, herri afaria egingo dute eta Merche Loysek ikuskizuna egingo du.

Domeka lasaiago hartuko dute: 13:30ean Susana Perez diseinatzailearen eskutik haur desfilea izango da; eta 18:00etan Andaluziaren gaineko berbaldia egingo du Rafa Gomezek.

HERRIKO MARGOLARI BATEN ERAKUSKETA


Conchita Zarraoaren margo erakusketa

Al-Andalus elkarteak erabaki zuen Arrasateko margolari ezagun baten erakusketa jarri gura zuela. Hala, Conchita Zarraoarekin harremanetan jarri ziren. Zarraoak urte asko daramatza margotzen, baina ez berak gura beste: "Askoz lehenago hasi gura nuen, baina 80ko hamarkadara arte ez nuen aukerarik izan". Al-Andalus elkartearen aretoan 18 lan jarri ditu erakusgai. Gehienak paisaiak dira. Horien artean Arrasatekoak (Monterron, Udalatx...), baina baita Bizkaikoak eta Arabakoak ere.



Conchita Zarraoak 18 lan batu ditu erakusketan.

IKER BARANDIARAN



ADIN GUZTIENAKO Heldu eta gazteendako moduko ibilaldiak.

AED

IBILALDIA > HERRIKO INGURUAK EZAGUTUKO DITUZTE

'Mugarriz mugarri' ibilaldia egingo dute domekan

Ospitale atzetik Kurtzetxikira igo eta Bedoñatik jaitsiko dira buelta eman ostean

I.B. > ARRASATE

AED elkarteak urtean birritan antolatzen du *Mugarriz mugarri* ekimena: bata udazkenean eta bestea udaberrian.

Etzirako, domeka, Arbolapetan egin dute hitzordua, 09:00etan. AEDk antolatu du ibilaldia, Leintz Eskola Kirolaren eta Besaideren laguntzarekin. Arbolapetatik ospitale aldera joko dute. Handik, Etxezuri, Auspobaltz eta Antzarrigartu baserriak atzean utzita, Kurtze-

txikira joko dute. Hango artadiak eta akaziak ikusi ostean, Kurtzetxiki mendixkara igoko dira. Antolatzaileek nabarmendu dute handik oso ondo ikusten direla Arrasate eta inguruko mendiak.

Atsedean txikia hartu ostean, Bedoñara jaitsiko dira eta errege-bidean barrena Azuelara eta ospitale ingurura joango dira. 12:30etarako-edo Arbolapetan izango dira bueltan, inguruak ezagutu ostean.

> SAN JUAN JAIK

Udalak jakinarazi du San Juanetako egitarau ofizialak ez duela publizitaterik izango

Udaleko Kultura Saileko arduradun Ines Aldaik GOIENKARIA-ri jakinarazi dio 2006ko San Juanetako egitarau ofiziala Udalak egingo duela eta ez duela inolako publizitaterik izango.

Kontua da azkeneko bi urteotan jaietako egitaraua Mic delako enpresak egin duela, baina aurtan ez dute akordiorik egin. Hala ere, enpresa batzuk herriko merkatari eta saltzaileekin harremanetan jarri dira publizitate eske. Udalak herritarrei argitu gura die enpresa horiek ez dutela Udalarekin inolako harremanik.

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak



Amagara


Erdiko kale 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

STOP Zelulitisari!

Nobedadea:

- Paper -Rouler
- Mesoterapia Arruabarrena doktorea.
Elkargokide-zenbakia:6.073
- Dietista-Nutrizionista
- Estetika tratamenduak

Deitu eta kontsulta ezazu
gure promozioak



Oraindik garaiz
zabiltza

R.P.S. 297/05

arrasate musikal

AM


Matrikulazio epea zabalik:

*Maiatzaren 22tik
ekainaren 22ra.*

Berritasunak:

4 urtetik aurrera.

*- Harmonia modernoa Helduentzako eskolak.
Balleta*



MENDIKO BIZIKLETA > EUSKADIKO OPENA ARRASATEN

Orain arteko lasterketarik lehiatsuena domekan da

Laugarren urtez antolatu du Ederra tabernak mendiko bizikleta lasterketa

Euskadiko Open barruan dagoen proba da; maila handiko ziklistak izango dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Domekan egingo dute, laugarren urtez, mendiko bizikletako lasterketa Arrasaten. Aurten, baina, Euskadiko Openak inoiz baino indar handiagoa hartu du. Probak gutxitu dituzte (zazpi baino ez dituzte egingo), eta Euskadiko Opena jokatzeko den asteburuan Estatuan ez dute beste lasterketarik egiten. Horri esker, Euskal Herriko ziklista onenak batzerekin batera, Estatuko lasterkari onenak gerturatu izan dira aurreko probetara. Hala, Ederra-koek lorpen handia egin dute, joan den urteko lan txukunari esker Openaren barruan daudeta. Antolatzaile lanetan burubelarri dabilen Gorka Sudupek esan digu, besteak beste, Carlos Coloma eta Unai Yus espero dituztela. Eurekin batera Iñaki Lejarrera ere etortzekoa zen, baina gaurorik ei dago.

BI TXANDATAN

Domekan, 09:30ean hasiko da kadete, junior eta emakumezkoen lasterketa. 11:30ean, berriz, elite, 23 urtez azpikoak, masterrak eta beteranoak egongo dira irteko gertu.



OLANDIXO Ikerlango aparkalekutik gora egingo dute aurten ere ziklistek, Olandixora, eta gero Ikutio aldera jaitsiko dira. GOIENKARIA

Ibarreko zortzi ziklista izango dira nagusien proban. Ikaia-ko Jose Angel Lopez beteranotan lehiatuko da. Kategoria horretako liderra da, eta lehenengo postua defendatzen ahaleginduko da. Aretxabaletako Oier Garro ere lasterketan izango da, eta baita Ederra taldeko sei ordezkari ere: Oscar Oncala, Felix Zugasti, Igor Baz, Zigor Urain, Iñigo Rol-

dan eta Igor Lazkano. Adi talde horretako hainbat ziklistekin, aurrean ikusiko dituzue-eta. Felix Zugasti taldekideak eman digu azken asteotan gertatzen ibili diren zirkuituaren berri: "Ikerlan gainean dagoen aparkalekuan hasiko da proba, joan den urtean moduan. Baina, ibilbidean hainbat aldaketa egin ditugu. Oraingoak malda txikia-

goa du, baina askoz ere teknikoagoa da. Alde horretatik, zirkuitua ezagutzen dugunok abantaila txiki bat izango dugu, lehenengo itzulian, behintzat". Horrekin batera, Ederra tabernakoen lana azpimarratu gura izan du: "Eurengatik ez balitz ez genuke lasterketa egingo. Gu ere laguntzen ibiltzen gara, baina euren da meritua".

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Pippol - Iriztu	4-8
Iluntz - Abokajarro	6-2
Abokajarro - AC Surcos	4-2
Betrayer - Dublin Irish Pub	1-0
Lasagabaster - Iriztu	6-7
Arrano Taberna - AC Surcos	5-3
Aurrera Bolie - Fuxxion	3-6

PARTIDUAK

Maiatzak 20, zapatua

10:00 THC - AT Celaya	HLB
11:00 Abokajarro - HLB 108	AT Celaya
12:00 Lasagabaster - Aurrera B.	Aboka.
13:00 Tomahawk - Arrano	Aurrera Bol.
16:00 Iriztu - Billy & The cowb.	Saukelu
17:00 Saukelu Scream - THC	Billy & The.
18:00 Betrayer - AT Celaya	THC

Maiatzak 21, domeka

12:00 Fuxxion - Dribling	Berdes Bremen
13:00 Pippol - Berdes Bremen	Dribling
14:00 AC Surcos. - Dublin	Pippol

SAILKAPENA

	P	J
1. Dribling	49	18
2. Betrayer	43	18
3. Lasagabaster	40	18
4. Iriztu Taberna	38	18
5. Saukelu Scream	34	18
6. Abokajarro	33	18
7. Fuxxion	31	18
8. Arrano Taberna	30	18
9. Pippol	229	18
10. Iluntz	28	18
11. Tomahawk	27	18
12. AC Surcos	24	18
13. AT Celaya	24	17
14. Billy & The cowboys	21	18
15. HLB 108	21	18
16. Dublin Irish Pub	21	18
17. Aurrera Bolie	18	18
18. Berdes Bremen	12	18
19. Txoponbeixek	6	18
20. THC	0	17



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

mingainari tiraka

Gontzal Beganzo > Txanpu denda

"Inportantie da azalan pH-ie errespetetie"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Gontzal gasteiztarra da, eta azkeneko urtien lagun batekin batera hiru denda zabaldu dau Gipuzkoako hiru herritan: Hernanin, Beasainen eta baitte Mondrauen be: "Fagor hamen sortu zan, eta ondo juen danez, geuk be iguela egin dou".

Izenak pistaren bat emuten badau be, ze saltzen dozue Txanpu dendetan?


Pelukerixetan ibiltten dauen produktuek saltzen dou. Pelukerixak nahikue lan eukitten daue ulie moztu eta bestelakuek egitten, eta produktu gutxi saltzen daue. Geuk egitten dou lan hori. Almazen haundixekin daukogun aldie da geuriek mailla altuko produktuek diela.

Ba, estadistikek esaten daue Estatuan zikin samarrak garela.

Horren kontra egin gure dou guk; euskaldunok, behintzet, gaiñontzekuek baiño garbixuek izen gaittezela.

Eta dermatologuek esaten daue ez dala komeni egunero dutxetie.

Kontue da azalak berak pH jakin bat



daukola, babes sistema moduen ibiltten dauena. Eta, jaboï txarrak ibilite errexau egitten dutzou horreik kaltiok. Txanpu ona ibilite, nahikue da burue astien bi edo hiru aldiz garbiketie.

Ze alde dau, ba, jaboï on baten eta txar baten aldien?

Hamen saltzen douen produktuek mailla altukuek die, eta errespetau egitten daue azalan pH hori. Beste jaboï batzuk rebote efekue egitten daue; hau da, marka hori ibiltten douen bittartien ez dou kasparik eukiko, baiñe txanpu hori itxi ezkero... dana etorriko da bueltan. Horreik jaboïok abrasibuek die: kaspie kentzen daue, baiñe ez daue problemie konponketan. Produktu onak suabiauek izen biher dau.

Horrenbeste jaboï marka, eta ondiokan badau Chimbo jaboïe ibiltten dauenik.

Chimbo ibiltten dauenak be denporaz dauz kanbixue egitteko! Bromak alde batera itxite, klientiek mailla oso oneko produktuek topauko dau hamen, hori da eta geuk gure doune.

bere ustez



Antxon Mendizabal

Boliviako gasaren nazionalizazioa

Nolako iskanbila sortu den Evo Moralesek Boliviako gasa nazionalizatu egin duenean. Espainiako Estatuan komunikabide ia guztiek eta alderdi politiko ia guztiek kritika ugari bideratu dituzte. Giza eskubideen aurkako eraso larri batekin identifikatuz. Boliviako lehendakaritza gauzatzeko Evok aurkeztutako programan, baliabide naturalen nazionalizazioa zutabe garrantzitsua izan da. Hala, Evok hauteskunde programa bete besterik ez du egin.

Eta zer-nolako iskanbila sortu den nazioarteko demokraten artean. Bereziki Espainiako Estatuan, eskuma eta ezker ofizialaren arteko aliantza zabala ikusi dugu. Egoera ekonomikoari dagokio: hemengo Endesa, Fenosa eta Iberdrolak Hego Amerikako elektrizitatea kontrolatzen dute; hemengo Telefonikak, hango telefonia eta Internet sistema; Repsolek, hango petrolio eta gasa; komunikabideen Prisa taldeak hango irrati, telebista eta kazeta nagusiak bere esku ditu; azkenean, BBV eta Santander bankuek Hego Amerikako finantza sistemaren kontrola daukate; eta kontinente horretatik ekarritako gainbalioak hemengo errenta mailaren zati bat dira.

Bitartean boliviarraren soldatak 60 eta 80 dolarren artekoak dira. Boliviarrak diotenez beraiek ere pobreziatik irteteko eskubidea daukate. Ikus dezagun orain Bolivian gasa nazionalizatu eta ondoren etorriko den nazioarteko harraparien erantzuna. Azter dezagun egoera berria. Boliviak solidaritatea behar du, eman diezaiogun gurea.

txutxumutxua

Tomas arraindegian legatz ederra erosi dute: ia 12 kilo pisatzen du

Arrasateko Tomas arraindegian ia hamabi kiloko legatza erosi dute aste barruan. Ondarroako Erlazi izeneko barkuak hartu zuen Irlanda inguruko itsasoren baten, Gran Sol inguruan. Tomasen esanetan, legatz handiak dira gozoenak: "Garai baten tamaina honetako legatz asko zeuden; orain, berriz, ez dago horrelakorik. Denbora luzea pasatu da azkeneko horrelako bat ikusi nuenetik. 6-8 kilokoak badaude, baina hau bezalakorik, ia 12 kilokorik, apenas dago". Bada, arraina xerratan salduko du, baina kokotea etxerako da.



AMAGIOIA LASAGABASTER

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

PUB HAIZEA

arrasate



EMAGINA Anbulatorioan emagin zerbitzua egunero egotea eskatzen dute emakumeek.

O.E.

OSASUNA > EMAGIN ZERBITZUA FALTA

Emagin zerbitzua edukitzea eskatzen dute

Ordezko emagina ekartzeko sinadurak batuko dituzte astelehenean; anbulatorioak dio zerbitzua ematen dela, ez dela emaginik falta

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako hainbat emakumek anbulatorioko emagin zerbitzua betetzeko eskatzen dute. "Hemen dugun emaginak baja hartu du eta ez dute ordezkorik jarri. Aste-an behin etortzen da orain Oñatik emagina kasu 'larriak' bakarrik hartzen ditu baina nork baloratu behar du zein den kasu larria eta zein ez? Telefonoa hartzen duenak?", dio Mireia Gantxegi bergararrak. "Emagina ez da bakarrik haurdun dauden edo umea izan duten emakumeak zaintzen dituen, emakumearen espezialista da eta herriko emakume guztiok gaude orain zerbitzu horren faltan, egunero izan behar genukeelako emagin zerbitzua", jarraitzen du.

Itxiki Urgoitia anbulatorioko zuzendariaren esanetan, ordea,

hori ez da horrela. "Hemengo emagina bajaran dago, baina beste bi etortzen dira astean hirutan zerbitzu hori ematera. Beraz, emagin kontsulta, zerbitzua, badago", dio.

EMAGINIK EZ

Bergarako emakumeek emagina bajaran dagoen bitartean bere ordezkoa jartzea eskatzen dute. "Azken bederatzi urteotan, behintzat, ez dute ordezkorik ekarri emaginak baja edo oporrak hartu dituenen. Gu ez gaude haren aurka, bajak eta oporrak hartzeko eskubidea du beste edozein langile bezala; guk zerbitzua normaltasunez, egunero, izatea eskatzen dugu, beste edozein espezialista zerbitzu bezala", dio Mireia Gantxegik.

Anbulatorioko zuzendariak, berriz, zera dio: "Emagin zerbitzua betetzeko eskatu duten bakoitze-

an emaginik ez dagoela erantzun digute beti. Orain ere, zerbitzu hori ahalik eta ondoen betetzen ahalegindu gara, ez dago egunero, baina bai astean hirutan".

BITARTEAN, ARRASATERA

Ordezko emaginik jartzen ez duten bitartean, Arrasatera joan behar dutela diote emakumeek. "Bergaran anbulatorioa egonda, ez dugu zertan Arrasatera joan, hemen jarri behar digute zerbitzu hori", dio Jone Santosek. "Umea izan dugunoi gimnasiarik ez dugula ere hamabost minutu lehenago abisatu digute, eta hori ez da serioa. Gela hor dago erabiltzeko, bai, baina zerbitzua eskasa da", gaineratu du Mireiak.

SINADURAK BATZEN

Emagin zerbitzua egunero egoteko, sinadurak batuko dituzte astelehenean: San Martin ikastetxean egun osoz eta herriko plazan 12:30ean eta 17:00etan. Batutako sinadurak anbulatorioan aurkeztuko dituzte.

ERREPIDEAK > BOLU ETA ZABALOTEGI

Errekalde berdegunera bisita egingo dute domekan

Errepidea ez dela beharrezkoa uste dute auzotarrek, eta hori defendatuko dute

rala ikusteko eta ezagutzeko da. Hitzordua 11:00etan da, Ariznoa plazan, epaitegi aurrean. Errekalde parkeaz gain, Bolu auzoan dauden deposituak ere ikusiko dituzte, besteak beste.

DESADOSTASUNAK

Auzotarrek diote errepide hori ez dutela beharrezkoa ikusten herriarendako eta hori defendatzen jarraituko dutela. "Errepideak bizi kalitatea ekarriko digula dio alkateak, baina gu ez gaude ados", diote. Bestetik, pozik daude udal ordezkariekin bilera egin dutelako eta proiektuaren informazioa zuzenean jaso dutelako.

O.E. > BERGARA

Bolu eta Zabalotegi auzoetako bizilagunek bisita gidatua antolatuko dute domekarako. Arau subsidiarioek jasotzen duten errepideak zeharkatuko dituen txokoak bisitatuko dituzte, horien artean, Errekalde parkea. Biologo eta adituen eskutik egingo dute bisita eta hango zuhaitzak eta ondare natu-



JORRATZEN

Presoen eskubideen defentsan

Jorrazten herri plataformaren logoa -bi laia bata bestearen gainean- irudikatu zuten zapatu eguerdian, plazan, plataformaren aurkezpenean batu ziren ehun bat lagunek. Presoen eskubideen defentsarako sortu da Jorrazten eta horren alde jardungo du. Plataformak eskerrak eman nahi dizkie plazan bildu zirenei eta ezin izan zutenak agurtu.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

HIRIGINTZA > ETXEBIZITZA TASATUAK

Tasatutako 38 etxebizitza egingo dituzte San Antonio auzoan

Bat, bi eta hiru logelako etxebizitzak dira. Batzuk alokatu egingo dituzte eta beste batzuk saldu; 75 urte barru, berriz, etxebizitzak lurjabearendako izango dira berriro ere

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Tasatutako 38 etxebizitza eta 25 garaje egingo dituzte San Antonio auzoan, garai baten bidezainen etxebizitzak egondako tokian. Uda ostean hasiko dituzte lanak.

75 URTERAKO

Lau solairuko eraikina egingo dute: 38 etxebizitzetatik bat gutxituendako egokitutakoa izango da; zortzi alokairuan emango dituzte eta gainerakoak saldu egingo dituzte. 75 urte barru, ordea, etxebizitza lurraren jabearendako izango da. "Bi gauza lortzen dira horrela: etxebizitzaren salneurria merkeagoa izatea eta lurraren jabetasuna mantentzea", dio Jose Antonio Maisue-



BIDEZAINAK Duela bizpahiru urte bota zituzten bidezainen etxebizitzak.

O.E.

txek, Etorlur Gipuzkoako Lurrak SA promotoreko gerenteak.

Bat, bi eta hiru logelako etxebizitzak egingo dituzte. Azken horiek, zortzi guztira, duplexak izango dira.

%40, BERGARAKOENDAKO

Jose Antoniok berak azaldu duen bezala, "San Antonioko etxebizitza horien %40 Bergaran errol-datuta daudenendako dira eta gainerakoak Gipuzkoan errolda-

tuta daudenendako". Proiektua aztertzen ari dira orain. Datozen bi hilabeteotan lehiaketa publiko deituko dute obrak enpresa bati adjudikatzeko, eta uda ostean hasiko dituzte lanak.

LOKALAK > UDAL BAIMENAK

Zabalotegiko lokala itxi dute baimenik gabe erabiltzeagatik

Hiru lokal itxi dituzte baina hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean aztertuko dute berriro gaia

O.E. > BERGARA

Zabalotegiko 11. atariko hiru lokal itxi egin ditu Udalak, hainbat lagunek baimenik gabe era-

biltzen zituztelako. "Herriko hiru musika taldek erabiltzen zituzten lokal horiek, baina ez dute Udalarekin duten hitzarmena

berritu, eta horregatik itxi dituzte", azaldu du Maider Osa Kultura teknikariak. Udaltzaingoak egindako txostena ere izan dute kontuan erabakia hartzeko.

Joan den astean itxi zituen hiru lokal horiek Udaltzaingoak. Arotza ere joan zen eurekin eta sarraila aldatu zuen. Mainerren esanetan, lokal horien erabiltzaileak ez daude ados Udalak hartu duen erabakiarekin eta idatzi bat aurkeztu dute, erabakia aztertzeko eskatuz. Datorren asteko Tokiko Gobernu Batzordean hitz egingo dute berriro gai horri buruz. Bitartean, lokal horiek itxita egongo dira.

Zabalotegiko 11. atarian beste bi lokal ere badaude, besteez

gain; horiek baimena dute oraindik erabiltzeko eta zabalik jarraitzen dute.

LOKAL GUTXI ETA TALDE ASKO

Lokala behar duten herriko taldeek kultura etxean egin behar izaten dute lokalaren eskaera. "Lokal gutxi daude dagoen eskaera handiarekin konparatuz, eta irizpide batzuk jarri behar izaten ditugu lokalak talde bati edo besteari uzteko", dio Maider Osak. "Zabalotegin bertan, adibidez, lokal gehiago ere badaude: Pol-Pol argazki taldeak, taila eta zeramika egiten duten taldeek erabiltzen dituzte, esaterako. Musika talde batzuk, berriz, goiko estazioko lokaletan daude".

> ZERGA

Kontribuzioa ordaindu behar da datozen asteotan

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga, landa eta hiri-kontribuzioa, ordaindu behar da ekainaren 30a baino lehen. Borondatezko epe hori amaitu ondoren, errekarua izango dute erreziboek. Ordainketa banketxe baten helbideratuta dutenei, banketxearen beraren bitartez kobratuko zaie; erreziboek helbideratu gabe dituzten zergadunek, berriz, agiri bat jasoko dute etxean, eta horrekin edozein banketxetara edo udal bulegotara joan behar dute ordainketa egitera.

> IKASTAROA

Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa emango du DYAK

Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa emango du DYAK maiatzaren 29tik ekainaren 20ra. Egunerokotasunean gerta daitezkeen arrisku egoerei nola erantzun erakutsiko dute: bihotz eta birika suspertzea; zauriak, hausturak eta erredurak, adibidez. Ezagupen arruntak baina laguntza eman dezaketenak ikasteko aukera egongo da. Ikastaro bukaerako probak gaintzen dituenak sorosle titulua lor dezake. Izena emateko, deitu hona: 943 46 46 22.

> TEKNOLOGIA

IT txartela ateratzeko aukera dago hilaren 31n

IT txartela, Informazioaren Teknologian oinarritako gaitasuna erakusten duen txartela, ateratzeko azterketa egingo dute maiatzaren 31n KZgunean, 18:00etatik 20:00etara. Pertsona batek tresna informatikoak eta Internet erabiltzeko duen gaitasuna egiaztatzen du IT txartelak. Bestalde, posta elektronikoaren bitartez nola komunikatu irakatsiko dute KZgunean bertan hilaren 26an, 11:00etatik 13:00etara.



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

TELEIXA
BILTEGIAK
Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



HITZARMENA Eibarko Udalarari 3.477 espediente bueltatuko dizkio Bergarako Udalak; Soralezekoari 1.499 espediente dagozkio eta Mutrikukoari 1.427.

GOIENKARIA

HISTORIA > ARTXIBOKO AGIRIAK

Eskribautzen dokumentazioa bueltatuko zaie Eibar, Mutriku eta Soralezeko udalei

Aipatutako dokumentazioa 1512 eta 1866 urte bitartekoa da eta Bergarako Udalaren esku zegoen; hitzarmena eguaztenean sinatuko dute

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Udalak hitzarmena sinatuko du Eibar, Arrasate eta Mutrikuko udalekin, aipatutako udalei eskribautzen dokumentazioa bueltatzeko. Dokumentazio hori 1512 eta 1866 urte bitartekoa da eta Bergarako Udalaren esku zegoen. Udal Artxi-

bora nola iritsi ziren ez dago argi. Udal Artxiboa Epaitegian egon zen urte batzuetan eta 1981ean Epaitegitik Errekalde jauregira eraman zuten. Leku aldatze hori egiterakoan baliteke Eibar, Soralez eta Mutrikuko eskribautzen agiriak ere eramatea. 1995ean dokumentazioa

berriz aldatu zuten lekuz, Errekaldeetik udaletxera.

UDAL ARTXIBOAN

Dena dela, argi egon da beti eskribautzen dokumentazioa ez zela Bergarako Udalak sortutakoa. Lau udaletako ordezkariak gaiari irtenbidea emateko elkartu izan dira azken hilabeteotan. Bergarako Udalak eta Jaurlaritzako Kultura sailak hitzarmena sinatu zuten, dokumentazioa identifikatu eta inbentarioa egiteko. Hain zuzen ere, inbentario hori

erabili dute oinarritzat bakoitzari zer dagokion jakiteko. Guztira, Eibarko Udalarari 3.477 espediente bueltatuko zaizkio (1537-1866 bitartekoak); Soralezekoari 1.499 espediente dagozkio (1539-1849) eta Mutrikuri 1.427 (1512-1862 urte bitartekoak). Ikerketarako material ugari dago agiritan, toponimia, lan arloa edo tokiko historiakoak tartean.

Hitzarmena eguaztenean sinatuko dute udaletako ordezkariak, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 12:30ean.

> JAIK

Erromeria, afaria eta bertso-antzerkia gaur Muniben

Munibe plazara dantzara! egitarauari bukaera emateko, herriko trikitilariak kalejira egingo dute gaur, egubakoitzaren bitartean, 18:30etik 19:30era bitartean. Ondoren erromeria izango da Munibe plazan.

Gauen, berriz, herri afaria izango da Muniben bertan. Eta afalostean, 22:00ak aldera, Bertso Eskolako lagunek bertso-antzerkia eskainiko dute. Ikuskizunak *Xabierto, non Bergaran baino hobeto?* izena du eta herriko pertsonaia, arazo eta bestelako gaineko parodia izango da. Jarraian Ene bada taldearekin erromeria.

> MUSIKA

Musika Eskolan izena emateko epea zabaldu dute

Bergarako Musika Eskolak abian jarri du matrikulazio kanpaina. Ekainaren 15era bitartean izango da izena emateko aukera. Interesa duenak Musika Eskolara jo beharko du informazio gehiagoren bila.

Musika Eskolak eskaintza zabaldu dauka. Hain zuzen ere, hainbat musika instrumenturen gaineko eskolak emateaz gain, beste ikasgai hauek dituzte irakasgai: aurre-musika hizkuntza (umeendako), musika hizkuntza (azken hori helduendako), biolina, musika hezkuntza berezia, eta beste batzuk.

Simon Arrieta 3 BERGARA

Hemen lortuko duzu zure pisu perfektua



Deitu 943 76 48 56 telefonora eta hobeto sentiarazten erakutsiko dizugu



Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

EDEL
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kordinak, kordinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

UGARTE
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



Amaia eta Iñigo Zabala

ZABALA OPTIKA

Iñigo Zabala *Optiko Optometrista*

Barrenkale 25, Bergara • Tel.: 943 76 16 97

Eguzkitako betaurrekoetan eskaintza berezia!

- EGUZKITARAKO betaurreko graduatuak **75€**-tik aurrera
- Eguzkitarako PROGRESIBOAK, lente pareak **169€**-tik aurrera



Mota guztietako Progresiboetan eskaintza berezia

PRS:170/04

Ile - apaindegia
Styloak



Monika

Styloak ile apaindegia

Ez itxaron gehiago deitu!

943 77 70 57

Osintxu



Bezero txartelarekin ondorengo zerbitzuak oparituko dizkizugu

ZUK AUKERATU:

- 1- Tindatu, garbitu eta orraztu
- 2- Distirak/metxak garbitu eta orraztu
- 3- Garbitu, moztu eta orraztu

PROMOZIO BEREZIA:

Tindatu, Distirak edo metxak, Garbitu, Moztu, Oraztu, Makillaje basikoa.
Guztia **50 euro**.



AZKENA Bergarak bihar jokatu du Agorrosingo azken partidua, hurrengoa Euskaldunaren zelaian izango da-eta. GOIENKARIA

FUTBOLA > ERREGIONAL MAILA, IGOERA FASEA

Euskaldunaren kontra jokatu du Bergarak kanporaketa

Bergarak erregionaleko beste multzoan bigarren sailkatu den Euskaldunaren kontra jokatu du kanporaketako lehen partidua, bihar, Agorrosin

XABIER URTZELAI > BERGARA

Zerbaitetarako balioko ote duen jakin barik jokatu du Bergarak Euskaldunaren kontrako kanporaketa. Kontua da, Federazioak Preferente maila hemezortzi taldetara murriztea gura duela, baina oraindik ez dakite erabaki hori aurten hartuko duten ala ez. Goiko kategoriatan izango diren gorabeherak erabakiko dute hori, baina, Bergarako zuzendaritzak badaki Hirugarren Mailan dagoen Beasainek kategoria galtzen badu, Preferentea ez dutela aurten murriztuko. Karanbolen zain egon behar.

Hori ez da, baina, Bergarak izan behar duen ardura bakarra, lehena ez, behintzat. Hasteko, Josu Zubiaren mutilek erregionaleko beste multzoan bigarren sailkatu den Euskalduna taldearen kontrako kanporaketa gain-

ditu egin behar dutelako. Bihar jokatu dute (16:30, Agorrosin) kanporaketa horretako lehenengo partidua.

TALDE EZEZAGUNA

Erregionaleko bigarren multzoan Euskaldunak Bergarak baino hiru puntu gutxiago behar izan ditu bigarren sailkatzeko (62). Bergarak Zumaiakorekin azken unera arte lehia estua izan duen bitartean, Euskalduna lasai asko ibili da, hirugarren postuan sailkatu den Oiartzun zazpi puntura gertatu delako. Hala, Bergararen multzoa askoz ere lehiakorragoa izan da, baina horrek ez du asteburuan hasiko duten kanporaketaren gainean asko esaten. Bergarako entrenatzaileak esan digun moduan, ez dute Euskalduna asko ezagutzen: "Badakigu gu baino beterranoagoak direla, eta maila

handiko jokalaria ez badituzte ere, talde lan handia egiten dutela, hor dagoela euren benetako indarra. Jokalariak hiru urte daramatzate elkarrekin jokatzeko, eta jokalaria bakarren bat dute oso ona dena".

LEHENA ETXEAN

Agorrosin hasiko dute kanporaketa, baina Bergarako entrenatzaileak gurago luke lehenengo partidua kanpoan jokatzeko: "Euskaldunak badu abantaila hori, izan ere, lehenengo partiduan errespetu handiagoa izaten da. Kontrarioa ezagutzeko balio izaten du lehenengo partidua, eta bigarrean bakoitzak ondo jakiten du nondik nora jo. Horregatik gurago izaten dut horrelako kanporaketetan bigarren partidua etxean jokatzeko". Bergarako entrenatzaileak ondo daki bihar irabaztea garrantzitsua dela, baina hori ez da dena: "Agorrosin golik ez jasotzea ere garrantzitsua izango da". Horregatik, baina, Bergarak ez du jokatzeko modua aldatzeko asmorik.

DIRULAGUNTZAK

85.475 euro Bergarako kirola bultzatzeko

X.U. > BERGARA

Bergarako Udalak bi laguntza mota ematen ditu herriko kirol elkarte eta kirolariendako. Batetik, oinarrizko kirolean ibiltzeagatik edota kirol federatuko jarduerak burutzeagatik, eta bestetik, izaera puntualeko kirol jarduerak antolatzeagatik.

Bergara Kirol Elkarte (40.200 euro), Lokatza ziklismo taldea (12.500 euro), Beti Busti (4.700 euro) eta Antxintxika Triatloi Taldea (4.600 euro) dira diru gehien jasotzen dutenak. Horrekin batera, goi mailako kirola praktikatzeko dutelako dirulaguntza berezia jasotzen dute Markel Larrañagak, Fernando Markinak, Markel Agirrek eta Gorka Fernandezek.

PILOTA

Bergara Hiria azken txanpan sartuko da

X.U. > BERGARA

Datorren martitzenean jokatu dituzte Bergara Hiria Pilota Txapelketako lehenengo finalerdia. Hala, 19:30ean hasita, Larrañaga bikoteak Elurbe eta Mitxelena izango dute aurrean. Partidu hori 22 urtez azpikoa izango da, eta jarraian jokatu dute nagusien finalerdietako bat: Abad eta Okinena Renobalesen eta Gutierrezen kontra. Hala, txapelketa hasi aurretik Bergarak zituen hiru ordezkarietatik bik aurrera egin dute, Muguruzak ez du lortu-eta finalerdietarako txartela.

Martitzenean jokatu dituzte kanporaketa horiek, eta maiatzaren 30ean jokatu dituzte finalerdietako azken partidua.



GOIENKARIA

Bergara Kopako finalerdietan

Kopako lehenengo fasean maila ezin hobea erakutsi eta gero, Bergarak finalerdietako partidua jokatu du bihar, 17:00etan, Labegarietan. Ormaiztegi taldearen kontra jokatu dute mahoneroek, eta talde hori euren kantxan kontrario gogorra bada ere, etxean jokatu, Bergara ez da inoren beldur. Beste finalerdian Urrietako eta Urola izango dira nor baino nor gehiago. Bergarak eskura du finala, azken ahalegina egitea falta da.



ekar^m

Orain, **elkar txartel berriarekin:**

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta **doan** atera.

elkar megadenda Bergaran
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA
GASTEIZ • IRUN • IRUÑA • TOLOSA

Poltsikoratu deskontu guztiak!



Maiatzak 20 eta 21
Arrasate



ARRASATEKO UDALA

Laguntzaillea:



■ ALBISTEAK

Herriko kultur ekitaldietan finkatu da Erdi Aroko azoka

Arrasateko Erdi Aroko azokak bere lekua hartu du herriko kultur eskaintzan. Aurten 3. aldiz antolatuko da azoka eta aurreko urteetan izandako bilakaera positiboarekin

jarraitu nahi dute udalekoek. Iaz, 25.000 pertsona inguru hurbildu ziren Arrasatera azokaz gozatzera. Lehenengo urtean baino jende gehiago ibili zen. Aurten, kopuru hori

handitu nahi dute. Horretarako eskaintza zabala prestatu dute azokaren inguruan lanean dihardutenek. Jendea inguratu eta festaz gozatzea besterik ez da falta.



GOIENKARIA



JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Iaz gertatutakoa errepika ez dadin aurten Udalak ahalegin berezia egin du kartel eta mezu guztiak euskaraz ere legon daitezen. Udalak berak egin ditu itzulpenak eta aurtengo berrikuntza garrantzitsuenetako bat izango da hau. Aurreko urteetako Erdi Aroko Azokak kritikak jaso zituen euskararen presentzia urria zela-eta. Aurten, Arrasateko Udalak euskararen presentzia bermatu nahi du.



GOIENKARIA



GOIENKARIA

Sorginkeriez, mitoez eta liluratuta uzteko asmoa daukaten ikuskizunez beteko dira alde zaharreko kaleak asteburuan, eta kontuz ibili beharko dute askok suge sorgintzaileak edo elfoek txora ez ditzaten. Umeak liluratzan ere ipuin kontalariak ibiliko dira.

Artisautzatik hasi eta ukendu naturalak arte, era arguztietako bitxikeriak aurkitu ahal izango ditu bisitariak azokan. Bapo jan eta ondo asetzeko ere guneak egongo dira gozo eta janari beroekin.

Hegazti gripeak sortu duen kezka dela eta, Arrasateko Udalak aurtengo Erdi Aroko Azokara hegaztirik ez ekartzea adostu du. Hala, aurten ez da harraparien erakustaldirik egongo Arrasaten.

ARRASATE ATXABALPE

Ekainaren 3an
arratsaldeko 3etan

Ekainaren 2 eta 3an. Arratsaldeko 7etatik goizalde arte. Udaletxeko enparantzan. Alemaniar edari eta errekien dastaketa

GARAGARDOAREN ZORTZIGARREN FESTA HANDIA

Antolatzaileak: Arrasate Rugby Taldea • Aukea • Kajoi



■ EGITARUA

Antzinako giroan, aisialdi eta kultura eskaintza zabala

Zapatua, 20

12:00 Azokaren HASIERA

12:00 Arrasate Musikaleko SOKA TALDEAREN emanaldia Udaletxe plaza

12:15 SUGE SORGINTZAILEAK sugeak erakutsi eta sorginduko ditu

12:30 Erdi Aroko EUSKAL MUSIKA

12:30 Arrasate Musikaleko SOKA TALDEAREN emanaldia Seber Altube plazan

12:45 KALEJIRA. Erdi Aroko Azokaren eremutik ibiliko dira animazio taldeak, malabaristak, musikariak...

13:30 KONDAIRA ZAHARREN kontaketa

18:30 KALEJIRA. Animazio taldeak, malabaristak, musikariak...

18:45 SUGE SORGINTZAILEAK sugeak erakutsi eta sorginduko ditu

19:00 Arrasateko DOKE ANTZERKI TALDEAK emanaldia egingo du kalez kale

19:00 Erdi Aroko EUSKAL MUSIKA



19:00 IPUINAK kontatuko dituzte

19:30 ITSU BATEN eta bere itsumutilaren zoritxarrak

20:15 Jauregiko DANTZAK

21:15 Itsuak BERTSOAK abestuko ditu

22:30 MUNDUAREN SORRERAREN mitoaz azalduko dute antzezlan batekin

Domeka, 21

12:00 ELFOEN kalejira

12:30 Erdi Aroko EUSKAL MUSIKA

12:30, 12:45 IPUINAK kontatuko dituzte

13:00 SUGE SORGINTZAILEA

13:30 KALEJIRA egingo dute animazio taldeak, malabaristek, musikariak...

18:00 JUGLAREAK



MALABARISTEN IKUSKIZUNA

18:30 SUGE SORGINTZAILEA

18:45 ITSU BATEN eta bere itsumutilaren zoritxarrak

19:00 Erdi Aroko EUSKAL MUSIKA

19:00 IPUINAK kontatuko dituzte

19:30 JUGLAREAK

19:45 SUGE SORGINTZAILEA

20:00 Erdi Aroko EUSKAL MUSIKA

20:00 IPUIN kontaketa

21:00 Erdi Aroko EUSKAL MUSIKA

21:15 Itsuaren BERTSOAK

22:30 MUNDUAREN SORRERAREN mitoaren inguruko antzezlan



ARTISAUEN SALMENTA POSTUAK

Berlingo FLÖZ antzerki taldeak aurkezten du
“DELUSIO” antzezlan
GIPUZKOAN EMANALDI BAKARRA

Maiatzaren 28an, 19.30etan
Arrasateko AMAIA ANTZOKIAN

■ HERRIKO TALDEAK

Azokak leku berezia egingo die herriko hainbat talderi

Azokan ere herriko hainbat taldek hartuko du parte, herriko kutsua ere har dezan



GOIENKARIA

DOKE ANTZERKI TALDEA

Arrasateko historiaren gaineko kontuak ekarriko dizkigute Doke antzerki taldekoek. Arrasateko kaleetan banatuko dira, bi taldeetan, eta guztiak plaza nagusian egingo dute bat, borrokarako prest. Kontakatilua izango da bertan, indarrak baretu nahian. Emanaldia zapatuan arratsaldeko 19:00etan izango da.



JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

ARRASATE MUSIKAL

Beste urteetan bezala, Arrasate Musikaleko hari taldeak erakustaldia emango du. Zapatuan Barituko dira Arrasate Musikalekoak eta bi saio egingo dituzte; bata eguerdiko 12:00etan herriko plazan eta bestea 12:30etan Seber Altube plazan. Aurreko urteetako giro hobetu asmoz aterako dira musikari arrasatearrak herriko kaleetara.



GOIENKARIA

IBAI ARTE, ERDI ALDEKO DENDARIEN ELKARTEA

Herriko dendariak ere bat egingo dute Erdi Aroko azokarekin eta dagoeneko joan den aste-tik erakuslehoetan dauzkate zintzilikatuta azoka iragartzen duten kartelak. Era berean, eta kaleko apainketarekin gaizki ez emateko, denden kanpoko aldean ere apainduko dute dendariak oihala eta estandarte koloretsuekin.



GOIENKARIA

HERRIKO ARTISAU BATZUK POSTUAK IPINIKO DITUZTE

Azokak berak ekarriko dituen postuez gain, herriko artisauek ere parte hartu nahi izan dute aurtengoan. Bostek ipiniko dituzte saltokiak eta Seber Altube inguruan egongo dira Pablo Pacheco eta Inma Delgado, bitxiekin, Amaia Otadui eta Maider Altzelai larrugintzan, besteak beste, Idoia Ibañez gantxilloarekin eta Felix Barcina ezpela lantzen.



Ardoaren eguna 2006

Ardo dastaketa goiz eta arratsaldez (Arabar Errioxako 21 upategi)
Jasotako dirua Mondra futbol taldeentzant izango da
Tokiak: Herriko plaza nagusia, Sebero Altube eta Laubide

Gaztaren eguna 2006

Gazta dastaketa eta salmenta
Tokiak: Herriko plaza nagusia, Sebero Altube eta Laubide
Idiazabalgo urteko gaztaren lehiaketa egingo da Herriko plaza nagusian

Ekainak 10, zapatua, Arrasate



Kaji Taberna



Ibai-arte



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

mingainari tiraka

Lorea Ugarte > Jolasleku Ibiltariko begiralea

"Lehen, bi makila nahiko ziren jolasteko"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Asteburuetan umeekin ibiltzen da, aisialdiko begirale; eta maiatzeko egubakoitzetan ere umeekin egiten du jolas Lorea Ugartek, Jolasleku Ibiltarian. Izan ere, umeekin jolastea gustuko du, eta hori izan dugu berbetarako gai.

Egungo umeez badakite jolasean egiten?

Jakin badakite, baina askotan helduen beharra dute antolatzeke. Ezkutaketetan, polizia eta lapurretara, sokasaltoan... jolastea dute gogoko.

Zuk umetan zertan jolasten zinen?

Ni ere antzerako jolasetan ibiltzen nintzen, baita kaniketetan ere, eta orain ez dute horretan jolasten.

Makinei lotuta bizi dira orain umeez?

Gu ere ibiltzen ginen, baina orain gehiago, eta hori umeen kalterako da; hobe da lagunekin jolastea.

Mutilek baloia eta neskek panpinak?

Txikitant mutilei baloia ematen zaie eta neskei panpina; baina ez luke horrela izan



beharko; hau da, biek biek jolastea da, nire ustez, aproposena.

Euskaraz jolasteko ohituratik badute umeez?

Elkarren artean gazteleraz hitz egiten dute, eta jolasean are gehiago. Jolasleku Ibiltarian saiatzen gara umeez euskaraz jolas dezaten; nik jolaserako kantu gehiago dakizkit euskaraz orain

Norekin ez zinateke sekula jolastuko?

Edozeinekin jolastuko nintzateke; baina aukeran, nahiago euskaraz dakienarekin.

Antzinako jolasak eta oraingoak ezberdina dira?

Lehen, edozein gauzarekin jolasten ziren; bi makila nahiko ziren jolas bat asmatzeko. Orain, ordea, material gehiago behar dute.

Proposatuz jolas bat gaur arratsalderako.

Jolasleku Ibiltarian sokasaltoan, kantuan, dantzan... ibiliko gara. Orain, beroarekin, ur jolasak ere egingo nituzke.

bere ustez



Lander Juaristi

Zerga aitortpenaren garaia

Heldu da estatuarekin kontuak egiteko garaia. Usteko ongizate gizarte honetan gure eskubide eta betebeharren artean nabarmentzen den betebeharra. Zerga aitortpenaren garaia da!

Baina ba al dakigu zertarako erabiliko diren gure diruak? Nik ez dut nahi astakeriak egiteko erabiltzerik, ez dut AHTrik nahi, ez ditut interes ekonomikoak eta ez gizarte beharrei erantzuten dieten proiektuak nahi, ez dut ejertzito espainola finantzatzetik nahi...

"Badakigu zertarako erabiliko diren gure diruak? Ez dut astakeriak egiteko erabiltzerik nahi"

Estatu espainiarren gastu militarra 18.554,51 milioi eurokoa da, diru asko alajaina! EAEk gastu antzu, zapaltzaile honetarako 1.534,29 milioi euro ematen du. Benetan al dago prest euskal gizarte honetarako? Barakaldoko guardia zibilaren makro kuartelak 15 milioi euro (garai bateko 2.500 milioi pezeta) eraman zituen. Zertarako? Torturatzeko? Inkomunikatzeko? Zapaltzeko? Honetarako erabiltzen al da langileon dirua?

Datu hauek Eusko Jaurlaritzaren pobrezia eta gizarte taldeei buruzko inkestak ondorioztatzen dituenak alderatuz, absurdoa erraldoi bilakatzen da. 45.804 famili bizi omen dira pobrezia egoeran.

Astakerien aurrean zabal ditzagun begiak!

txutxumutxua

Udaltzainek udarako mahuka motzeko uniforme berria estreinatu dute

Pacific blue telebista saioan uniforme dotoreekin ikusten genituen poliziak. Baina ez dugu telebistari begira egon beharrik; izan ere, Bergarako udaltzainek ere uniforme berria dute, eta ez nolanhikoa gainera. Maiatzaren 15ean hasi ziren udaltzainak udarako mahuka motzeko kamisetak erabiltzen. Lehengo alkandora urdin argien partez, kamiseta urdin ilunak erabiliko dituzte, eta, herritarrek ongi ikus ditzagun, goiko partean kolore hori fluoreszentea izango dute. Udaltzainek esan digute "erosoagoak eta arinagoak" direla kamiseta berriak; beraz, egun hauetako beroari aurre egiteko proposak.



IRATI AGIRREAZALDEGI

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



Ion Murgizu margoak

Margolanak orokorrean
Margo dekoratiboa
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iiion@euskalnet.net

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

AKEITA Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORATZA

IOSU taberna harategia


Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

HAIZEA taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60



EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43



Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 7 ESKORATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84



Loteria primitiboak
eta kintelak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

Gurea TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



EUSKAL GIROA Trikitixa eta txalaparta doinuekin hasitako eguna bi herrien arteko desafio eta Larrain dantzarekin borobilduko dute.

GOIENKARIA

JAIA > EUSKARAREN EGUNA

Doneztebarrak izango dira herrian Euskararen Egunean

15 bat lagun etorriko dira eta gazta ekarriko dute dastatzeko

Desafioa egingo dute aretxabaletar eta nafarrek bazkalostean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO
Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako Euskararen Astea aurrera doa, eta gaur, egubakoi-tza, ekitaldi bi daude herrian: dantza garaikide erakustaldia 19:00etan, Mitarte kalean, eta Arima Beltza taldearen kontzertua 22:00etan, Ezkutu tabernan.

URTEROKO EKITALDIAK
Euskararen Asteko egunik garrantzitsuena, baina, bihar-koa da, Euskararen Eguna. Eus-

kal jai giroa izango dugu goizean hasi eta gauera bitartean. Umeentzako tailerrak, gazta dastatzea sagardoarekin, bertsolariak, herri bazkaria eta Larrain dantza dira egitarauan urtero egoten direnak, eta bihar ez dute hutsik egingo. Hala ere, badago berrikuntzarik aurtengo ekitaldien artean. Elkartrukea antolatu du Loramendi Eek Doneztebeko Burrunba taldeko kideekin, eta Euskaren Eguneko jai giroa aprobetxatuko dute gure-

ra etorri eta ondo baino hobeto pasatzeko.

DESAFIOA DONEZTEBEKOEKIN
Apirilean ziren egitekoak elkartrukea, baina arazo batzuk tarteko atzeratu egin zuten. Zapatu goizean helduko dira herrira, 15 lagun inguru, eta ondo pasatzeko gogoz etorriko dira guztiak ere. Gazta ekarriko dute, gainera, Doneztebetik, eta inguruko baserrietakoekin batera eskainiko dute. Sebastian Lizaso eta Aitor

Euskararen Eguna

20, zapatua

11:00: Leizarra musika eskolako trikitilariarekin kalejira.

11:30: Umeentzako tailerrak Mitarte kalean.

13:00: Inguruko baserrietako eta Doneztebeko gazta

dastatzea. Muru-Alde aurrean txotx egiteko aukera izango da.

13:00: Bertso saioa Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluzeren eskutik. Gai jartzailea: Amaia

Agiriano eta Leintz bertso eskolako gaztetxoak.

14:30: Herri bazkaria. Herriko gastronomi elkarteek gertatutako babarrun jana.

Bazkalostean: KniK antzerki talde aretxabaletarrak eskainitako antzezlan.

Ondoren: Aretxabaleta-Donztebe desafioa.

17:00: Korri Xaltoa eta Brinko pailazoak Mitarte kalean.


19:30: Larrain dantza Durana kalean.

20:00: *Euskal Herriak bere eskola* lelopean kalejira, EHE eta EHBEn eskutik.

Mendiluzeren bertso saioa entzun ostean babarrunak jatera hurreratuko dira nafarrek zein gipuzkoarrak Herriko Plazara. Bazkarirako txartela erosi barik daukanak egunean bertan erosi ahal izango du, gazta dastatze postuan, 18 euro ordainduta. Urtero moduan Uratz-Alde, Urbaltz, Batzokia eta Muru-Alde gastronomi elkarteek gertatuko dituzte babarrunak.

Bazkalostean hainbat ekitaldi egongo dira. Lehenengo KniK antzerki talde aretxabaletarraren emanaldia. Eta ondoren Aretxabaleta-Donztebe desafioa. Hainbat joko gertatuko dituzte Loramendiko kideek, eta herriko taldea orduantxe bertantxe osatuko dute. Pailazoen emanaldia eta Larrain dantza saioa bukatutakoan kalejira egingo dute EHE eta EHBek, *Euskal Herriak bere eskola* aldarrikatuta. Herritar guztiak parte har dezaten gura dute antolatzaileek.

Hori guztia gutxi ez eta, hainbat erakusketa egongo dira egunean zehar: Tril emakume taldeak antolatutako ikastaroetako eskulan eta bainikak, eta Okila taldekoen tailak udaletxe zaharrean; Hiruatx taldearen bidezko merkataritza denda, ostera, Murruxikoko lokalean.



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura



PASABIDEA Orain hutsik dagoen garajea oinezkoak pasatzeko bidea izango da datorren urtean.

M.A.

HIRIGINTZA > DURANA ETA ERREKABARREN KALE ARTEKO PASABIDEA

Pasabidea egingo du Udalak Durana kalean

Oinezkoentzako izango da pasabidea, zabala, eroso eta segurtasun neurri guztiak izango dituen, eta datorren urtean hasiko dira egiten

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Pasabidea egitea erabaki du Udalak Durana eta Errekabarren kaleen artean. Proiektua egingo dute aurten, eta lanak datorren urtean hasiko dituzte.

PASABIDE EGOKIA

Durana kaleko 28. zenbakiko etxabea erosi du Udalak pasabidea egiteko asmotan. Durana kalea eta Errekabarren kalea elkartuko ditu pasabide horrek; hain zuzen, Errekabarreneko 1. eta 3. atarreen aurrealdera joko du. Proiektua aurten egitea aurreikusi du Udalak, eta ez du edonolako pasabidea egin gura, Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak dioen moduan: "Oinezkoentzako pasabidea izango da, baina ez edonolako. Hainbat irizpide hartuko ditugu kontuan

proiektua egiterakoan: kalitatea, zabalera, segurtasuna, diseinua eta garbitasuna. Tunel asko pasabide ilun eta zikinak bihurtzen dira, eta ez dugu inondik inora ere halakoa izaterik gura".

Udal aurrekontuek aukerarik emango balute aurten hasiko lituzkete eraikitze lanak, baina seguru asko datorren urtera itxaron beharko du pasabideak. Duranako 28. etxabearen gainean bizi diren bizilagunen oniritzia jasoko du aurretik Udalak lanak hasteko.

JOAN-ETORRIAK BIZKORTU

Durana kaleko etxabea orain erosi badu ere Udalak pasabidea egiteko, ideia aspalditik dator. Aretxabaleako hiriguneko berritze plana onartu zutenean, 1985 inguruan, pasabidearen

proiektua jasota geratu zen. "Helburua da, Durana kalean herri-tarrek egiten dituzten joan-etorriak bizkortzea", dio Segoviak. Hala, Urats Gain zaharren egoitzara edo Agustindarren komentura joan gura dutenak askoz samurrago helduko dira. Errekabarren kalea bera ere askoz gertuago geratuko da erdigunetik. Gainera, Durana kaleko etxebizitza batzuek etxabeak dituzte Errekabarren aldera, eta bertako bizilagunek ere igarriko dute hobekuntza pasabidea egiterakoan.

Hemendik urte batzuk barru, gainera, 500 etxebizitza gora egingo dituzte kirol etxean hasi eta Lausitta kalera bitartean, hau da, Deba ibaiaren beste aldean. Tranbia bera ere, baldin badator behintzat, ibaiaren beste aldetik pasatuko da Andramari auzunera bitartean, hortaz, garrantzitsuak izango dira erdigunea eta ibaiaren beste alde elkartuko dituen kale eta pasabide guztiak.

INGURUMENA > EGUZKI PLAKAK

Eguzki plaken berri ematen duen panela dago kirol etxean

Herriko hiru tokitan daude plakak: Kurtzebarri eskolako bi egoitzetan eta kirol etxean

M.A. > ARETXABAETA

Orain dela urtebete pasatxo jarri zituzten herriko hainbat eraikinetan eguzki plaka fotovoltaikoak. Bada, horiek ekoizten duten energiaren berri izateko panela jarri dute orain.

EGUNEAN BOST KILOWATT

Hiru eraikinetan daude eguzki plakak: Kurtzebarri eskolan bi -Lehen Hezkuntzako eta DBHko egoitzak- eta kirol etxean. Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak, EEEK, 2004an sinatu zuten hitzarmenari

esker jarri zituzten plakok, eguzkiak sortzen duen energiari etekina atera guran. Siliziozko zelulez osatutako panel fotovoltaikoek energia elektriko bihurtzen dute eguzkitik datorrena. Hain zuzen ere, egunean bost kilowatt ekoizte dezakete, urtean 2.000 edo 2.500 kilowatt. Horren guztiaren berri ematen du kirol etxean oraintsu jarri duten argibide panelak. Sarreran dago, eta edonork egin diezaioke jarraipena, unero ekoizten duen energiaren berri ematen duelako.



PANELA Eguzki plakek ekoiztutako energiaren berri ematen du.

M.A.

> ISTRIPUA

Istripua izan zuen bizikletan zihoan lagun batek domekan, bidegorrian, Urkulutik bueltan

Istripu bat baino gehiago gertatu ziren joan zen domekan Urkulu inguruan. Bidegorrian behera bizikletan zihoan lagun batek erori eta min hartu zuen. Larrialdietara deitu zuten, baina ambulanzia Ojala Zelaiko krosa zaintzen zegoen eta Elgoibarko bat bidali zuten. Anbulantziako kideek ez zuten ingurua ezagutzen eta denboratxo behar izan zuten zaurituarengana heltzeko.

Bestalde, Ojala Zelaiko krosetako korrikalari bat ere erori egin zen txakur bat agertu zitzaioelako aurrean. Antolatzaileek deialdi berezia egin zuten halakorik gehiago gerta ez dadin.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

SANER

ITURGINTZA

Selaikua baserria
Apozaga auzoa
ESKORIATZA

605 71 66 92 / 943 71 52 51

Lie

LURRINGEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAETA



> ONGIZATEA

Imersoko bidaietara joateko izenemate epea zabalik dago

Urtero antolatzen ditu erretiratuentzako bidaiak Imersok, eta aurrez eman behar izaten da izena. Dagoeneko zabaldu dute izenemate epea eta udaletxeko Ongizate Sailera joan behar da horretarako. Myriam Beltran de Herediak dauka bidaien ardura eta argibideak gura dituenak harekin egin dezake berba astelehen, martitzen eta egu-bakoitzetan. Ekainaren 15a bitartean egongo da zabalik izenemate epea.

> ERRETIRATUAK

Entzumenaren gaineko berbaldia astelehenean

Entzumenaren gaineko kontuak argitzeko berbaldia antolatu du Basotxo Erretiratuen Elkarteak astelehenerako, maiatzak 22. Resalin etxeko Pedro Carballo joango da berbaldia egitera. Entzumenaren funtzionamenduaren, arazoaren eta audiofonoen gaineko azalpenak emango ditu Carballok. 17:00etan izango da, Basotxoko aretoan, eta antolatzaileek elkarteak bazkide guztiak gonbidatu dituzte hurrera daitezen.

> ERLIJOIA

Santa Rita eguna ospatuko dute agustindar mojek

Astelehenean hasita Santa Ritaren bederatziruena egiten dabilta agustindar mojak komentuan, 19:00etan. Bihar, zapatua, 18:30ean egingo dute, baina ez da mezarik izango, eta domekan 09:00etako mezan eta 18:30eko bezperetan ospatuko dute. Santa Rita eguna, ostera, astelehenean da, maiatzak 22. Egun horretan meza bi esango dituzte: Agustindarren komentuan 11:00etan bata eta 19:00etan bestea.

> EUSKARA

'Ipuinak zela kontatu' ikastaroa hilaren 27an, AEKren eskutik

Ipuin kontaketa ikastaroa antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak maiatzaren 27rako, zapatua. Gurasoentzako da aipatutako ikastaroa, eta AEK-ko lagun bat etorriko da eskola ematera. Ipuinek umeen heziketan duten garrantzia aipatuko du eta ume txikienek ere ulertzeko eran zela kontatu azalduko die hurreratu direnei. Izena aurrez ematea komeni da, Loramendi EEko txokora joanda.

ANTZERKIA > LEHEN TRILKIMAILU TALDEA ZENA ORAIN KNIK IZANGO DA

KniK taldea 'AIO' lanarekin aurkeztuko da eta proiektu berrietarako ate izan gura du

Hogei minutuan gure herriaren gaineko kontuak gogoraraziko dituzte eszenatokirik behar ez duen antzezlan dinamikoarekin

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Orain urtetxo batzuk sortu zuten Trilkimailu taldea herriko hainbat gaztek, antzerki ikastaro bat egin ostean. Bada, aldaketak izan dituzte taldean eta izen modernoagoa topatu gura izan diote. Horregatik, hemendik aurrera KniK izango dira, eta kanikaren soinuak irudikatuko ditu.



ANTZEZLANA Euskararen Egunean aurkeztu du urtero Trilkimailuk.

TRILKIMAILU

ANTZEZLAN DINAMIKOA

AIO antzezlan gertatu dute Euskararen Egunerako, eta bihar herri bazkarian aurkeztuko dute aretxabaletarren aurrean. Beñat Zamalloa, Katalin Antxia, Aitor Aspe eta Ane Lur Garin dira aktoreak eta zuzendaria Iurgi Etxebarria. "Ez dugu eszenatokirik erabiliko, eta ikuslearengandik oso gertu egongo gara. Antzezlan oso dinamikoa da", dio Beñat Zamalloak. "Hala ere, aurreko urteotan egindakoaren antza izango du, oraingoan ere gaia herriko kontuak direlako".

Euskararen Egunean aurkeztuko dute, baina aurrera jarraituko duen proiektua izatea gura dute: "Trilkimailuk orain urtebete egin zuen azken antzezlan, eta KniK-k proiektu berrietarako ate izan gura du", dio Beñatek.

argazki zaharra

Mundialera zihoan Iribarrekin

Kopako partidua jokatzera joan zen UDako gazteen mailako taldea Zarautzera. Hasi aurretik omenaldia egin zioten Joxe Anjel Iribar atezainari, Ingalaterrako mundiala jokatzera zihoalako selekzioarekin. Zela ez, aretxabaletarrek argazkia atera gura izan zuten Iribarrekin.

Zutik daudenak: Iribar, Masip, Gutierrez, Abel, Isaac Idigoras, Paulo Oianguren eta Gartziaetxabe. Makurtuta: Artze, Jabier Elkoro, Etxebarria, Jose Manuel Gabilondo eta Gonzalez.

Argazkia: Ramon Mari Elkoro.

Testua: Elkoro eta Gonzalez.

Urtea: 1966.



Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behe
ARETXABALETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56

KULTURA ONDAREA > AINGERU GUARDAKO ERMITA BERRITUTA

San Isidro egunerako zeharo berrituta utzi dute ermita

Herritarrek bultzatuta eta euren ekimenez egin dute ermitaren berritze lan guztia

Udalak asmoa dauka ermitaren inguruan berdegunea, iturria eta mahaiak jartzeko

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eskoriatzarrak pozik daude. Herrian zeresan handia izan duen Aingeru Guarda ermita zeharo berritu dute eta badirudi Udalak eta herritarrek erabiltzeko asmoa dutela. Hain zuzen ere, hori lortzeko herriko hainbat erretiratut lan handia egin behar izan dute, eta jarri zuten helburua bete egin dute: San Isidro egunerako ermita berrituta egotea.

Otsailaren hasieran herriko lauzpabost lagunek Udalera jo zuten ermitaren egoerarekin kezkatuta. "Sabaitik zati txikiak jausten ziren eta ezer egin ezean ermita zeharo usteldu eta osorik jausiko zen", azaldu ziguten. Udalak laguntza eskaini zien eta lanean jarri ziren: ermitaren egoera aztertu, aurrekontuak eskatu, herritarrei laguntza eskatu... Bestalde, Udalak agindu zien Aldundiarekin ere harremanetan jarriko zela laguntza eskatzeko.

22 MILA EUROKO AURREKONTUA
Hainbat herritarrek euren kezka agertu zuten ermitaren egoera zein zen jakin ostean, eta ondo hartu zuten lagun horien asmoa. Lanek 22 mila euro inguruko aurrekontua izan dute, eta, besteak beste, honako lanak egin behar izan dituzte: oholak eta teilak aldatu, eraikina barrutik eta kanpotik margotu...

Horrez gain, santuen irudiak Aretxabaletako mojetara eramanez zituzten, eta haiek arduratu dira



HERRITARRAK POZIK Hainbat herritar gerturatu ziren baserriaren egunean ermitaren inauguraziora.

IKER BARANDIARAN

irudiak konpondu eta margotzeaz. Bada, begi-bistan dago lan txukuna egin dutela.

Ermita berritzearen bultzatzaileek aitortu digute gremioen erruz larri ibili direla San Isidro

egunerako lan guztiak bukatzeko, baina kostata bada ere lortu egin dutela. Pozik daude emaitzarekin, eta zain daude erakundeen laguntzak noiz helduko diren, kostua uste baino handiagoa izan da-eta.

"Aingeru Guarda ingurura jende asko joaten da paseoan eta zaindu beharreko gunea dela uste dugu. Ea guztion artean lortzen dugun", azaldu ziguten.

BERDEGUEA ETA ITURRIA

Udalak asmoa dauka ermitaren inguruan berdegunea, iturria eta mahaiak jartzeko. "Inguru hori berreskuratzea eta herritarrek berriro erabiltzea merezi duela uste dugu, eta horretarako gailuak jartzeko asmoa daukagu". Hala erabaki zuten orain dela hilabete batzuk, eta seguruenik aurrekontuetan sartuko dute horretarako diru-partida.

Azken orduko aldaketarik ez badago, Udaleko langileak berehala hasiko dira lurra landatzen, eta aisialdi-gune hori uztaileara egongo da bukatuta.

BASERRITARREN OHITURA

Baserritarrek Aingeru Guardan egin zuten meza, ohiturak eskatzen duen moduan

Aspaldiko ohitura da San Isidro egunean baserritarrek Aingeru Guardako ermitan meza entzutea. Hain zuzen ere, ermita horretan dago San Isidro santuaren irudia. Zoritzarrez, azkeneko zortzi urteotan, ermitaren egoera kaskarra kontuan hartuta, egun horretan santuaren irudia San Pedro elizara eramanez dute.

Aurten, berriz, herritar batzuen ekimenari esker, meza jatorrizko lekuan egin zuten, eta erantzuna itzela izan zen. Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko lagunek jo zuten hara, eta ermita txiki gelditu zen. Horren ostean, txikiteoa egin eta baserritarrek bazkaltzera joan ziren.

JAIK

Jaietako azala aukeratzeko lehiaketa

I.B. > ESKORIATZA

Dagoeneko igartzen hasi da jai usaina herrian. Horren harira, Udalak abian jarri du 2006ko San Pedro jaiak iragaritzeko horma-irudiaren urteroko lehiaketa.

Lehiaketa horretan edozein lagunek esku hartu ahal izango du inolako muga barik, eta edozein teknika erabili ahal izango da. Egileak kontuan hartu beharko du aukeratzeko irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko dutela. Egitarauak honako neurriak izango ditu: 21 x 10 zentimetro.

IRABAZLEARENDAKO 300 EURO

Horma-irudiak honako testua izan beharko du derrigorrez: 2006ko San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, Uztaileak 1.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 6an bukatuko da, eta lanak kultura etxera eramanez beharko dira. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

> AISIALDIA

Uztaileko udaleku irekietarako izenematea zabalik

Uztailearen 4tik 21era bitartean udaleku irekiak egingo dituzte herrian. 1994 eta 2002 urte bitartean jaietako neska-mutikoei esku hartu ahal izango dute horietan.

Ume bakarragatik 38 euro ordaindu beharko dira. Bi anai-arreba eramanez gero, 65 euro; eta hiru seme-alabak izan emanez gero, 76 euro.


Interesatuak maiatzaren 25a aurretik jo beharko dute Tortolis ludotekara edo kultura etxera.

> PENTSIODUNAK

Pentsiodunek egonaldiak egiteko eskaintza

Aldundiak eta Udalak abian jarri dute pentsiodunek egonaldiak egiteko eskaintza. Eskaera horiek maiatzaren 31 baino lehen bidali beharko dira. Horretarako, interesatuak Udaleko Ongizate Saileara jo dezakete. Sail horretan emango diete behar duten informazio guztia.

Maiatzaren 31 ondoren jasotako eskaerak, berriz, bigarren txandarako utziko dituzte, bete barik gelditu diren plaza kontuan hartuta.



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



Etzirako (domeka),
07:00etarako egin dute
hitzordua ibiltariak
herriko plazan

Ibilaldiak 33 bat
kilometro ditu, eta
atsedena San Adrian
ermitan egitea
aurreikusi dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Domekan zazpi elizateetako ibilaldia egingo dute. Ez da beharrezkoa izena ematea. Horren ordez, nahikoa da domekan bertan plazan 07:00etan agertuta. Handik abiatuko dira ibilaldia

IBILALDIA > ZAZPI ELIZATEETAKO MARTXA

Etzi, domeka, hainbat lagunek ibilaldia egingo dute udalerriko elizateetan barrena

egitera eta udalerrir guztia zeharkatuko dute.

Aurtengoa ibilaldi hori egiten duten hirugarren aldia da.

LAGUN BATZUEN EKIMENA

Orain dela 3 urte, Eskoriatzako lagun talde batek ibilaldi hori antolatzea erabaki zuen, eta orduetik hona urtero egiten dute hitzordua. Horren helburua da "kirol apur bat egitea eta udalerriko elizateak eta inguruak ezagutzea", azaldu zigun antolatzaile Jose Manuel Crespok.

Lehenengo urtean 60 bat lagunek esku hartu zuten; iaz, berriz, 100 bat lagunek. Antolatzaileek uste dute aurreten jende gehiago joango dela.

EZ DA NORGEHIAGOKA BAT

Antolatzaileek azpimarratu dute ibilaldi horretan garrantzitsua esku hartzea dela. Ez dagoela irabazlerik ezta galtzailerik. Hor-taz, ibilaldia ez da norgehiagoka bat, eta ez dago lehiatu beharrik. Hori oso argi utzi gura dute eman-dako azalpenetan.

Ibilaldia luze samarra da (33 bat kilometro ditu), baina alda-pa gutxi dauzka, Apotzagatik Asensiora artekoa, hain zuzen ere. Horregatik, antolatzaileek ibilbide "luze, baina suabe" moduan definitu dute.

SAN ADRIANEN, ATSEDNA

Ibilbidea honako hau izango da: herriko plazatik Bolibarrera, handik Mendiolara, Gellaora, Apotzagara, San Adrian ermitara, Marinera, Zarimutzera, Mazmelara eta berriro herriko pla-

zara. San Adrian ermitan jatekoa eta edatekoa emango diete esku hartzen dutenei. Horrez gain, ibilaldiaren bukaeran, herriko plazan, ere jana eta edana banatuko dute.

ELKARTE BATZUEN LAGUNTZA

Ibilaldia antolatzen dutenek Mendizale Taldearen, erretiratu elkartearen eta herriko hainbat enpresa eta saltokien laguntza jaso dute. Orain arteko edizioetan gazteek, helduek eta zenbait erretiratut esku hartu dute.



GOIENKARIA

Alokairuko hamasei etxebizitza inauguratu dituzte Intxaurtxuetan

Eguaztenean inauguratu zituzten Jaurilaritzak Intxaurtxueta auzoan eraiki dituen alokairuko 16 etxebizitzak. Dagoeneko zozketa eginda zegoen, baina Jaurilaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazo eta beste ordezkari batzuk Eskoriatzara gerturatu ziren inaugurazio ekitaldira. Ekitaldi horretan, Madrazok berak

eta Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoak esku hartu zuten. Berbaldia egin ostean, agintariak eta kazetariak etxebizitzak bisitatu zituzten, eta etxebizitzak egokitu zaizkien eskoriatzarrekin kontratuak sinatu zituzten.

Juan Carlos Bengoak gogoratu zuen Santa Marinan 28 etxebizitza tasatu egingo dituztela.

JAIK

Esaldi lehiaketa deitu du Udalak

Irabazleak jaietan erabiliko ditu Udalak, pegatinetan eta horma-irudietan

I.B. > ESKORIATZA

Udaleko Euskara azpibatzordeak San Pedrotarako esaldi lehiaketa antolatu du. Ez dituzte onartuko neurrik kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak. 13 urtetik gorako eskoriatzarrek esku hartu ahal izango dute baldin eta hiru eta bost lagun bitarteko taldeak sortzen badituzte. Esaldi bat baino gehiago aurkez ditzakete.

HORMA-IRUDIA ETA PEGATINAK

Esaldiak ekainaren 4a aurretik eraman beharko dira udal-letxera edo kultura etxera. Esaldi onena plazako horma-irudi baten jarriko dute eta beste batzuk pegatinetan.

Sariak afari bat eta 50 euro izango dira, hurrenez hurren.

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

EUSKARA > KALE ERABILERA NEURKETAREN EMAITZA

Gazteen %100ek egiten dute euskaraz kalean, Soziolinguistika Klusterraren arabera

Antzuolarren %67k euskaraz hitz egiten dute; euskararen ezagutza, berriz, %76,8 da, 2001eko erroldaren arabera

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabilera neurtu zuen iazko azaroan Antzuolan; eta orain emaitzak ezagutarazi dituzte.

2001eko erroldaren arabera, antzuolarren euskara ezagutza %76,8 da; eta neurketa egin zuteanean %67k erabili zuten. Bestalde, 2001eko neurketan erabilera %69,4 izan zen; horrenbestez, jaitziera oso txikia izan da.

GAZTEEN %100EK

Adin tarteei erreparatuta, gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak: %100ek, hain zuzen ere.



HAURRAK Behera egin du euskararen erabilerak umeen artean.

I.A.

Hala ere, kontuan hartu behar da neurketa egin zenean oso gazte gutxi zegoela. Baina zeuden guztiek egiten zuten euskaraz.

Horien atzetik daude haurrak (%81,7). Baina datu kezagarria da azken urteotan umeen artean euskararen erabilerak behera

egin duela, 2001ean %88,7 baitzen erabilera. Jaitziera horretan, eragina izan du kanpotik euskaraz ez dakiten haurrak herrira etortzeak. Bestalde, ikusi dute umeak elkarrizketako parte direnean, erabilera %74,2 dela eta ez direnean, berriz, %48,5. Haurrek euskaraz hitz egiten dute batez ere euren artean (%88,6).

Horrez gain, aipatzekoa da adinekoetan nabarmen egin duela behera erabilerak. Haiek dira, hain zuzen ere, euskara gutxien erabiltzen dutenak (%44,1).

Emaitzak, hala ere, poztekoak dira erabilerari dagokionez. Izan ere, kale neurketak jaso duen erabilera erreala (% 67) espero zitekeen erabilera (% 51) baino altuagoa da. Ibarrean, herri txikietan ere antzerako joera dago; Aretxabaletan eta Eskoriatzan, esaterako. Herri handietan, ordea, alderantzizkoa gertatzen da: Arrasaten eta Bergaran, esperotako erabilera baino baxuagoa da neurketek jasotzen dutena.

AZOKA

San Isidro eguna ospatzeko azoka bihar

I.A. > ANTZUOLA

San Isidro eguna astelehenean izan bazen ere, bihar, zapatua, egingo dute azoka plazan 09:00etatik 14:00etara.

Herriko baserriarrek ganadua ekarriko dute. Artisauek ere egongo dira; tartean baita antzuolarrak ere. Jatekoa erosteko aukera ere ez da faltako; gazta eta euskal pastela, esaterako.

Anelkarrekoek eta Alcer organo emaileen elkarteek ere ipiniko dituzte postuak.

MUSIKA

Giroa alaitzen txistulariek eta trikitilariak jardungo dute. Eta 11:00etan santuaren omenez meza izango da.

> ERRETIRATUAK

Oroimenaren gaineko hitzaldia maiatzaren 25ean

Hitzaldia antolatu du erretiratuen elkarteak maiatzaren 25erako. 18:00etan izango da, Orlan etxean. *Oroimena ezagutu eta hobetu* da berbaldiaren gaia eta hizlaria, berriz, Adindu elkarte ordezkaribat. Gai interesgarria izanik, erretiratuei entzutera joateko gonbita egin diete.

> TELEBISTA

Alkatea GOITBko 'Debarri' saioan eguaztenean

Jose Angel Zabalo alkatea izango da eguaztenean GOITBn. Saioa emango dute eguaztenean 21:45ean, eguenean 15:15ean, zapatuan 15:00etan eta domekan 19:15ean. Herriarrek Antzuolari buruzko galderak egin ahal dituzte mezuak bidalita www.goiena.net helbidera.

Ariznoako gimnastak, bikain

Ariznoako gimnastek emaitza bikainak lortu dituzte eskolarteko txapelketan. Arrasaten, infantil mailan, Ipintzako taldeak irabazi zuen, eta tartean bazen antzuolarririk. Bakarka, Lide eta Usoa Toledo lehenengo eta bigarren izan ziren. Gazteen mailan, Uxue Arregik bosgarren egin zuen. Astigarragan, alebin mailan, Herri Eskolako taldea lehenengo izan zen; eta bakarka, bigarren tokian sailkatu zen Jennifer Pineda. Infantil mailan, Ipintzako talde irabazlean Antzuolako neskek zeuden. Bakarka, berriz, Jone Larrañaga eta Onintza Legorburu lehenengo eta bigarren izan ziren.



I.A.

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



PLAZA Maalako parkean plazatxo bat dago eta hiru banku daude bertan.

I.A.

PARKEA > MAALA ZABALIK

Maalako parke berrian ziburuak, berdegunea eta plazatxo daude

Maalako ermitatxoa eta Ama Birjinaren irudia ere ipini dituzte parkean, berritu ostean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Asteon zabaldu dute jendearendako Maalako parkea. Oraindik zenbait lantxo daude egiteko; besteak beste, elizatxoa amaitzea, arkuan azalpen plaka ipintzea eta eskolako horma bat margotzea aztertzen ari dira. Inaugurazio eguna zehazteke dago, baina baliteke ekainean izatea.

Alkateak esan digunez, "maila altuko" parkea da Maalakoa. "Edozein herritarrendako da ego-kia: umeendako ziburuak, berdegunea, plaza txiki bat eta ermita ditu. Parkean 30 lore eta landare ipini ditugu eta izendatu ostean, katalogoa banatuko dugu herritarren artean", esan digu Patxi Basaurik.

SEGURTASUNA ZALANTZAN

Aralarkoak arduratuta daude, "parkearen beheko aldeko ibilbidearen eta errepidearen artean segurtasuna alde batera laga dutelako, estetikaren alde eginez". Horregatik eskatu dute baranda ipintzea, baita Espaloiko sarrerako plazan dagon baranda egokitzeari; bestalde, proposatu dute lehengo horma, bidearen altueraraino edo gorago altxatzea.

Alkateak, ordea, segurtasun arauak bete egiten direla dio.

JAIK > ASENTZIO EGUNA

Dantza, baltsa lehiaketa eta bazkaria domekan Asentzian

Gaur kontzertua izango da gaztetxean, Etxe, Seiurte eta The Solanos taldeekin

I.A. > ELGETA

Aurreratu egin dute aurten Asentzio eguneko jaiak eta domeka honetan, maiatzaren 21ean, egingo dituzte ospakizunak. Umeen dantza saioa izango da 11:30ean, baltsa lehiaketa 12:30ean eta herri bazkaria 14:30ean.

Gainera, Gure Borda elkarte-koek pintxoak eta salda banatuko dituzte eta gaztetxe-koek barra ipiniko dute putzuaren ondoan.

Domekako jaiak girotzeko, gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean. 22:30ean hasita, Etxe, Seiurte eta The Solanos bakarlarik eta taldeek jardungo dute.

MEZA

Bestalde, Asentzian meza izango da maiatzaren 28an, 12:30ean, santuaren omenez.

> ERAKUSTALDIA

Antzinako autoak izango dira ikusgai plazan domekan

Auto klasikoek eta kirol automobil historikoen bigarren kontzentrazioa izango da domekan, maiatzaren 21ean. 11:00etatik autoak izango dira plazan ikusgai. Ondoren, 13:30ean autoak herriko kaleetan barrena ibiliko dira gero Asentziora joateko. Arratsaldean, autoak plazan izango dira 17:00ak arte. Udaleko Turismo Departamentuak antolatuta du erakustaldia. Helburua da horrelako ekintzekin inguruko herrietatik jendea erakartzea, eta hone-la, Elgeta ezagutzera ematea.

> ERRETIRATUAK

Immersoren bidaietan izena emateko epea ekainaren 12ra arte

Aurten ere Immersok oporrak antolatu ditu hirugarren adinekoendako. Hainbat toki eta denbora tarte daude aukeran: Iberiar Penintsula eta Balear uharteak, 15 edo zortzi egun; Kanariar uharteak, zortzi egun; eta Portugal zortzi egun. Bestalde, sei eguneko kultur ibilbideak eta bost eguneko natura turismo txangoak ere eskaintzen dituzte. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, Udal Gizarte Zerbitzura jo behar da ekainaren 12a baino lehen.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

Egiptoren gaineko emanaldia izango da eguenean Espaloian

Eguenean, maiatzaren 25ean, Udalak antolatuta ikus-entzunezko emanaldia izango da Espaloian 20:00etan. Mila Gallastegi eta Asier Arantzabal eibartarrek Etiopian barrena oinez egindako bidaiak kontatuko dute irudien eta musikaren bidez. Herrialde lehor modura irudikatzen badugu ere bestelako Etiopia erakutsiko dute. Euren esanetan, "Etiopia leku aparta da mendi ibilaldietarako".

bere ustez



Igor Arizmendiarieta

Filologo inprobisatua parlamentuan

Duela hiru aste Nafarroako parlamentuan egoteko aukera izan nuen ikasle talde batekin.

Urtean behin Nafarroako parlamentua, ikasleen esku uzten dute, bertan aurretik landutako gai batzuk eztabaida ditzaten.

Euskarazko talde bakarra izan ginen eta noski gure diskurtsoa euskara hutsean egin genuen.

Ikasleak irakurritakoaren ondoren Rafael Gurrea (UPN) parlamentuko lehendakariak esandakoa gogoangarria: "...muy bien lo has leido con una muy buena pronunciación del euskara...".

Filologo euskaldun orojakile baten gisa.

Barrea atera zitzaigun bertan bildu ginen euskaldunoi.

Barregura, izan ere, parlamentuko lehendakariak guk dakigula ez daki euskaraz. Eta horrela baieztatu zidan bertan zegoen parlamentari abertzale batek.

Agian astebeteko euskara ikastaro trinko bat egingo zuen? Ezin izan dugu jakin.

Parlamentuko itzulpen-gintza ere lotsagarria. Soilik Euskara-Gaztelaniazko itzulpena zegoen. Alderantzizkoa ezta pentsatu ere. Horixe izan da Nafarroako parlamentuan goiz bat. Eta ikusten ez ditugunak nolakoak? Auskalo!

Antzuola hizpide

DEBARRI

Eguaztenean, maiatzaren 24an, 21:45ean Jose Angel Zabalo alkatearekin berbetan. Zure galderak egiteko: www.goiena.net/eztabaidak

DEBARRI BABESLEA: ARKAUZ ALTZARIAK



Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!





BIDEAK Alkateak esan zuen Udalaren asmoa dela polito-polito auzoetako bideak konpontzea; argazkian, *Debarri* saioan. u.m.

UDALA > MERTXE MONDRAGON GOITB-N

Maiatzaren 29an hasiko dira haur eskola egiten

Udaletxea berri zuten enpresa berak egingo ditu haur eskolako lanak; bestalde, alkateak AHTrekiko "kezkatuta" daudela esan zuen GOITBn

UBANE MADERA > ARAMAIO

Herritarren galderei erantzuteaz gainera, Abiadura Handiko Trena izan zuen berba Merxe Mondragonek *Debarri* saioan. Besteak beste, esan zuen dagoeneko tren horren aldeko edo kontrako eztabaida bukatuta dagoela, trena badatorrelako; beraz, orain egin behar dutena zera dela: "Indar guztiak ipini behar ditugu trena ahalik eta modu egokienean pasatzeko". Xehetasun batzuk ere eman zituen: Aramaion trenak bost kilometro izango dituela, bi kilometro tunelean joango direla, beste 1,3 lurrazalean eta beste 1,4 kilometro zubian. Jakinarazi zuen oraingo aurreproiektua dutela udaletxean, eta, haren ara-

bera, besteak beste, Untzilla aldean mugimendu handia izango dela trena egiteko. Herriko ur-iturriengan izango duen eraginak ere kezkatzen du alkatea, eta baita ere zenbait zabortege egin behar izateak.

HAUR ESKOLA, ABIAN

Herritarren galderei erantzunez, berriz, jakinarazi zuen kostata, baina, azkenean lortu dutela haur eskolaren obrak esleitzea. Udaletxea berri zuten Mauricio Arregi enpresak egingo ditu eta hark esandakoaren arabera, hil honen bukaeran hasiko dituzte lanak. "Nik uste dut Gabon osterako bukatuko dituztela lanak eta irail edo urri aldera hasiko direla matrikulak egiten".

EGUNEKO ZENTROA ETA BESTE

Herritarrek galdetu zioten, baita ere, noizko izango duten pertsona nagusiendako eguneko zentroa Aramaion. Alkateak erantzun zuen eskaerarik ez dutela oraingo "familiak bakarrik datoz larri daudenean". Hala ere, gogorarazi zuen Aita Menniren eguneko zentrorako joateko hitzarmena dutela bi lagunendako eta orain, gainera, aukera dutela bost lagunendako zabaltzea.

Eta, bestelakoan artean, aipatu zuen pilotalekua behar bezala egokitzeko obrak hasi nahi dituztela aurtengo udan; asmoa da kirol-gune modukoa sortzea, herritarren beharrak asetzeko.

Bestalde, Albinako urtegia ere izan zuten berba; izan ere, Aramaiotik proiektua aurkeztuta diote Diputazioari, han duten aparkaleku arazoa eta oinezkoen bidea konpon ditzaten eskatzen. Aurrerapausorik ez duela ikusten esan zuen alkateak.

OPORRAK > HELDUENDAKO

Ekainaren 15ean bukatuko da eskaerak egiteko epea

Penintsulara, Balearretara edo Kanariar Uharteetara joateko aukera izango dute

U.M. > ARAMAIO

Honako herritarrei dago zuzenduta helduendako oporren programa: 65 urte edo gehiago dituztenei; pentsioen sistema publikoko erretiro pentsiodunei edo pentsioen sistema publikoan daudenei, betiere 60 urte bete badituzte.

LAGUNTZAILEAK

Edozelan ere, badira salbuespenak zenbait kasutan. Izan ere, opor programa horretan parte hartu nahi duen pertsonaren laguntzailea haren ezkontidea bada, ez ditu zertan bete adinaren, pentsioaren eta herritar-tasunaren baldintzak.

Era berean, semea edo alaba elbarria lagun moduan joa-

tea onartzen dute. Kasu horretan, pertsona horren elbarritasun-graduak izan behar du %45 edo handiagoa.

NORA JOANGO DIREN

Udalak jakinarazi digu hainbat lekuren artean aukeratu ahal izango dutela helduek oporretarako. Izan ere, eskainiko ditte Penintsulara, Balearretara edo Kanariar Uharteetara joatea. Baita ere, kultur zirkuituak edo natura turismoa egitea.

Lehen esandako moduan, ekainaren 15era arte dute eskaerak aurkezteko. Udaletxera jo behar dute horretarako, Gizarte Zerbitzueta. Informazio gehiago behar duenak han bertan galde dezake.

> BERTSOLARITZA

Manex Agirre sailkatu egin da Arabako Bertso Lehiaketako finalerako; hilaren 27an da

Joan den zapatuan jokatu zuten, Dulantzín, Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia. Lierni Altuna aramaioarraren aginduetara jardun zuten Alberto Martínez *Beitto*, Andere Arriolabengoa, Ruben Sanchez, Iñaki Viñaspre, Juan Mari Juaristi eta Oihane Perea bertsolariak. Irabazlea Juaristi izan zen, 284 puntu eskuratuta. Haren atzetik sailkatu ziren, hurrenez hurren, Perea, Viñaspre, Sanchez, *Beitto* eta Andere Arriolabengoa. Aramaioarrak urduri hasi zuen saioa, eta bakarka lan polita egin arren, sailkapenean atzera geratu zen. Hala, bi finalerdietako puntuak esku artean, Manex Agirrek lortu du finalerako txartela. Finala Gasteizen jokatu dute, maiatzaren 27an.

> UDALEKO OHARRAK

Udaleku irekietan izena emateko epea luzatu egin du Udalak, ume gutxi eman dutelako izena

Udalak jakinarazi digu aurreko urteetan baino askoz ere ume gutxiagok eman dutela izena aurtengo udaleku irekietarako. Hori horrela, erabaki dute epea luzatzea datorren maiatzaren 26ra arte. Izena emateko jo behar da kultura etxera edo udaletxera. Udaleku irekiak uztailearen 5ean hasi eta 18an bukatuko dira.

Bestalde, Udalak jakinarazi digu, baita ere, autobusa antolatuta duela Euskal Eskola Publikoaren jaira joateko. Jai hori egin behar dute ekainaren 4an Oñatin. Autobusa, berriz, 10:00etan aterako da Aramaiotik eta bueltan, Oñatitik aterako da 19:00etan. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 29a (Udalean edo liburutegian).

1 bat X ixe 2 bi

Aramaixoko berben **berbakiniel**
2. ZENBAKIXE

Asmatzaillien
artien
zozketatuko
ditugu:

Aramaixoko eztxe,
sagardaue eta
gaztaie! Zorte on!



Tenplau egon	1 Zain egon X Lasai egon 2 Epeletan egon
Hau dok larriñe!	1 Ingurue hankaz gora X Larri nauenien 2 Eurixe danien
Arrue	1 Tontorra X Lautadie 2 Trokie, zulue
Baliente?	1 Atrebiduten zara? X Sasoiñ? 2 Balentiñ etorri da?

Aukeratu erantzuk, moztu txartela eta ekarri Aramaio Liburutegira, EKAINAREN 2RAKO.

Izen-deiturak: Telefonue:

Iñun dienak esan	1 Frantses berba egin X Altu berba egin 2 Kristonak esan
Aldekoko ola	1 Aldekoko egurtegixe X Aldekoko olatue 2 Danboliñe
Txistue	1 Danboliñe X Txistie 2 Pitiliñe
Hi haz erremintie, hi!	1 Hi arotza haz X Hi haz artistie, hi 2 Atxurre arrapau dok

2. berbakinielako irabazlie: Ander Aspe Zorionak!

Erantzun zuzenak:

Karandute egon: X Burutik jota

Mistik be ez!: X Ixilik, gero!

Maskeluoil: 1 Artaburuoi

Amillena: 1 Haize hotza

Urrusie: 2 Emie

Gaztaie: 2 Burue

Oreixe: 1 Ekaitza

Ez dauket ningunik: 2 Ez dauket erreparoi



TXIRRINDULARITZA > EUSKAL BIZIKLETA GERTATZEN

Batzordea azken kontuak lotzen dabil Euskal Bizikleta behar bezala hartzeko

Ekainaren 2an Gatzagainen bukatuko da etapa, eta hurrengo egunean herrian hasi

Andramari jaietan egiten zuten lasterketa aurreratu egin dute uztailaren 2ra

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Ekainaren 2an helduko da Euskal Bizikleta Gatzagainera, eta hurrengo egunean herrian emango diote hasiera laugarren etapari. Hori guztia gertatzen dabil Txirrindularitza batzordea, eta batzarra izan zuen martitzenean.

EUSKAL BIZIKLETA

"Gertu daukagu guztia", dio Txema Fernandez batzordeko idazkariak. "Txikikeria batzuk gertatzen zaizkigu lotzeko, noski; bidegurutzeetan egoteko herritarrak bilatu, esaterako. Benetan gai garrantzitsua izango da hori; izan ere, errepidea itxi egingo dute eta inguruko auzotarrek -Goierri, Marin, Zarimutz- eragozpen gutxien izan dezaten gura dugu". Joan zen zapatuan Venta Fria ostatua egokitu zuten epaile eta kazetariarentzako. Eta lasterketa baino bi egun lehenago Gatzagain inguruko hainbat toki, trenbidea



BATZORDEA Alberto Altube presidentea ezin izan zen joan martitzeneko batzarrerara, eta gainerakoak elkartu ziren.

M.A.

tartean, asfaltatu egingo dituzte automobilak sartzeko.

Eragin handia izango du lasterketak herrian, eta hala onartu du Txemak: "Izugarrizkoa izango da. Nahiz eta antolatzaileek ekarri txirrindulariek behar duten gehiena, beti daude lotu beharreko kontuak, eta herritarrok jardungo dugu horretan".

SAN MARTIN EGUNA

Txirrindularitzari dagokionez, aldaketa garrantzitsu baten berri eman digu Txemak. Orain artean iraileko Andramari jaietan egin izan den lasterketa aurten San Martin egunean egingo dute, hau da, uztailaren 2an. "Lan handia hartzen dugu antolatzen eta irailean txirrindulari gutxi etor-

tzen dira, garai txarra delako. Horregatik, aurten data aldatuta probatzea erabaki dugu".

Txirrindularitzari oso lotua dago Gatzaga, batez ere Dorleta-ko Ama zaindaria bertan dutelako. "Epe ertainera txirrindularitzaren gaineko museoa egin gura dugu, eta Dorletan bertan jarri gura genuke", dio Txemak.

> INGURUMENA

Gaur, 18:00etan, landatuko dituzte loreak eta zuhaixkak

Gaur elkartuko dira Gureleko kideak lore eta zuhaixkak landatzeko. Lorontzi berriak jarriko dituzte, gainera, San Migel plazan, bertakoak beste leku batzuetara aldatzeko. 18:00ak inguruan elkartuko dira San Migel plazan gurasoak, umeak eta ludotekako kideak, eta lanean hasiko dira.

> INTERNET

Egunkaria Internet bidez irakurtzeko ikastaroa izango da

Internet bidez egunkaria zela irakur daitekeen azalduko du Aitor Madrid irakasleak KZgunean. Astelehenean, maiatzak 22, izango da ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Euskaraz emango ditu azalpenak, eta izena eman gura duenak KZgunean egin beharko du.

> JAIK

Asteon egin dute lehen batzarra jaiak gertatzen hasteko

Urruti daude oraindik iraileko Andramari jaiak, baina poliki-poliki gertatzen hasi dira. Hala, asteon egin dute lehen batzarra Jon Sasiain Kultura zinegotziak eta herriko hainbat kidek. Irailerako ekitaldiak lotzen hasiko dira, aurrekontuaren arabera.

"HELTZEKO PREST!"



loramendi

euskera elkarte

XABIER URTZELAI > BERGARA

Maila txikietako futbolaren egitura dela-eta, Gipuzkoako futbolearen eztabaida handia dago. Arazoaren muinean hainbat protagonista daude, euren ikuspuntua defendatu guran sokari tira egiten. Bistan da arazoa konpontzeko guztiek eman beharko dituztela aurrerapausoak, eta eskatzen jarraitu beharrean zer eman dezaket aztertu. Bestela, gaitza izango da konponbidea aurkitzea. GOIENKARIAk eztabaidaren nondik norakoa azaltzeko protagonista bakoitzarengana jo du.

REALAREN PROPOSAMENA

Arazoa korapilatsua da, eta beste kiroletan ez moduan, futbolearen gertatzen da bakarrik. Hasteko, azkeneko urteotan jaiotze tasak beherakada handia izan du, eta horrek eragin zuzena du futbolearen jokatzeko duten ume kopuruan. Realak arduratuta dago horrekin, eta baita maila txikietan Athleticen daukan politikarekin ere.

Orain dela 17 urte onartu zuten dekretua medio, Gipuzkoan gaztetxoek ezin dute alebin mailako bigarren urtera arte errendimenduko kirola egin: jolastu egin dezakete, baina ez lehiatu. Maila txikietan umeen jarduerak neurtzeko onartu zuten dekretu hori, eta denak ez daude horrekin ados. Bizkaian, orain arte, ez dute dekretu hori bete eta Athleticen ondo aprobeztatu du hori, Gipuzkoako jokalariek asko eraman dituzte eta Lezamara.

Horrekin batera, errendimenduko mailan, Realak kalitatearen alde egin gura du. Horretarako zera proposatu du talde txuri-urdinak: batetik, Gipuzkoako hainbat zonatan futbol eskolak sortzea; hala, maila ona ematen duten gaztetxoek ez dute Zubietara joan behar izango, eta Realak bitarteko guztiak jarriko ditu futbol eskola horietan. Bestetik, Realak bi ibilbide bereiztu gura ditu alebin eta infantil mailetan: parte-hartzea bultzatuko du lehenak, eta errendimenduko izango da bigarrena. Hala, errendimenduzko ibilbidea itxia izango da, kategoria horretan ez da inguririk edo jaisierarik egongo eta maila onena duten taldeek hartuko dute bertan esku.

Parte-hartzeko ibilbideak, berriz, beste balore batzuk izango ditu: lehiak ez du horrenbeste garrantzia izango, gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketak bultzatuko dituzte, eta kirol heziketan egingo dute ahalegina. Hala, Realaren proposamenaren gaineko iritzia eskatu diegu Eskola Kiroleko arduradunei, Udaleko ordezkariari, ibarreko futbol taldeei eta Diputazioari.

Jokin Antxia

UDA TALDEKO PRESIDENTEA

"UDAk onartu egin du proposamena, baina osatu egin behar da"

Aretxabaletako taldea ados dago Realaren proposamenarekin,



HARROBIA Estatistikek diote Gipuzkoan hiru mila gaztetxoaren artean bakarra iritsiko dela Realeko lehen taldera.

GOIENKARIA

OINARRIZKO FUTBOLA > REALAREN PROPOSAMENAREN GAINEAN EZTABAIDAN

Eztabaida oinarrizko futbol ereduan

nahiz eta gauza asko dauden zehazteko. Azken urteotan ikusi dugu kontrolatu gabeko taldeak sortu direla interes jakin batzuekin, eta hori ez da ona. Realak futbol eskolak sortu gura ditu, zona-banatan, eta guk uste dugu baldintza guztiak betetzen ditugula. Horrekin batera, inguruko taldeekin moldatuko ginateke, nola edo hala, taldeak aurrera ateratzeko. Bistan da Realari parte-hartzearen modeloa ez zaiola interesatzen, eta bai errendimenduzkoa. Gaur egun, baina, Realeko kategoria txikietako taldeek 15-0 irabazten dituzte partiduetan, eta Realak badaki horrelako partiduetan gazteek ez dutela ezer ikasten. Realak, baina, Donostia inguruko taldeekin du arazo handiena. Antiguoko moduko taldeek diru mardoa eskuratzen dute euren harrobitik ateratako jokalariek fitxatzen dituztenean, eta hor dago gakoetako bat.

Aretxabaletak urteak daromatza Arizmendirekin lanean, eta horri esker, talde mardoa

GALDERA Realak proposatu duen oinarrizko futbol ereduen gainean galdetu diegu ibarreko eragileei

BANATUTA 31 futbol taldek Realaren alde egin dute, eta baita Diputazioak eta Eskola Kiroleko arduradunek ere; Federazioa eta beste hainbat klub, berriz, ez daude ados

ditugu kategoria txikietan. Ondoko herrietako jokalariek ere hona etorri izan dira jokatzera, eta instalazio egokiak izateak ere gure alde egin du.

Javier Azpiazu

ALOÑAKO PRESIDENTEA

"Realak inposatu egin du modelo hori, denon artean egin beharrean"

Aloñak ez du Realaren proposamenaren alde egin, hasteko, modeloa ez dutelako argi azaldu. Denok batera egindako bidea izan beharrean inposatutako zerbait izan da, eta tartean konbentzioak daude jokoan. Hasteko, errendimenduzko txapelketa itxi horietan herri batzuetako taldeek bakarrik hartu ahal izango dute parte, eta guk uste dugu talde guztiek izan beharko luketela eskubidea. Bestetik, uste dugu parte-hartzearen ibilbidean egon-

go diren jokalariek motibazioa galduko dutela, ez dutelako inongo bizigarririk izango. Klub handien mesedetan egindako modeloa da.

Iñaki San Jose

BERGARA KE PRESIDENTEA

"Ez gaude gertu lehiaketa itxien kontu hori onartzera"

Guk argi eta garbi daukagu: ez gaude gertu lehiaketa itxien kontu hori onartzera. Zonaka talde batzuk aukeratuko dituzte, eta futbol eskola bilakatu. Eta nork erabakiko du zeintzuk diren talde horiek? Klub horrek inguruko jokalariek onenak hartzen baditu, gainontzeko klubekin zer gertatuko da? Eta zelan motibatuko ditugu parte-hartzeko modeloan geratuko diren jokalariek, ez badute maila galdu edo irabaziko? Zelan esan entrenatzera etortzeko? Gainera, jokalariek guztiek ez dute adin berean aurrera egiten, eta zer gertatuko da hasieran errendimenduko ibilbidean sartu ez direnekin? Realak Gipuzkoako beste futbol talde bat da, eta ez da inor gainontzekoei ezer inposatzeko. Realak egindako proposamena oso ambigua dela uste dugu.

Jose Luis Azkarate

MONDRA TALDEKO PRESIDENTEA

"Errendimenduan daudenendako ona izango da, baina besteendako txarra"

Mondrak ez du Realaren proposamenaren alde sinatu, baina ez gaude ez alde eta ez kontra. Proposamen hori osatzea falta dela uste dugu, gauza asko uzten dituzte eta azaldu barik. Gipuzkoako jokalariek onenak gura dituzte, eta hori normala da, baina ez dute argi azaldu zelan gauzatu behar duten euren proposamena, zelan egingo duten futbol eskolen kontua. Guk uste dugu herri bakoitzeko taldean herri horretako jokalariek jokatu behar dutela, eta alde horretatik, orain gabilta garai batean UDARA joan ziren jokalariek berritri ere Mondra ekartzen. Realaren proposamenaren gauza bat dago argi: errendimenduzko ibilbidean sartzen diren taldeendako gauza ona izango dela, baina hor sartzen ez dituztenendako txarra.

Andoni Azua Galdos

ESKOLA KIROLA

"Oinarrizko kirol hastapen egiturak errespetatu egiten ditu"

Lehenengo irakurketan, Realaren proposamena positiboa iruditu zaigu. Izan ere, oinarrizko kirol hastapen egiturak errespetatu



Javier Azpiazu.



Iñaki San Jose.



Jokin Antxia.



Andoni Azua.



Asier Muxika.

eta berauen osagarri den futbol eskolak planteatzen ditu. Gainera, bailaran dugun ikuspegiarekin egin dute: hau da, futbol elkar- teak egokitu behar dira haurren beharretara, eta ez alderantziz. Egia da oraindik zirriborro orokorra dugula mahai gainean, ez gehiago. Beraz, proposamena bertakotu egin behar dela uste dugu. Leintz bailarako errealitatearen ezaugarriak, beharrak eta etorkizunerako planak kontuan hartu beharko dira. Lan handia dugu egiteko oraindik eragile guztiok. Arazoaren konponbidearen gainean esan, ezer adostu aurretik eragile guztien iritzia kontuan hartu behar direla, hor dago konponbiderako gakoa.



Jose Luis Azkarate.

garria; besteak beste, gaur egun klubek aukeratzen ez dituzten gaztetxoak kanpoan geratzen direlako.

Dena dela, edozein aldaketa proposatzen denean, eragile guztien iritzia ezagutu eta kontuan hartzearekin batera, arazoak konpontzeko edo adostasun batera iristeko, eragile guztiek proposamenaren onurak eta abantailak ikusi behar dituzte. Ezinbestekoa da abantaila hauek ondo azaltzea eta baita ulertzea ere. Bestalde, eragile bakoitzak izan ditzakeen interes partikularretatik haratago, interes orokorren alde egin behar dugu, horiek hartu behar dira kontutan.



Iñaki Ugarteburu.

gu guztiek ezin dutela hor egon, ez luketelako benetako errendimenduko lana egingo. Azken baten, Realak eraginkortasuna gura du, eta hori izan daiteke bidea. Dena dela, inon ez du jartzen ibilbide horretan beti talde berdinek jokatu beharko dutenik.

Bestalde, klubetako ordezkariek ez dute parte-hartzearen ibilbidearen beharra ikusten. Klubetako batzordearen iritziz gure eredu batzertzailea da. Nire ustez, baztertzailea da gaur egun zenbait klubek egiten duten politika. Zer gertatzen da aukeratuen taldean sartzen ez diren mutikoekin? Klean geratzen dira, beste kirol batzuetara jotzen dute edo, okerrago, kirola egiteari uzten diote. Eta neurri berean, emakumezkoen txapelketak ere antolatu behar ditugu. Klubek, baina, ez dute gai horrekin horrenbeste zarata ateratzen.

Realak helburu garbiak ditu, bereak, eta helburu horiek ere Diputazioarenak izan daitezke, baina guretako ez dira lehen mailakoak. Diputazioaren lehenengo helburua da Gipuzkoan ahalik eta neska-mutiko gehienek kirola egiteko baliabideak jartzea.

Asier Muxika

KIROL TEKNIKARIEN ORDEZKARIA

"Haurren kirol ibilbidea arrazionalizatzeko modu ona da"

Udaleko kirol teknikariek uste dugu, egungo egoerak baino zen-

tzu handiagoa duela Realak proposatzen duen modeloak. Hala, haurren kirol ibilbidea arrazionalizatzeko modu ona da. Gaur egun, guztiak daude errendimenduko multzoan, baina ez da benetako errendimendu lana egiten. Gaitasun onena dutenek bide horri heltzea logikoa iruditzen zaigu, gainera, baliabide tekniko handiagoak izango dituzte emaitza onak lortzeko. Guri, baina, parte-hartzearen ibilbidea iruditzen zaigu benetan interes-

Iñaki Ugarteburu

DIPUTAZIOKO KIROL ZUZENDARIA

"Diputazioaren helburu nagusia neska-mutikoek kirola egitea da"

Hasteko, Realaren proposamena legearen barruan dago, Eskola Kirolaren dekretua errespetat-

tzen duelako. Ez da guk egingo genukeen proposamena, baina onargarria da.

Bistan dago bi ibilbideak bereiztu egin behar direla, errendimenduzkoa eta parte-hartzearena. Errendimenduzko ibilbidearen gainean Realak ez du esaten txapelketa itxia izango denik, hau da, taldeek izango dute bertara sartzeko aukera. Eskualdeka taldeak aukeratuko dituzte, eta bertan jokatu dute gaitasun gehien duten jokalariek. Badaki-

Egin kirola eta utzi tabakoa!

Askorendako, tabakoa erretzeak gaitasun fisikoan duen eraginaz konturatzea da hura uzteko arrazoia

Tabakoak eragin negatiboak ditu gaitasun fisikoan, gutxitu egiten du, eta horretaz konturatu ostean lortu dute askok erretzeko ohitura hori baztertzea. Agian horregatik, kirola egiten duten gehienek ez dute zigarrorik erretzen, kirola egiten dutelako eta osasunaz arduratzen direlako.

TABAKOA UZTEN LAGUNTZEN DU

Kirolak tabakoaren prebentziarako arrazoi zuzenekoak eta zeharkakoak ditu, hala nola: kirola egiteak aktibazio fisiologikoa jaisten du eta lasaitu egiten du, eta urduritasuna baretu; gazteen eta nagusien aisialdia betetzen du, eta haien buruhausteak baztertu eta beste zenbait jardueretatik urrundu; ariketa fisikoa egiten den bitartean ezin daiteke tabakorik erre; ariketa fisikoa egiteak gorputza eta osasuna zaintzeko jarrera eta motibazioa garatzen du.



TABAKOA Autoestimua hobetzea da mendekotasuna gaintzeko txertoa.

MENDEKOTASUNA GAINDITZEKO

Kirolak aurre egin diezaiokie droga-mendekotasunari, baina baldintza batzuk bete behar dira

horretarako: giro atsegina egon behar du, hobekuntza nabaritu behar da eta ariketa ugari eta askotarikoak egitea komeni da,

besteak beste. Beraz, kirol jarduera ez da lehiakortasunean antolatu behar, jolas eta modu hezitzailean baizik.

Autoestimua hobetzea da mendekotasunaren aurkako txertorik egokiena.

KIROLA EGITEKO HELBURUAK

Kirola egiten hasteko arrazoi bat baino gehiago izaten du jendeak. Motibazio ugari nabarmentzen dira kirola egiten hasi direnen lagunengan. Adibidez: ereduak imitatzeko, taldekide izateko, bakardade egoera apurtzeko, kideen artean nabarmentzeko, gaitasunak azaltzeko aukerak aprobetxatu nahi dituztelako, ilusioak betetzeko, arrakasta lortzeko, ondo pasatzeko, osasuna hobetzeko, sasoian egoteko, gorputzaren itxura aldatzeko, argaltzeko... Erretzen uzteari laguntzeko pisuzko beste arrazoi bat da.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua



BATERA Aloñak denboraldian zehar egin duen talde lanean egon da arrakastaren gakoetako bat.

GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA

Aloña Mendik Azkoagainen du Hirugarren Mailarako giltza

Aitor Oruetaren taldea mailaz igoko da domekan Idiazabal mendean hartzen badu (16:30)

XABIER URTZELAI > OÑATI

Ez, askok eta askok horrela uste bazuten ere, Aloña Mendik ez du behera egin. Txantxikuarrek gogor eutsi diote lehenengo postuari, eta oraingo asteburuan jaso dezakete urte osoko lanaren saria. Jaitsiera postuetan ez sartzeko lehian dabilen Idiazabal izango da domekan Azkoagainen; kontrarioak ez du erraztasunik emango. Oñatiko entrenatzaile Aitor Oruetak Idiazabal 0-0ekoa defendatze-
ra etorriko den beldur da, liderraren etxean puntua erdieste emaitza ona delako: "Atzean sartzen

badira ere, badakit bizpahiru gol aukera izango ditugula, eta horiek aprobetxatu beharko ditugu".

DOMEKAN ERE UMILTASUNAREKIN Hirugarren Maila horren gertu ikusita ere, Oruetak ez du entrenamenduetan taldea urduri ikusi. Azken asteotan lan saio bereziak egin dituzte: Aste Santu ostetik ez dute arlo fisikoa horrenbeste landu, eta areto futboleant jokatzeko edo jolasak egiten ibili dira, tentsioa ginetik kentzeko helburuarekin. Aitorrek, baina, badu jokalariei zer eskatu:

"Domekan ere orain arte izan dugun umiltasunarekin jokatzeko eskatuko diet, ez pentsatzeko dena eginda dagoela. Lanerako asmoz zelairatzen bagara asko izango dugu irabazita".

Bigarren postuan dagoen Real Unionek Aloñak baino lau puntu gutxiago ditu, eta denboraldiko azken partidua euren kontra jokatuko dute. Hala, Aloñak domekan irabazten badu jardunaldi baten faltan Hirugarren Mailako taldea izango da. Ez badu irabazten, baina Real Unionen emaitza bera egiten badu, berdindu edo galdu, Aloñarendako izango da lehenengo postua. Sariaren zain gehiago ez egoteko, Azkoagainek, taldeak eta zaleek dute domekan giltza.

> MENDI IRTEERA

Besaidek ekainaren 3an egingo du beteranoen bosgarren irteera

Besaidek gertu dauka Arrasaten mendizale gehien batzen dituen mendi irteera. Joan den urtean 330 lagun inguru elkartu ziren beteranoen martxan, eta aurten ez dira gutxiago izango. Iparraldera egingo dute bidaia, Ainhoa, Mondarrain eta Itsasu banatzen dituzten kilometroak egingo dituzte oinez, eta Itsasun bertan bazkalduko dute gero. Maiatzaren 24a izango da irteera horretan izena emateko azken eguna, eta animatzen direnek Euskadiko Kutxako 3035 0202 76 2021021758 kontu korrante zenbakian sartu beharko dute dirua. 40 euro bazkide federatuek, 42 euro ez federatuek eta 44 ez bazkide eta ez federatuek.

> 2. SPINNING MARATOIA

Zabalik dago spinning maratoian parte hartzeko izenemate epea

Ekainaren 10ean egingo dute Oñatiko Zubikoa kiroldegian Debagoieneko 2. Spinning Maratoia, eta joan den astelehenean dago zabalik izenemate epea.

Maratoian lau spinning saio egingo dituzte jarraian, baina norberak erabakiko du zenbat saiotan esku hartu. Saio bakarra egiten duenak 5 euro ordainduko ditu, 9 euro bi saio egiten dituenak, 13 euro hiru saio aukatzen dituenak eta 17 euro maratoi osoa egin gura duenak. Ordainketa Kutxan egin beharko da 2101 0055 65 0010596765 kontu korrante zenbakian. Debagoieneko kirol etxeetan izango duzue informazio gehiago.

> ARETO FUTBOLA

Eskoriatza goiko txapelketetako gorabeheren zain dago

Nazional Mailan dabilen Eskoriatzak Elgoibarren amaituko du bihar denboraldia, baina ez du izango ezer jokoan.

Intxaurtxuetako taldeak 14. postuan amaituko du denboraldia. Dagoeneko, 15. eta 16. sailkatu diren Euskal Sofa Interrek eta San Pedro Kencik maila galdu dute, eta euren aurretik geratu den Eskoriatzak ez daki mailari eutsiko dion ala Euskal Ligara jaitsiko diren. Goiko kategoriatan izango diren gorabeherak erabakiko dute hori. Maila galdua ere, Eskoriatzak gauza bat du on: Euskal Ligan ibiltzeko maila onegia dute, berehala egingo lukete gora.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila
Mondra - Hondarribia
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Aretxabaleta - Zarautz
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi - Idiazabal
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Lehen erregionala
Bergara - Euskalduna
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Bigarren erregionala, igogera fasea
La Salle - Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Donostia.
Antzuola - Ordizia
Zapatua. 12:00. Estala.

Ohorezko mailako gazteak
Sporting Her. - Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Herrera.
Martutene - Bergara
Zapatua. 15:30. Martutene.
Mondra - Urola
Domeka. 15:30. Atxabalpe.

Lehen mailako gazteak
Lasarte - Antzuola
Zapatua. 17:00. Michelin.
Bergara - Intxurre
Domeka. 17:00. Agorrosin.

Arizmendi Aretx. - Sporting
Zapatua. 16:30. Aretxabalet.

Bigarren mailako gazteak
Beti Ona - Arrasate
Zapatua. 15:30. Beraun

Kadeteen ohorezko maila
Bergara - Lagun Onak
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aloña Mendi - Ordizia
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Kadeteen lehen maila
Martutene - Arizmendi Are.
Zapatua. 12:00. Fanderia.

Aitzgorri - Arrasate
Zapatua. 11:00. Alustiza.

Kadeteen bigarren maila, igogera fasea
Ilintxa - Mariño
Zapatua. 11:30. Tolosa.

Ohorezko mailako infantilak
Arizmendi Aretx. - Ordizia
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Kostkas - Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Matigoxot.

Emakumezkoen Liga, igogera fasea
Arizmendi Aretx. - Bergara
Zapatua. 15:30. Eskoriatza.
Mondragon - Beti Ona
Domeka. 17:30. Atxabalpe.

ARETO FUTBOLA

Nazional B maila
San Pedro Kenci - Eskoriatza
Zapatua. 18:30. Elgoibar.

Gipuzkoako liga
Tra. Lakuntza - Aloña Mendi
Zapatua. 18:30. Billabona.

SASKIBALOIA

Gipuzkoako ligako junior maila (gizonezkoak)
Lasao Aitz. - Mugarri Alkesa
Zapatua. 11:30. Azpeitia.

Gipuzkoako ligako junior maila (emakumezkoak)
Aloña Mendi - Litaphar
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

BKL - Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Beasain.

Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)
Iraurgi - Mugarri Alkesa
Zapatua. 09:30. Azpeitia.

Goierri B - Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Urretxu..

Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)
Aldapeta - Bergara
Domeka. 12:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketara, igogera fasea
Ford Mugarri - Donibane
Domeka. 12:00. Musakola.

Lehenengo eta bigarren territorial maila, Kopa
Bergara - Ormaiztegi
Zapatua. 17:00. Labegarai.

Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa
Bergara - Ereintza
Zapatua. 18:30. Labegara.

Leizaran - Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Andoain.

Kadete mailako Kopa Txapelketa
Aloña Mendi - Egia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gipuzkoako gazte maila (emakumezkoak)
Zarautz - Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Zarautz.

Aldaketa H. - Bergara
Domeka. 12:00. Zarautz.

Gipuzkoako kadete maila (emakumezkoak), Kopa
Aldaketa H. - Verkol Aloña
Zapatua. 16:00. Zarautz.

MENDIKO BIZIKLETA

Euskadiko Opena
Domeka. 09:30. Kadete,
junior eta emakumezkoak.
Domeka. 11:30. nagusiak.
Arrasate (Ikerlan gainean).



IGOERA Urteak daramatza Arrasateko mailaz igo guran.

GOIENKARIA

ESKUBALOIA > IGOERA FASEA

Ford Mugarrik domekan lor dezake mailaz igotzea

Geratzen diren bi partiduetan nahikoa dute puntu bakarra eskuratuta

X.U. > ARRASATE

Arrasateko taldeak oso gaizki egin beharko lituzke gauzak Euskadiko Senior Mailara ez igotzeko. Bi partidu geratzen dira igogera fasea amaitzeko, eta domekan elkarren kontra jokatuko duten Ford Mugarri

Arrasate eta Donibane Majestic daude sailkapenean agintzen (Musakolan, 12:00etan). Bi talde horiek puntu berdinak dituzte, baina ez dago arazorik, bi talde igoko dira-eta goiko mailara. Urdaneta da arriskua eman dezakeena, hirugarren sailkatua. Baina, lau puntuko alde dago, karanbola gehiegi.

Egia esateko, Ford Mugarri eta Donibanek nahikoa dute domekako partidua berdintzearekin, biak sailkatuko lirarteke, partidu baten faltan.



> OMENALDIA
Elgeta trikitilariari omenaldia zapatuan Espaloia aretoan > 45



> OÑATI IRRATIA
Oñati Irratiak 15 urte egin ditu. Miren Urkiolari elkarrizketa > 52

> JON ZUBIAGA
Herriko hainbat musika taldetan jo du eta horrez gain, antzerki ikasketak egin zituen Getxon. Tarteka bakarrizketak egiten ditu eta Evaristoren Gatillazo taldean ere badabil > 50



Debagoieneko disko jartzaileen indarra

Musika elektronikoak gero eta jarraitzaile gehiago ditu

DJ ibiltzen diren Debagoieneko hainbat lagunekin izan gara

GOIENKARIA > BERGARA
Musikako izar berriak bilakatu dira disko jartzaileak azken urteotan. Hasiara batean DJak bakalao musikarekin lotzen bagenituen, egoera bestelakoa da gaur. Tendentzia eta estilo askotariko disko jartzaileak daude, baita gurean ere. Eskaintza gero eta zabalagoa da eta horrekin batera musika elektronikoaren jarraitzaileak ugartu egin dira han eta hemen. Debagoieneko herrietan ere DJ saioak izaten dira sarri, eta gazte jendeak ederki erantzun du musika eskaintza berriari. Atzean geratu dira garai bateko berbenak. Gaurko gazteek beste erritmo batzuk eskatzen dituzte. Garai baten hilzorian izan zen biniloak protagonismoa berreskuratu du eta disko jartzaileak nahasketa maisuak ditugu. Erritmoekin gauza harrigarriak egiten dituzte.

Oñatin, Arrasaten eta Bergaran izan gara, disko jartzaile ibiltzen diren hainbat lagun iritziak jasotzen. > 44





BETERANOA Kaiet orain dela 10 urte hasi zen disko jartzaile lanetan. MAIDER ARREGI

DJ KAIET > ARRASATE

Minimal techno house, jendea dantzan hasteko

Euskal Herriko areto gehienetan jarri du musika Kaiet Laskurain arrasatearrak

E.M. > ARRASATE

Kaiet Laskurain arrasatearra dugu DJ Kaiet. Orain dela 10 urte hasi zen disko jartzaile eta, besteak beste, Arrasaten (Etxosten eta Whiskerian), Bergaran (Jam aretoan) edo Zarautzen (Morganen) jardundakoa da *residente*, bertako disko jartzaile gisa.

Euskal Herriko sala gehienetan jarri du musika eta gaur egun Oiartzungo Pagoako programazioa nabarmentzen du. Disko jartzaileen artean Imanol Chilolet legazpiarraren lana du gustuko. Minimal techno house musika jartzen du Kaietek eta 2.000tik gora binilo dituela diosku. "Gau-

tan, jendea dantzan hasteko, minimal techno house delakoa ondo dator eta giro lasaigoetarako nahiago izaten dut deep-house. Giro atsegina lortzen da. Musika gehiena Internetetik erosten dut; azken tendentziak ezagutzeko aukera ederra eskaintzen du sareak. Musika gehiena Alemaniatik eta AEBetatik dator. Azkenaldian entzundako artistetatik Damian Schwartz gustatu zait gehien".

MOMENTU ONA

Azken hilabeteotan lanean gogor jardun ondoren, atsedentxo bat hartzea erabaki du. Ekainean itzuliko da berriro dantzalekuak alaitzera: "Momentu ona da disko jartzaileondako. Estilo aldetik aukera zabala dago eta jendeak gero eta gehiago daki musika elektronikoaren gainean".

DJ KIRRIN > OÑATI

Techno musikarekin jardun ondoren, hip-hop estilora jauzi egin du DJ Kirrinek

Hiru kantarirekin batera, Kultur LAB hip-hop taldean disko jartzaile aritzen da

EDU MENDIBIL > OÑATI

Musikazale amorratua eta saltseroa, Iñaki Cerqueira oñatiarra DJ Kirrin izenarekin hasi zen disko jartzaile. "Kuriostatea izan dut beti eta plato bat erosi nuen 17 urterekin. Aurretik ere, aitaren diskoekin piztu zitzaidan binilorako zaletasuna. Xarma berezia dute biniloek".

Techno musika jartzen hasi bazen ere, aspaldiko partez erdi utzita duela diosku: "Orain hip-hoparekin nabil buru belarri. Techno beti sentitu dut. Baina letrarik ez dauka eta hip-hoparekin, zure bizitzako pasadizoak jendearekin konpartitzeko aukera egoten da". Kultur LAB hip-hop taldearekin disko jartzaile aritzen da. LAB hizkien atzetik latin, afro eta basque hitzak ezkututzen dira eta Kirrinekin batera Moha, Charlie eta Johan kantariak dabil-



HIP-HOP Kultur LAB hip-hop taldean dabil Kirrin aspaldian.

tza. "Gure musika eta beste hainbat talderena tartekatzen dugu, errimak *rapeatus*. Poliki-poliki hip-hopa zabaltzen ari da gurean. Hablando en plata, Frank T eta CPV taldeak dira nire erreferentetako batzuk". Ekainaren 16an Oñatiko gaztelekuan izango dira.

ESTUDIOA ETXEAN

Bestalde, etxean estudio txiki bat dauka Kirrinek: Gap records. Dagoeneko hainbat talde igaroko dira bertatik. Orain beste proiektu bat dauka eskuartean: Oñatiko talde guztiek abesti bana grabatzea. Lagash taldeko zuzeneko tekniko ere bada Kirrin.



LOKALEAN Angel, Samuel eta Asier, Kogollo Party Krew Kolektiboak Zabalotegin duen lokalean.

EDU MENDIBIL

KOGOLLO PARTY KREW DJ KOLEKTIBOA > BERGARA

Bergara eta inguruko disko jartzaileen bilgunea

Musika dantzarekin, ikus-entzunezkoekin edota dekorazioarekin uztartzea gustuko dute

E.M. > BERGARA

Asier Baltzategi (DJ Balza), Angel Moreno (Angel), Samuel Gartzia (KRC), David Martinez (D_2) Eneko Baltzategi (Ene!) bergararrak eta Mikel Lopez aretxabaletarra biltzen dira Kogollo Party Krew Kolektiboan, iazko otsailetik. Ia egunero elkartzen dira Zabalotegin duten lokalean. Musika jartzeko orduan bakoitzak bere estilo propioa dauka: Asierrek era-

gin asko dituen musika elektronikoa du gustuko; Angelek minimal technora jotzen du eta Samuelek, aldiz, 1980ko popa eta gauroko pop elektronikoa tartekatzen ditu.

MUSIKA BAINO GEHIAGO

Musika elektronikoa dantzarekin, ikus-entzunezkoekin edota dekorazioarekin uztartzea gustuko dute. Taldearen emanaldietan

Mikel Lopez arduratzen da argiztapenaz eta dekorazioaz. Eta beste hainbat lagunekin ere kolaborazioak egiten dituzte. Musika onena Alemaniatik datorrela diote eta Samuelek New Yorken sortutako hainbat talde nabarmentzen ditu: Rapture, !!! eta LCD Soundsystem. Mikelek Split 77 edo Delorean taldeek egiten duten rock elektronikoa azpimarratzen du. Bergaran dagoen kultur musika goraiatzean bat datoz.

Ekainean Bartzelonan ospatuko den Sonar jaialdira joateko irrikaz dira Asier eta Mikel. "Europako jaialdirik onena da". Eneko Asierren anaia Bartzelonan dabil, musika elektronikoko produkzioa ikasten. Talde bezala zortzi bat festa eman dituzte; hurrengoa ekainaren 2rako iragarri dute, Go-Jam aretoan.

ITYRRIETA

Sagardotegia – Erretegia

Ostegunetik igandera zabalik
(gainerako egunetan aurrez deituta)

- Sagardotegiko menu ezberdinak
- Karta
- Kazuelatxoak

Arraga auzoa
605 70 64 51 / 945 44 53 85



PLAZAZ PLAZA Herri asko bisitatu zituen Jazinto Rivasek soinua aldean zeramala.

GOIENKARIA

GAIA > JAZINTO RIVAS 'ELGETA' ZENARI OMENALDIA ZAPATUAN

Trikiti-kabareta egingo dute 'Elgeta'-ren urtemugan

Elgetako trikitilari ezaguna jaio zeneko 100. urteurrenean, haren gaineko liburua aurkeztu eta ikuskizuna egingo dute Espaloia Kafe Antzokian

IKER BARANDIARAN > ELGETA

Bihar, zapatua, omenaldi-jai berezia egingo dute Elgetan. Elgetako Udalak eta Trikitilari Elkarteak omenaldia egingo diote Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilariaren zeneri.

Jazinto Rivas 1906an jaio eta 1964an hil zen. Urte askoan baserri eta plazaz plaza ibili zen musika jotzen. Horrez gain, irakasle moduan lan handia egin zuen. Zeregin horregatik egin zen ezaguna *Elgeta*. "Batzuen

ustetan, trikitilari zaharren teknikak traketsagoak ziren, baina aitzindariak izan ziren eta hainbat doinu eta posizio asmatu behar izan zituzten. Goraipatzeak da *Elgeta*-k eta sasoiko beste musikari batzuek egin zuten bidea", azaldu zuen Iker Goenaga trikitilariak.

HAREN GAINEKO LIBURUA

Euskal Herriko Trikititza Elkarteak *Elgeta*-ren gainean idatzitako liburua aurkeztuko dute.

Musikariaren biografia txikia, disko bat eta partiturak batu dituzte lan horretan.

TRIKITI-KABARETA


Musikariaren mendeurrena ospatzeko ekitaldi nagusia zapatuan izango da Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean. Sarrerak hiru eurotan daude salgai.

Hala, Koldo Izagirre idazlearen laguntzarekin, Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aktoreek antzezlan egingo dute. *Elgeta*-ren bizitzako pasarteak izango dituzte gogoan. Horrez gain, hiru bikote arituko dira soinu txikiarekin: Epelarre eta Zabale, Laja eta Landakanda, eta Tapia eta Leturia, hain zuzen ere.

'Euskal Herria atzerritarren ahotan' aurkeztu dute asteen

Arrasateko Udaleko Euskara teknikari Joxe Felix Diaz de Tuestak idatzi du liburua, eta Arrasate Argitan elkarteak kaleratu du. Orain dela urte batzuk *Arrasate, irudiak* egiten hasi zirenean, Diaz de Tuesta hasi zen atzerritarrek Euskal Herriaren eta euskaldunen gainean esan edo idatzi dutena jasotzen. Orain, lan hori liburu baten batu du.

Martitzenean aurkeztu zuen liburua Kajoi tabernan, eta salgai dago Kajoin bertan eta Juan Manuel Berrueta argazki dendan.



IKER BARANDIARAN



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Zure arazoari irtenbidea emango diogu

Laserra erabil daiteke 9 urteko ume batekin? 9 urteko alaba daukat eta bibotean ile asko ditu. Ikastolan behin baino gehiagotan esan diote mutilak beste ile dituela. Hasieran ez nion garrantzirik eman eta esan nion 14 urterekin kenduko genuela biboteko ilea. Baina orain esaten dit biboteko ileak kentzeko eta kentzeko. Ez dakit zer egin; sarritan ikusten dut ispilu aurrean biboteko ileei begiratzen. Behin tindatu egin nizkion, baina ez zuen ezer iraun. Badakit neskatila batzuk ibili direla zurekin (konkretuki gure anaiaren alaba, baina 14 urte ditu). Ermuan bizi naiz, baina ez zait axola Bergarara joatea. Susana.

Susana: zure alabaren kasua ez da batere erraza: alde batetik, oso gaztea da depilatzeke; baina bestetik, aurrera begira horrek utz diezaioken marka psikologikoa ere handia izan daiteke. Baloratu behar dena da laser bidezko depilazioa orain egitea ez dela 18 urterekin egitea bezain eraginkorra izango, zeren eta zure alaba hazten ari baita eta hormona sistemari asko gertzen baitaio oraindik osatzeko. Bestalde, alabak horren txarto pasa ez dezan, egin liteke 3-4 hilabetean behin laser bidezko saio bat; saio horie-

kin (beharraren arabera) tentsioa beti da ile gutxiago eta finagoa irteeta. Argi laga nahi dut ez zaiola ilea guztiz desagertuko (hormonalki eta fisikoki garatu arte). Susana, hori guztiori umearen pediatarrekin tratatu beharreko gaia da. Behar duzunerako, badakizu non nagoen.

Eguzkia hartu aurretik gertatu egin behar da azala.

Irenek galdetzen dit ea nola lor daitekeen azal beltzarana izatea, erretzeke, orbanik gabe eta arriskurik gabe.

Kontuz ibiltzen bazara, erraza da. Lehenengo, aurpegia eta gorputza esfoliatu behar duzu produktu on batekin, ez dadila oso urratzailea izan (kutisa garbitzea eta hidratatzea onena). Eguzkitan jarri baino 2-3 egun lehenago produktu hidratatzaile bat eman (Cellu Guard konplexua oso ona da eta brontzetzadura aktibatzen du). Eguzkia hartzeraz zozan lehen 3-4 aldietan babes altuko krema erabili eta ez jarri eguzkitan arratsaldeko bostak baino lehenago (paseatu, poliki-poliki). Eguzkia hartu ondoren krema hidratatzailearen bat eman. Krema hori eguzkia hartzen duzun bakoitzean eman beharko duzu. Horren ondoren, zure azalaren arabera ikusiko dugu zein den eman beharreko babes faktorea.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista

e-maila: mi.hs@euskalnet.net

IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel.: Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Oritular. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
- Ibargarai 106 m². Oso ondo.
- Espolola 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teliatu azpia.
- S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraskozuri 104 m². Oso ondo.
- Oritular 97 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Prezio oso ona.
- Zubiaurre 80 m². Ondo.

Antzuola:

- Elkarren ondoan eraikitako 8 txaklet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txakoa eta terraza. Aukera ona.
- Etxebizitza berria. Prezio oso ondo.

ENTORNOS
INMOBILIARIOS
URBANÍSTICOS

INMOBILIARIA
T: 943 688404

BERGARA:

- 109 m², 3 logela.
- 65 m², 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa, 105 m², 3 logela, garajea
- 82 m², 3 logela, berrituta. 210.995 €
- 104 m², 4 logela, egongela handia, 366.617 euro
- Maritoko. Bi urte dela berrituta.
- S. Anton Abad. Bi urte dela berrituta.
- Ibargarai 80 m². Bi balkoi.

ARETXABALETA

- 85 m², 3 logela, jantzitza

ANTZUOLA

- 8 baitel berri
- 51 m², berrituta, 167.000 euro
- 90 m², 3 logela, terraza
- 77 m², berrituta, 217.674 euro

ANGIOZAR
Baseria

BERGARA
Baseria. 600 m², lur saila 300 m². 370.000 euro.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Otarora 2. Goiko solairua. Ikuspegi zoragarria. Hiru logela eta bi bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Doneztebe Portuko kalean. 69m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bi soto. Arratsaldean deitu. 652 77 87 71.

Arrasate. San Andres auzoan dago etxea. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia eta sotoa ditu. Eguzkitsua. 667 85 19 52.

Arrasate. San Andres auzoan dago. 57m² ditu. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. 943 79 98 45 edo 685 72 11 66.

Bergara. 75 m². Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldea. Txakoa eta bi apartaleku ere baditu. 600 46 58 02.

Bergara. Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden: 3 logela, 2 komun, berogailua, garajea eta trasteleku. Eguzkitsua eta ikuspegi paregabea. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

Irufeia. Etxebizitza salgai Alde Zaharreko Carmen kalean. 44 metro koadro. Igogailua eta trasteleku. 660 84 51 78.

Legazpi. Etxebizitza salgai. Guztiz berritua. 635 75 51 18.

Oñati. Eguzkitsua. Bibainugela, hiruro logela. Terraza: 23 m². Ganbara. Garaje itxia. 626 55 77 99.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 649 31 32 25.

Arrasate. Logela bat alokatzen da. Sukaldea erabiltzeko aukera. 300 euro. Dorleta. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Bergara. Etxebizitza errentan ematen da, Bolun, zezen-plazan. Deitu: 20:00etatik 22:00etara. 943 76 07 89.

Cambrils. Etxea errentan. Hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta berdegunea ditu. 610 79 47 29.

Cambrils. Etxebizitza ematen dut errentan udarako. Berriberria. Hondartzatik eta hirigunetik oso gertu. 619 37 51 18.

Donostia. Etxebizitza errentan ematen da Groseko hondartzan.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Santa Marina 42an. Deitu 21:00etatik aurrera. 619 59 28 47.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. 17 m². Plazatik gertu. 656 72 10 35.

Oñati. Garajea ematen da errentan. 17 m² eta plazatik gertu. 656 72 10 35.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 60 m²-ko lokal komertziala erdialdean, Irala Kalean. Zeharo egokitua. 943 79 90 43.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Pertsona bat behar

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- San Anton Abad. 75 m². Oso ondo.
- Maritoko 93 m². Ondo.
- Aranerrea 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Mabiategi 80 m². Ondo.
- Madura 51 m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Maritoko 45 m². Ondo.
- Fraskozuri 102. Ondo.
- Arizuri 97 m². Oso ondo.

ELGETA:

- Salbador 80 m². Berrituko.

SORALUZE:

- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.

tik gertu. Uztailaren 15etik irail bukaerara. Lau lagunendako aproposa. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Elizondo (Nafarroa). Lau logelako etxebizitza errentan ematen da, ekainaren 17tik aurrera. Zortzi pertsonarendako egokia. 600 euro asteko. 943 79 58 75 edo 630 08 33 85.

Eskoriatza. Etxebizitza errentan ematen da, erdialdean dago. Berria. 696 16 83 06.

Eskoriatza. Lau ikaslerendako etxea alokatzen dut. Unibertsitate oso gertu. 616 64 96 28 edo 629 42 26 47.

Noja. Duplex polita hondartzan. Itsasora begira. 944 61 43 78 edo 696 90 94 43.

Oñati. 58 m². Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Herriko plazatik gertu. 656 72 10 35.

Peñíscola. San Juanetarako apartamentua ematen da errentan. Guztiz hornitua. Hamar egun 250 euro. 945 29 33 80.

Salou. Lau lagunendako etxebizitza itsasoari begira. Ekainetik irailera bitartean, Jaime I pasealekuan. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Torreveja. Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, terraza eta igerilekua. Hondartzatik gertu. 657 79 47 95.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasate. Bikoteak etxea hartuko luke errentan. 635 75 38 07.

Bergara edo Antzuola. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bi edo hiru logelarekin. Yolanda. 647 10 58 85 edo 685 78 78 22.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 645 49 91 05.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko, logela alokairuan hartzeko langile bat gertu. 662 07 91 58.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. 17 m². Plazatik gertu. 656 72 10 35.

Oñati. Garajea ematen da errentan. 17 m² eta plazatik gertu. 656 72 10 35.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Pertsona bat behar

1. ETXEBIZITZAK

- 101. SALDU
- 102. EROSI
- 103. ERRENTAN EMAN
- 104. ERRENTAN HARTU
- 105. ETXEA OSATU
- 106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

- 201. SALDU
- 202. EROSI
- 203. ERRENTAN EMAN
- 204. ERRENTAN HARTU
- 205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

- 301. SALDU
- 302. EROSI
- 303. ERRENTAN EMAN
- 304. ERRENTAN HARTU
- 305. BESTELAKOAK

4. LANA

- 401. ESKAINTZAK
- 402. ESKAERA
- 403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

- 501. JASO
- 502. EMAN
- 503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

- 601. SALDU
- 602. EROSI
- 603. ALOKATU
- 604. KONPONDU
- 605. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

- 801. SALDU
- 802. EROSI
- 803. EMAN
- 804. HARTU
- 805. TRUKATU
- 806. GALDU
- 807. AURKITU
- 808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

- 901. AGURRAK
- 902. HARREMANAK
- 903. DEIAK
- 904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 17 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARETXABALETA

Zerbitzaria behar da aste-buruetarako.

647 05 42 75

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da.

943 78 22 80
665 72 24 46

BERGARA

Gidaria behar da banaketa enpresa baterako.

Astelehentik ostiralera lan egiteko. B1 gidabaimena beharrezkoa.

650 13 77 14

ARRASATE

Etxetresna elektrikoak etxetara eramateko mutil gazte bat behar da.

943 77 00 34

ONATI

Kafe-Portu taberna alokatzen da.

635 71 72 91

ARRASATE

Etxebizitza salgai San Josepen. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, gas naturala, berogailua, igogailua, erdi jantzia, trasteleku, eta oso eguzkitsua.

686 61 58 79

ARRASATE

Aretxabaleta. Ingelesko klaseak ematen ditut. 943 79 03 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Fiat Stylo autoa salgai. Guztiz jantzia eta egoera onean. 2004koa. 29 mil km ditu. 1700 haguak (llantak). 11 mila euro. 676 08 45 45.

Fiat Ducato autokarabana salgai. 2.5 TDI. Sei lagunentzako lekua. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Ford Scort. 16 v. Familiarra. 127.000 km. 2.200 euro. 649 69 33 02.

Gas-Gas motorra salgai. 1999koa. 250 cm³. Egoera onean. IAT (ITV) pasatuta. Agiri guztiekin. 620 19 44 35.

Golf GTI autoa salgai. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

da abuztura bitartean ume bat zaintzeko. 686 55 79 82.

Arrasate. Sasoi emakume bat behar dut (edo senar-emazte erretiratu gazteak) arratsaldeetan umeak zaintzeko (udako hilabeteetan, goizez). Baldintzak: Arrasateko erdigunean bizi izatea, umeak gustuko izatea eta lana ilusioz hartzea. 675 70 77 51.

Bergara. Pertsona euskaldun bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 616 26 18 84.

402. ESKAERA

Debagoiena. Mutil batek jate-txe baten sukaldean lagunduko luke (eskarmentu handia dauka) edo garbitasun lanak egingo lituzke. 666 83 21 95.

Aretxabaleta. Emakumea gertu etxetik garbitzeko edo ume-ak zein adinekoak zaintzeko. 690 28 91 89.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 943 08 12 80.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak eta edadetuak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adineko-

ak zaintzeko. Arratsaldez egingo luke lan. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Arrasate. Gizon gazte gertu hainbat lan egiteko: zerbitzari, sukalde laguntzaile eta garbitzaile lanetan aritzeko eta baita ere pertsona nagusiei paseon laguntzeko. Carlos. 650 28 13 14.

Bergara. Neska gertu dendan, kafetegian, taberna... lan egiteko. 676 92 67 89.

Bergara. Orduka lan egingo nuke. Erresidentzia baimena eta gomendiozko gutuna daukat. 645 49 91 05.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingelesko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

ULMA

ULMA Packaging-ek, packaging prozesuen automatizazioan liderra denak, ondoko profil profesionala duen pertsona behar du enpresaren zabalkunderako:

SAC FORMAZIO TEKNIKARIA

REF: 2006/43

Formazioa
LH-II / Goi zikloko heziketa modulua
Nahitaezkoa ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuk ezagutzea baloratu egingo da (frantsesa).
Ofimatika ezagutzea erabiltzaile gisa.

Gaitasun profila
Bezeroenganako orientazioa izatea
Komunikatzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea
Bidaiatzeko prestutasuna izatea (maila nazionalen nahiz espertzioaren)
Malgutasuna izatea programa aldaketan aurrean
Ezinbesteko prestutasuna izatea zerbitzuko egutegi eta ordutegiari egokitzea

Interesatuok bidali datu pertsonalak eta profesionalak zehaztuta.

ULMA C eta E., Koop. Elk. Giza baliabide saila
13 p.k.-20.560 Oñati

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Yorkshire Terrier arrazako txakurkumeak salgai. Apirilaren 19an jaiotako. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

703. EMAN

Txakurra eta 40 egun dituzten 3 txakurkume oparitzen ditut. Mari. 943 53 33 92.

704. BESTELAKOAK

Yorkshire Terrier txakur emea nahiko nuke (beltza nahiago dut), nire arrarekin gurutzatzeko. Kume batekin geratzea da nire asmoa. 656 73 57 93.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bizikleta salgai. Tinarello Angiuru markakoa. Urdina. Campaño veloce osagarriekin. Zortzi hilabetez erabilia. 1,80 metroko pertsonarendako egokia. 800 euro. 626 25 27 03.

Bizikleta eliptikoa salgai. Ia berria. Pantaila digitala du. 679 42 09 38.

Bizikletak. Bi mendiko bizikleta. Ondo daude. 943 76 15 43 edo 685 72 53 17.

Karabana salgai. Bustner. Casta-

ñaresko (Errioxa) kanpinean dago. Ondozaindua. Gaez deitu. Telefona: 695 74 61 16 edo 943 08 00 81.

Karabanaroko abantzea salgai (4.10), egoera onean eta erdi prezioan. Telefona: 943 79 27 24.

Oheasalgai eskualdatzeagatik. Bi gau-mahairekin. 300 euro. 669 93 35 42.

802. EROSI

Altzariak erosi nitezu, logelakoak eta egongelakoak. 636 49 46 87.

Debagoiena. Basoko lursaila edo baserriko lursaila erosi nuke. Telefona: 678 72 75 72.

Hozkailua erosi nuke, bigarren eskuko. Telefona: 636 49 46 87.

Mendiko bizikleta erosi nuke, bigarren eskuko. Pablo. 676 02 95 19.

Mendiko motxila. Haur txikia eramateko mendiko motxila erosi nuke. Telefona: 943 76 58 91.

806. GALDU

Bergara. Urrezko belarritakoa galdu dut. Aurkitzen duenak ordainsaria jasoko du. 662 29 31 44.

Ezkontzako urrezko eraztuna galdu nuen duela aste bete-edo Monte taberna inguruan. 635 74 17 37.

ULMA Hormigón Polímero, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA
Eguna: 2006ko maiatzaren 26a
Ordua: 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena
Tokia: Iker Lukas biera gela – ULMA Handling Systems – Oñati

GAI ZERRENDA

- AURREKO AKTAK ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
- 2005EKO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZE ETA ONARTZEA, ETA 2006KO GESTIO PLANA BERRESTEA
- ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
- 2005EKO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. AUDITORETZA ERAKUNDEA IZENDATZEA
- SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
- HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEN FONDOEN (HKSF) ERABILERA
- EKONOMIA ARAUBIDEN ESTATUTU-XEDAPENAK
- EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK
- ESTATUTU SOZIALETAKO 31-Bi n), 56-Bi eta 64-Bi d) ARTIKULUAK ALDATZEA ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA GEHITZEA
- MENDEKO EKARPEN FINANTZARIOEN JULKIPENA
- KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
- ZAINZTA BATZORDEKO KIDE BAT BERRITZEA
- KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
- GALDERAK ETA ESKAERA

Oñati, 2006ko maiatza

OHARRA: Bazkide guztien jakinarean gainez gainez zera jartzen da, kontabilitate liburua eta deialdi honetan proposatutako estatutu aldaketan testua eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.



Mari Carmen Uribarren Egidazu arrasatearra eta **Ignacio Olabarria Larrañaga** bergararra 1956ko maiatzaren 9an ezkondu ziren. 50 urte elkarren ondoan egin ostean, urrezko ezteiak ospatu zituzten maiatzaren 13an. Zorionak!



Karmen Barrena Kortabarria eta **Bittor Olalde Beloki** oñatiarrek 50 urte beteko dituzte ezkondu maiatzaren 19an. Urrezko ezteiak familiakoekin ospatuko dituzte. Zorionak, senideen eta, bereziki, biloben partetik!



Bergarako **Juan Jose Agirre** eta **Maria Pilar Fernandez** Bergaran ezkondu ziren duela 50 urte. Zapatuan ospatuko dituzte urrezko ezteiak Arantzazun. Ondoren, bazkaria egingo dute etxe-koekin batera Soraluze jatetxean. Zorionak, etxekoekin partetik!



Alex Bernal eta **Sonia Varela** zapatuan, maiatzaren 13an, ezkondu ziren Bergarako Santa Marina elizan. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egin zuten. Bidaian Kanariar Uharteetara joan dira. Zorionak, gurasoen eta anai-arreben partetik!



Maiatzaren 6an ezkondu ziren Dorletako elizan **Alaia Perez** oñatiarra eta **Joxemi Elizburu** aretxabaletarra. Bazkaria Mendigoikoa hotelean egin zuten. Orain Ameriketako AEBtan dira ezteibidaian. Familiakoekin eta lagunaren partetik, zorionak!



Rafael Gutierrez eta **Begoña Muxika** orain dela 50 urte ezkondu ziren. Maiatzaren 6an ospatu zuten: Arantzazun meza egin zuten eta bazkaria Oñatin. Urteurrena ospatzeko Punta Canara egin dute bidaia. Zorionak, etxekoekin partetik!

hildakoak

- **Maria Pilar Biain Anduaga**. Oñatin, maiatzaren 11n. 78 urte.
- **Macario Zornotza Aletxa**. Bergaran, maiatzaren 12an. 81 urte.
- **Julio Iriondo Leibar**. Arrasaten, maiatzaren 12an. 73 urte.
- **Rafael Ramos Castilla**. Arrasaten, maiatzaren 15ean. 71 urte.
- **Eugenio Arana Agirre**. Elgetan, maiatzaren 15ean. 82 urte.
- **Ignacio Sanjose Zuazua**. Bergaran, maiatzaren 15ean. 90 urte.
- **Maria Errasti Urtzelai**. Eskoriatzan, maiatzaren 15ean. 96 urte.
- **Jose Maria Korkostegi Zubia**. Oñatin, maiatzaren 15ean. 71 urte.
- **Aurelio Egido Elices**. Arrasaten, maiatzaren 16an. 62 urte.
- **Santiago Etxeberriarteun Muxika**. Antzuolan, maiatzaren 16an. 75 urte.

ESKER ONA

Carlos Ayastuy Zugasti

“Otxua”

Oñatin hil zen 2006ko maiatzaren 8an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko maiatzaren 19an.

ESKER ONA

Maria Amenabar Gallastegi

Bergaran hil zen 2006ko apirilaren 19an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko maiatzaren 19an.

ESKER ONA

Julio Iriondo Leibar

Arrasaten hil zen 2006ko maiatzaren 12an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko maiatzaren 19an.

URTEURRENA

Candelaria Mazmela Cillaurren

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 21ean, 13:00etan, Aramaioko Untzillako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Isidora Barkin Madarieta

Gracian Larrañagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietako batera.

GOIENKARIA

Astero 19.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



URTEURRENA

Gillermi Llano Etxegibel

Bosgarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 21ean, 12:00etan, Aretxabaletako parrokiaren.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA



Jose Fernandez Perez Jorge E. Fernandez Muruamendiaraz

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.


bila-bila 7



hitz gezidunak

	Une	Urtxintxa	Behia arreske
	Izenpetu	Zein	Tona
	Musu		Sufrea
	Bat-batean		Bortitz, zakar
Gizarteari dagokiona	Zaborra		
Detekta-gailu	Higuin		
		Gurtzea	
		Garoa, iratzea	
Mendebaldean, zen		Letra grekoa	
IRUDIKO MENDIA		Burdinola	
			Omen
Sorginen batzar			
Enparantza			
		Hiru zenbaki erromatarrez	

LUMA



umore giroan

Kike Amonarriz

BERNARD TAPIE

Justizia administrazioa nonahi dabil mantso, geldo eta oker. Ondorio hori atera daiteke behintzat munduko prentsa irakurritz gero.

Parisko epaitegi hau ere jendez gainezka dago, denak isilik, beren txanda noiz iritsiko zain.

Halako batean, denen harridurarako, Bernard Tapie azaldu da. Han dagoen jende piloia ikusitakoan, epai-gela zaintzen ari diren polizietako batengana inguratu da eta:

- Aizu, ezin al didazu txanda aurreratu?...

Poliziak, begitartea okertu diola ikusterakoan:


- Autoa bigarren ilaran aparkatu dut eta!

sudokua

		8			7	
1		5	6			9
	5	8	4	3		
8	9			1	6	
4		1	3		2	
2	7			9	4	
	4	3	8	2		
6		4	7		3	
	3			6		

hieroglifoa

Emakumezko izena




hizki salda

Euskarazko bost aldizkari


D	R	R	T	G	J	L	I	O
M	A	I	D	I	B	F	G	H
K	E	R	E	T	I	A	R	A
M	E	R	G	G	Z	A	R	R
N	D	O	S	I	Y	D	O	R
A	S	E	D	U	A	S	X	A
R	T	A	H	O	I	A	Z	B
M	G	L	S	A	Z	O	D	A
A	E	N	T	Z	U	N	B	N

soluzioak



I	I	I	A	Z	A	L	P
E	R	R	A	E	K	A	
	I	R	O	K	Z	A	
A	T	O	I	N	A	Z	
R	U	G	R	A	N	O	S
A	M	A	R	A	Z	S	
S		T	O	P			
U	T	A	N	I	S		
S		K		L			

bono fotoa



Eskualdeko ze herritan dago oroigarri hau?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereziabar

Super BM

Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Digestive gailetak
800 gr

2,39 € 398 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
XABI LEUNDArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Musakolan.

8	4	9	1	5	6	3	2	7
3	6	2	7	4	2	1	4	9
7	1	2	8	6	3	4	4	5
4	3	6	5	8	6	1	7	2
2	7	8	3	6	1	6	5	4
6	5	1	2	4	7	6	3	8
1	2	3	4	7	8	5	9	6
9	8	4	6	3	5	2	7	1
5	6	7	9	1	9	2	8	3

Elena
Jergofitkoka: Elena

N	B	N	U	Z	T	N	E	A
V	A	D	Z	A	S	L	G	M
B	Z	A	I	O	H	A	R	T
A	X	S	U	D	E	S	A	V
R	O	S	I	A	D	O	N	D
R	A	R	Z	G	G	R	E	M
A	I	A	R	E	T	I	A	K
H	G	F	I	D	I	B	F	M
O	L	I	G	T	G	J	L	D

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa



Debagoieneko Mankomunitateko Turismo eta Kultura Sailak eta Euskal Herria aldizkariak antolatuta, datorren maiatzaren 26an, 27an eta 28an Mundumira jaia -munduko kulturen jaia- ospatuko da Oñatin.

Hori dela eta, Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun zaretenon artean honako opari hauek zozketatuko ditugu:

EUSKAL HERRIA aldizkariaren bost sorta: sei aldizkari eta ale berezia
EUSKAL HERRIA aldizkariaren urtebeteko harpidetza (sei aldizkari eta ale berezia)



MUNDUMIRA jaiaren bost kamiseta



Maiatzaren 26an izango den Amparanoia eta Mal De Ojo taldeen kontzerturako 15 gonbidapen



ZOZKETAK

087 zozketa: maiatzaren 15a

088 zozketarako sariak

Zozketan parte hartzeko baldintzak:

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 24 euro

2006 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

ZORIONAK IRABAZLEEI!

Hauk izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, zorionak!

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

- Pablo Txintxurreta Etxebarria (Aretxabaleta)
- Juan Ignacio Biain Uribarren (Arrasate)

Sei gonbidapen EIBAR-LLEIDA futbol partidurako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Olga Morras Garitaonaindia (Arrasate)
- Jabier Arkauz Zurutuza (Oñati)
- Andoni Azkarate Larrañaga (Antzuola)
- Elisabeth Sanchez (Eskoriatza)
- Oscar Diaz Alonso (Bergara)
- Izaskun Caballero Ramirez (Arrasate)



- ECRON musika mikro-kate bat.

- **EIBAR-LEVANTE** futbol partidua ikusteko sei gonbidapen. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

Jon Zubiaga > Musikaria eta aktorea

"Kuxkuxeroak' saioan larritu egiten nintzen bromaren biktima larri ikusita"

Jon Zubiaga oso ezaguna da Arrasaten, herriko hainbat musika taldetan jo duelako. Eta horrez gainera, askok ezagutzen dituzte Zubiagak egiten dituen imitazioak. Horregatik, lagunek bultzatuta, antzerki ikasketak egin zituen Getxon. Tarteka bakarrik egiten dituen arren, denbora luzeen Evaristok gidatzen duen Gatillazo taldeak kentzen dio.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Aspaldi honetan Zubiaga oso lanpetuta dabil plazaz plaza eta aretoz areto Evaristoren Gatillazo taldearekin astebururo jotzen. Hala ere, aukera daukanean umeendako ikuskizunak eta helduendako bakarrik egiten ditu.

Lau anai-arreba zarete, eta zu zara gazteena...

Bai, baina ondo zaindu nautte. Are gehiago, asko ikasi dut eurengandik. Adibidez, musika-renganako eta xelebrekeriak egiteko zaletasuna anaia Andonirengatik etorri zait.

Formala zinen?

Baietz esango nuke. OHoko 6. mailara arte ez nintzen okertu. Bestalde, umetan iluntasunak beldurtzen ninduen, baina orain alderantzizkoa gertatzen zait.

Noiz konturatu zinen antzerkia gustuko zenuela?

Egia esanda, oso txikitatik izan dut gustuko jendea imitatzea. Bestalde, nik ez neukan antzerkia egiteko asmorik. Nik gura nuen autodiseinatzaile izan, auto klasikoak oso gustuko ditudalako. Baina Eskola Politeknikoan sartu eta Marrazketa Teknikoa egiten hasi nintzenean konturatu nintzen hori ez zela niretako. Lagunek etengabe esaten zidaten antzerkia egiteko, eta azkenean proba egin nuen.

Eta Getxoko Antzerki Eskolan zer aurkitu zenuen? Espero zenuena?

Hasiera baten zur eta lur gelditu nintzen: jendea negarrez, oihuka... "Zer da hau? Non sartu naiz?". Gero konturatu nintzen antzerkia zure barneko ezagupea egitea ere badela. Oso polita izan zen eta asko ikasi nuen antzerkiaren eta baita nire gainean ere.

Eskolatik irten zinen antzerkian lan egingo zenuela pentsatzen?

Ametsa zen. Gainera, irakasle batek behin eta berriro esaten zidan ETBn lana aurkituko zuela. Gero konturatu nintzen oso gaitza dela.

Baina lan batzuk egin dituzu antzerkian eta telebistan, ezta?

Antzerki Eskolan ikasketak bukatzeko proiektuan Bertold Bretchen ikuskizun bat egin genuen, astun samarra zen. Telebistan, berriz, *Goenkale*-n bospa-



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Antzerkia. **Zaletasunak:** Musika eta ondo jatea. **Zu re bizi-zako kontzertua?** Social Distortion, Jam aretoan. Emanaldi hartan argia ikusi nuen, eta musika egitea erabaki nuen. **Gizateriaren aurre rapen handie-**

na? Ohea. **Telebista saio bat:** *Los Simpson*. **Zenbat seme-alaba edukiko zenituzke?** Lau. **Zer filmetako protagonista izango zinateke?** *V de Vendetta*-ko protagonista. Betidanik gustatu izan zaizkit maltzurak. **Mania bat?** Gasa itxita dagoen begiratzea.

sei bider lan egin dut, baita *Kuxkuxeroak* saioan ere.

Eta zer moduzko esperientzia izan zen?

Goenkale jende jatorra aurkitu nuen, eta jende askok ikusi ninduen. *Kuxkuxeroak* saioan, berriz, oso denbora laburra egin nuen. Ez nintzen oso eroso ibili, guztia oso azkar egin behar izaten genuelako eta adarra jotzen genion biktima larri ikusita ni ere larritzen nintzelako. Hala ere, badut pasarte bitxi bat: gaur egun *Betizu* saioa aurkezle Nerea Alias broma bat egin behar izan nion ezezaguna zenean. Nik broma egin ostean ETB-ra hartu zuten. Orain harengana jo beharko dut lan eske...

Musika zure zaletasun handia da. Noiztik?

Andoniri betidanik gustatu zaio rock-and-rollera eta etxean uneoro entzun dut musika. Nik gitarra-jotzaile baino gurago nuen baxu-jotzaile izan, Red Hot Chili Peppers taldekoa gustuko nuelako.

Baina punk eta oi! musika egiten ibili zara...

Bai, Des-Kontrol taldean hasi nintzen eta Kañeria 13 taldea ere osatu genuen. Horren ostean, 70eko hamarkadako jai baterako The Honky Tons taldea sortu genuen. Nire talde kuttuna Kañeria 13 izan da. Behin baino gehiagotan gure artean haserretu arren, oso lotura handia daukagu. The Honky Tons taldea berezia da, antzerki kutsua ere baduelako. Baliteke azken hori halako baten berpiztea.

Talde horietatik The Kagera jauzi egin zenuen eta azken urteotan Gatillazora...

Bai, hasieran errespetua eman zidan RIPeo Jul eta Txerrarekin eta La Pollako Evaristorekin jotzeak, baina oso ondo pasa nuen. Horren ostean, Gatillazo etorri zen eta laster hiru urte beteko ditugu horrekin.

Eta zer moduz zabilta talde horretan?

Pribilegiatua naiz, gitarra jotzeagatik eta antzerkia egiteagatik bizi naizelako. Oraindik ez dut guztiz sinisten. Horrez gain, Kataluniako Katakarak antzerki taldearekin umeendako *Pinotxo* ikuskizuna egiten nabil; eta Jon Urrazarekin batera *Bob, nor da Bob?* bakarriketa ikuskizuna ere tarteka egiten dugu.

berriak

> PROGRAMAZIOA
Aurkezle izan nahi baduzu bidali zure datuak GOITBra

Aurkezle izan nahi dutenentzat deialdia egin du GOITBk. *Jaiak 2006* saioa aurkezteko aurkezle gazteak behar ditu, eta interesa dutenek eskaria bidali beharko dute *oagierre@goiena.com* helbidera edo telefonoz deitu beharko dute 943 71 23 96 zenbakira.

Eskaerak maiatzaren 31 baino lehen bidali beharko dituzte interesatuek. Aurkezten direnen artean proba egingo da Goiena Telebistan.

> PROGRAMAZIOA
'Herri Urrats 2006' ikusteko aukera asteburuan

Domekan ospatu zen Iparraldeko ikastolen aldeko festa handia Senperen. Parte-hartzeari dagokionez, marka guztiak hautsi ziren: 90.000 euskaltzale batu ziren eta giro ederra izan zen.

Bada, Ttipi-Ttapa Telebistak eginiko saio berezia gurean ikusteko aukera izango da. 30 minutuko saio berezian, aurtengo Herri Urrats festaren irudirik ikusgarrienak ikusiko ditugu.

> ARRASATE IRRATIA
Debagoieneko bi artzain gazte 'Asteko Gainbegiratu'-n

Artzainen zaindariaren eguna eguaztenean izan zen arren, guk astelehenean, San Isidro egunean, egin genuen Mikel Etxebeste eta Aitor Unamuno artzainekin hitzordua.

Gazteak dira, baina eskarmentu handia dute ardiekin. Ogibide gogorra den arren, oso gustuko dutela aitortu digute. Hala, *Asteko gainbegiratu*-n berreskuratuko dugu berbetaldi hori.

> EGURALDIA, IRRATIAN
Martitzenean, Pello Zabalaekin hitzordua

Hamabostean behin elkar-tzen gara Pello Zabalaekin meteorologiaren geltokian. Eguraldi iragarpenik ez digu egiten; hori Joxe Landak egiten digu-eta goizero. Pello Zabalaekin meteorologiaz eta naturaz zentzu zabalean jarduten dugu.

Datorren martitzenean, Fenologia zientziaren gainean jardungo dugu; hau da, landaretza ikertzen duen zientzia zer den kontatuko digu Zabalak.

'ALOÑA MENDI-IDIAZABAL' > DOMEKA, 21:30

GOITB Aloña Mendirekin hirugarren mailara

Aloña Mendik eta Idiazabalek Azkoagainen jokatuko duten partidua eskainiko du GOITBk

GOIENKARIA > BERGARA
Aloña Mendik egun historikoa bizi izateko aukera du domekan. Azkoagainen futbol zelaiaren jokatuko du partidua Idiazabalen kontra, eta irabaziz gero hirugarren mailara igoko da.

Hori dela eta, Goiena Telebistak emanaldi bereziak egingo ditu. Domekan, 21:30ean, Aloña Mendi eta Idiazabalen arteko neurketa eskainiko du eta asteleheneko *Harmailatik* saioa ere berezia izango da. Domekako zein asteleheneko emanaldiak Julen Iriondo kazetari oñatiarrak zuzendu eta aurkeztuko ditu.



IGOERA GERTU Aloñak igoera eskuratzeko aukera du domekan. GOIENKARIA

SAIO BEREZIA, 'ERDI AROKO AZOKA ARRASATEN' > MARTITZENETIK OSTIRALERA

Arrasateko Erdi Aroko azokarekin gozatzeko aukera izango da GOITBn

GOIENKARIA > BERGARA
Arrasateko Erdi Aroko azokak bere lekua hartu du herriko kultur eskaintzan. Aurten hirugarren aldiz antolatu dute, eta aurreko urteetan izandako arrakastarekin jarraitu gura dute Arrasateko Udalekoek. Iaz, 25.000

bisitari izan ziren Erdi Aroko azokan eta aurten kopuru hori hobetu egin gura dute antolatzaileek.

Horretarako egitarau zabal prestatu dute: antzerkia, kale animazioa, artisauak, sorgin-riak... eta herriko zenbait tal-

dek ere esku hartuko dute egunean zehar antolatu diren ekitaldietan; besteak beste, Doka antzerki taldea, Arrasate Musikal, Ibai arte eta herriko artisauak. Goiena Telebistak kaleko giroa jasoko du, irudi ikusgarrienak grabatuko ditu eta elkarrizketa esanguratsuenak ere ez dira faltako. Hori guztiori ikusi ahal izango dute ikusentzuleek martitzenetik ostiralera bitartean 30 minutuko saio berezian. Nerea Isasti kazetariak aurkeztuko du saioa.

telebegi

Unai Moraza

Zaborrean tomatea salbu

Gutako asko bat etorriko gara Telecincon albiste arrosek daukaten tarte handia salatzeke orduan. *Gran Hermano*-rekin hasi zirenetik jasangaitza bihurtu da. Programazio osoa *infragizakien* gorabeheren inguruan mugitzen da. Horretarako erabiltzen dituzte *GH*-ren enegarren edizioa eta bestelako realityak.

Jokaldia oso ondo atera zaie. Audientzian liderrak dira. Antena 3-n inbidiaz begiratzen diete, formula bera erabili arren ez baitute emaitza onik lortu. Saiatu saiatu dira, baina ez dute asmatu. Maria Teresa Camposekin gertatutakoa horren adibide da.

Hala ere, nik Telecincoren zabor neurrigabeen saio bat salbatu nahi dut: *Aquí hay tomate*. Mundu arrosa jorrazteko erabiltzen duen tonua berezia da, erakargarria. Albisteei urrutitik begiratzen diete. Aurreko begiradan gaiak seriotasunez tratatzen dituztela dirudi. Bideo laburrak, suspentse filmen musikarekin. Baina saioari erreparatuz gero, berehala nabaritzen da ukitu ironikoa. Albiste laburrak eta Jorge Javier Vazquezen komentario gatz eta piperdunak.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratu.
Aitor Unamuno eta Mikel Etxebeste, artzainak; Itziar Mallabiarrena, saskibaloio jokalaria; Ines Aldai Arrasateko Kultura zinegotzia, Erdi Aroko azokaren gainean; musikaren geltokian, Ozen eta Su ta Gar taldeen disko berrien gainean, Gaizka Vitoriarekin; Lorategiaren geltokian, orkideak berbegai...

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratu.

Asteleheneetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Lorategiaren geltokia.
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).
Sariak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepikapena)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errepikapena).

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 19
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 MI. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean: Juan Maria Atutxa. 22:45 Albisteak. 23:15 Debarri. 00:15 Berriak. 00:45 Amaiera.

Zapatua, 20
08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrakzi bizidunak bilduma. 10:50 Astekoak. Informazio saioa. 11:00 Jazz. 11:30 Klip. 12:00 Didjeridu: Aintzane Agirre. 12:30 MKT. 13:00 Iparrorratza. 13:30 Eltze beroa: pasta freskoa. 14:00 Astekoak. 14:15 Ilunpean: Juan Maria Atutxa. 14:45 Herri Urrats 2006. 15:15 Marrakzi bizidunak. 16:00 Popeye. 17:00 Debarri: Aramaioko alkate Murtxe Mondragon. 18:00 Teknopolis. 18:30 Berbaire. 19:00 Sustraiak. 19:30 Munduari bueltak: India. 20:00 Astekoak. 20:15 MKT. 20:30 Behazulo: Mundumira. 21:00 Erreportajea. 21:30 Ilunpean: Juan Maria Atutxa. 22:00 Herri Urrats 2006. 22:30 Didjeridu. 23:00 Klipak. 23:30 Debarri: Aramaioko alkatea. 00:30 Emisio Amaiera.

Domeka, 21
08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrakzi bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo: Mundumira. 11:30 Ilunpean. 12:00 Berbaire. 12:30 Herri Urrats 2006. 13:00 Debarri: Aramaio. 14:00 Munduari bueltak: 14:30 Klipa. 14:45 Sustraiak. 15:15 Erreportajea. 15:45 Marrakzi bizidunak. 17:15 Didjeridu. 17:45 Astekoak. 18:00 Iparrorratza: India. 18:30 Jazz mintegia. 19:00 Elkartasun bideak. 19:30 Erreportajea. 20:00 Debarri: Aramaioko alkatea. 21:00 Herri Urrats 2006. 21:30 Futbola: Aloña Mendi-Idiazabal. Hirugarren mailara Aloñarekin. 23:30 Astekoak. 23:45 Emisio amaiera.

Astelehena, 22
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa: Pasta freskoa. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak: Argentina. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:15 Sustraiak. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Ilunpean. 19:45 Albisteak. 20:15 Marrakzi bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik: Aloña Mendi hirugarren mailara. 21:45 Albisteak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Albisteak. 00:15 Amaiera.

Martitzena, 23
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz zikloa. 14:15 Zera dio. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz zikloa. 17:30 Danbaka saioa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:15 Munduari bueltak. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Albisteak. 20:15 Marrakzi bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Ilunpean. 21:45 Albisteak. 22:15 Berbaire: Maite Aristegi, Jon Molina eta Ander Rodriguez. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Albisteak. 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 24
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustraiak. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Albisteak. 20:15 Marrakzi bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 21:47 Debarri. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Albisteak. 00:15 Amaiera.

Eguena, 25
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Zera dio. 14:30 MI. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustraiak. 15:30 MI. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Debarri. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz mintegia. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Albisteak. 20:15 Marrakzi bizidunak: Card Sakura. 20:45 Berriak. 21:15 Sustraiak. 21:45 Albisteak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Albisteak. 00:15 Amaiera.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Oñatiko Udal Irratiak 15 urte bete berri ditu. 1991ko maiatzaren 11n hasi zuen emisioa eta FMko 107.4an jarraitzen dute Oñatiko berriak eta kontuak plazaratzen. Miren Urkiola esatari ordiziarrak hasieratik dihardu bertan lanean. Oñatiko hizkera bereganatu du dagoeneko.

**Nola gogoratzen duzu irratia-
ren hasiera? Zein da 15 urte-
tako balorazioa?**

Oñati Irratia hasi baino lehen bazegoen irratia jarrita kultur etxean, eta hari irtenbidea ematea pentsatu zuen Udalak, irratia euskara normalizatzeko tresna baliagarria izan zitekeela pentsatuta. Udalak sortutako informazioa euskaraz ateratzeko bidea bazegoela ikusi zuten, eta horrela hasi ginen. 15 urte azkar pasatzen dira, baina balorazioa positiboa da orokorrean, hasierako asmo hari eutsi diogulako.

**Zeintzuk dira programazioa-
ren ardatzak gaur?**

Albisteak, kirol berriak eta agenda deialdiak dira ardatz nagusiak irratia abian jarri genuenetik. Eguerdiko saioan elkarriketa bat edo erreportajearen bat erantsi diogu eta arratsaldean musika saioak, kirol saioak eta bestelakoak tartekatzen ditugu. Astelehenetik ostiralera bi ordu eta erdiz zuzenean emititzen dugu, 12:00etatik 13:30era eta arratsaldean 19:00etatik 20:00etara. Gauean, 22:00etatik aurrera, bi emankizun horien grabazioa emititzen dugu berriro, jarraian.

Jende asko igaroko zen irratitik denbora honetan...

Bai, jende pilo bat pasatu da, zerrenda luzea litzateke... Gaur egun kolaboratzaileak ere badaude, saioaren bat edo tartetxoren bat egiten dutenak. Antenara irteten direnak hamar bat lagun izango dira. Horrez gain, ekintzen arabera, jende batengana jotzeko ohitura daukagu eta askotan esaten diet lantaldean sartu behar ditugula. Izan ere, sarritan hori da gure *gerra*: jendearekin hona

"Hamabost urte azkar pasatzen dira baina balorazioa positiboa da, udal informazioa euskaraz plazaratzeari eutsi diogulako"

Miren Urkiola > Oñati Irratiko arduraduna

"Programazioaren ardatzak albisteak, kirola eta agenda dira"



Miren Urkiola esatari ordiziarrak hasieratik, 1991 ezker, dihardu Oñati Irratian lanean.

OIHANA ELORTZA

etortzeko tratua egitea. Bestalde, Arkaitz Villar, Oihana Elortza, Latzen taldeko kideak eta Mikel Aranburu hemendik pasatutakoak dira... Horrek harrotasuna ematen dit. Ez dakit askorik erakutsiko genien, baina ohitura eta soltura hartu dutela esango nuke. Askorendako eskola txiki moduko bat izan da hau.

Entzuleak ezagutzen dituzu?

Hasi eta pare bat urtera egin zuten ETEOko ikasle batzuek neurketa moduko bat, baina ez daukagu orain daturik eguneratuta. Deitzen digun jendea ikusita, pentsatzen dut etxeoandreak direla; jendeak parte har dezan mikrofonoak irekitzen ditugunean, etxeoandreak dira gehien deitzen dutenak, oso tarteka gizon-zokoren bat... Eta gero, ba umeak ere bai, eskolatik bueltan.

Momentu txar bat eta on bat aukeratzekotan?

Hiletaren bat baldin badago, horren berri ematen dugu. Eta zenbaitetan egokitu izan zait ezagutzen nuen jendea edo hurbilgokoa izatea hildakoa... Horrelakoak txarrak dira. Ona? ETA-ren su-etena iragarri zenean, irratsaioan nengoen eta Mireia Bikuña lankideak esan zidan informatiboa hasi baino lehen. Gertatuta nituen albisteak su-etenarekin alderatuta tontakeria hutsa ziren...

Albisteak topatzea ez da erraza izango batzuetan, ala?

Zenbaitetan gai guztiak sartzeko antolaketa egitea ez da erraza eta beste batzuetan, aldiz, ez dago ezer, eta nonbaitetik atera behar... Urtarrila edo uztaila, adibidez, oso txarrak dira albisteetan. Baina alternatibak beti daude...

Nola imajinatzen duzu irratia hamar urte barru?

Kolaboratzaile ugarirekin egin gurako nuke lan irratian. Jendea baldin badator gure lana arindu egiten da eta irratia pilo bat aberasten da. Ea jende berria erakartzea lortzen dugun.

Oñatiko euskara egiten duzu jadanik...

Oñatin lanean hasi eta bertan geratu nintzen. Eta igual ez da izango Araozko batek egiten duen moduan, baina umeekin Oñatiko hizkeran egiten saiatzen naiz; eurekin asko ikasi dut. Nahiz eta Ordizian egon, umeekin *oñatieraz* saiatzen naiz beti.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emailtza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/BZ-sistemas	/ezkutuorly	/guztizeder	/multioplicas	/udalatx
/argi-plastik	/dragon-	/gallastegi	/irudisport	/ohiak	/udalaitz
/arregi	oriental	/ganesha	/korozabaleta	/okipark	/urdeki
/atai	/dukiena	/garaia	/maulanda	/vitoria	
/azkarate	/ego	/gorkagarai	/mayte	/pando	
/joseba	/elejalde	/gorkataxi	/merkeopari	/richimaier	

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten



ePE
2006 Enplegu Publikorako Eskaintza
Oferta de Empleo Público

Enplegu Publikorako Eskaintza 2006

**Bulegoen ordutegia
Gipuzkoa Plaza**

**Astelehenetik
Ostiralera
8:30 - 13:30
15:30 - 18:30**

**Larunbatean
8:30 - 14:00**

www.gipuzkoa.net - Tel. 943 11 33 44



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Maiatzak 19-26

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

III. Erdi Aroko Azoka



ARRASATE

> Erdi Aroko Azoka egongo da Arrasaten, hirugarren aldiz

Erdi Aroko salmenta postuak, animalia sorgintzaileak, kale ikuskizunak, musika... egongo dira Arrasateko plaza eta kale nagusietan asteburuan: bihar, zapatua, eta etzi, domeka. Hirugarren edizioa izango da aurten.

Bidezko merkataritza



ANTZUOLA, ARETXABALETA

> Bidezko merkataritza postuak ipiniko dituzte Anelkarrek eta Hiruatxek

Bihar, zapatua, bidezko merkataritza-ko salmenta postuak ipiniko dituzte Antzuolako eta Aretxabaletako GKEek. Antzuolako San Isidroetako azokan izango da, eta Aretxabaletakoak Euskara-ren Egunaekin egongo du bat.

Elvis Presleyren abestiak



BERGARA

> The Hound Dogs taldeak joko du gaur, egubakoitza, Tartufon, 23:30ean

Txus (ahotsa), Alex (gitarra erritmikoa), Arturo (gitarra solista), Mikel (baxua) eta Ruben (bateria) dira The Hound Dogs. Besteak beste, *That's all right*, *Hound dog*, *Always on my mind* eta *Suspicious minds* joko dituzte.

Bestelakoak

BERGARA

> Kalejira, erromeria, afaria eta bertso saioa egongo dute

Honako ekintzak egongo dituzte: kalejira Bergarako trikitilariekin (18:30), erromeria Munibe plazan (19:30), afaria (20:30), bertso antzerkia (22:00) eta erromeria Ene Bada taldearekin (23:00).

Gaur, egubakoitza. Eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan izango da erromeria.

OÑATI

> Zeru-oberbazio publikoa antolatu du Ilatargi taldeak

Iaz esperientzia oso ona izan zela eta, aurten ere oberbazio publikoa antolatu du Ilatargi taldeak. Saturno eta Jupiter ikusteko asmoa dute.

Gaur, egubakoitza, Ibarako futbol zelaian, 22:00etan.

Musika

OÑATI

> Peñaflores Kaperaren taldeen emanaldia izango da

Peñaflores Kaperaren eta Peñaflores Ensemble taldeek eta lau bakarlarik emanaldia egongo dute, Musikegunak programaren barnean. Jose de Larrañagaren sei pieza jokatuko dituzte.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera, 6 euro.

ARRASATE

> Rolling Stones taldearen bi kontzertu ikusiko dituzte

Rolling Stones talde britainiarren *Altamont Concert* (AEBak, 1969) eta *Live at the Marquee* (Londres, 1961) ikusiko dituzte 3.60 aretoan.

Gaur, egubakoitza, gauerdian.

OÑATI

> Musika eskolako irakasleek kontzertua egongo dute

Musika eskolako irakasleek Lehen Hezkuntzako ikasleendako kontzertu didaktikoa egongo dute hilaren 24an, eguaztena, 15:00etan. Beste bat egongo dute maiatzaren 31n, eguaztena.

Santa Ana antzokian izango da saioa.

ARRASATE

> Herri Irratia sariko taldeek kontzertua egongo dute

Honako taldeen emanaldia izango da: Biok, Naiz Roxa eta Stupenda Jones.

Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

> Presoen alde joko dute hiru musika taldek

Presoen aldeko kontzertua egongo dute Des-Kontrol, Doubling Boys eta Orreaga778 taldeek.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

BERGARA

> Arrasate Musikalek bi kontzertu antolatu ditu

Arrasate Musikaleko gitarra eta biolin ikasleek kontzertua egongo dute, Amaia Artzamendik eta Aitor de Juanek zuzenduta. Horrez gain, hilaren 18an, eguena, Big Band-ek eta orkestrak Donostiako San Telmo museoaren aurrean joko dute 20:00etan; lehenengo aldia da orkestra batekin jotzen duela Big Band taldeak.

Ikasleen kontzertua eguaztenean, hilak 17, eskolan, 19:15ean.

Jaiak

ESKORIATZA

> Txomintxapel eguna ospatuko dute HUHEZIKO ikasleek

Txomintxapel eguna, fakultatearen eguna, ospatuko

dute. 10:30ean hasita, honako ekintzak egongo dira: Joko Olinpikoak, triki-poteoa, Txomin Txapelen jaietsiera eta bazkaria, funky emanaldia, batukada-poteoa, eta The Five Twisters eta Ozen taldeen kontzertua, 22:00etan.

Gaur, egubakoitza, HUHEZIKO aparkalekuan; eguraldi txarra badago, pilotaleku zaharrean.

ARRASATE

> Al-Andalusek kultura asteko azken egunak ospatuko ditu

Honako ekintzak egongo dituzte, besteak beste: Kantine-la taldearen emanaldia (gaur, egubakoitza); elkarteko folklore taldeen emanaldiak eta bazkideendako afaria (bihar, zapatua); eta umeen moda desfilea eta Andaluziaren gaineko hitzaldia (domekan).

Ekitaldi guztiak Al-Andalusen egoiztan izango dira, Zigorrolan.

Antzerkia

ESKORIATZA

> Els Flaquibutti klown taldeak emanaldia egongo du

Els Flaquibutti taldeak *Ni siquiera somos magos* izeneko ikuskizuna egongo du. Musika, magia, dantza eta umorea bateratzen ditu ikuskizunak, eta oso kritika onak izan ditu. Valentziatik datoz, Oihulari Klown-ek gonbidatuta.

Bihar, zapatua, unibertsitatean, 22:30ean.

BERGARA

> 'Spok' umorezko antzezlanaren egongo dute Tartufon

Spok antzezlanaren egongo du Tango Teatro taldeak. Publizitate munduan porrot egin duten bi emakume dira protagonistak. Orduan, aktore egitea erabakitzen dute.

Zapatuan Tartufon, 23:30ean.

ELGETA

> 'Elgeta'-ren mendeurren ospatzeko omenaldia

Jazinto Rivas, *Elgeta*-ren mendeurren ospatzeko, trikitixa jaialdia antolatu da. Koldo Izagirre idazlearen laguntzarekin, Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aktoreek antzezlan burutuko dute, *Elgeta*-ren bizitzako zenbait pasarte berreskuratzeko asmoz; soinu-jole batzuk ere arituko dira; eta Rivasen gaineko liburua aurkeztuko dute.

Bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ARETXABALETA

> Gipuzkoako Eskola Arteko bertso txapelketako saioa

Txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu dute.

Gaur, egubakoitza, Almen gunean, 15:00etan.

ARETXABALETA

> Bertso saioa egongo dute Lizasok eta Mendiluzek

Bertso emanaldia egongo dute Sebastian Lizasok eta Aitor Mendiluzek, gai librea.

Bihar, zapatua, eguerdian.

BERGARA

> Jolasleku ibiltarian jolas egiteko aukera izango da

Jolasleku ibiltaria Espoioian izango da gaur, egubakoitza, 17:00etan. 6-12 urte bitarteko umei zuzenduta dago.

Jardun elkarrekin antolatzen du.

ARETXABALETA

> Euskararen Eguna ospatuko dute Doneztebeko talde batekin

Doneztebeko Burrenba taldearekin batera ospatuko du Loramendik Euskararen Eguna. Herri bazkaria bukatu-takoan, desafioa egongo dute bi taldeek Herriko plazan.

Bihar, zapatua, egun osoan.

PROPOSAMENA

OÑATI

> Angelic Upstarts talde bateranoak kontzertua egongo du

Angelic Upstarts punk talde britainiarreko jatorriko taldekide izan zen Mensik musikari bikainekin berrantolatu du taldea, eta langile-klase ideologia eta aldarrikapenak musika-rekin bateratzen jarraitzen dute. Errekaldeko jaietan joko dute.

Gramones talde gasteiz-tarrak Ramones taldearen moldaketak joko ditu, eta Amonal eta Los Chuloputas talde oñatiarrek ere girotuko dute jaietako gau hori.

Gaur, egubakoitza, Errekalde auzoan, 21:00etan. Sarrera, doan.



nire aukera



Eneritz Urrutia
Irakaslea
Aretxabaleta

"Nafarroan egun batzuk gustura ematen ditut"

Izugarri gustatzen zait Nafarroa aldera joatea eta han hiru bat egun pasatzea. Asko lasaitzen nau, eta parajea zoragarria iruditzen zait. Nafarroara jotzen dut beti, batez ere iparraldera, baina hegoaldera ere bai. Furgonetarekin joaten gara, eta primeran ibiltzen gara: edozein lekutan lo egin dezakezu... Turismo handia egin dugu furgonetarekin.

Aretxabaletan geratzen naizenean, lagunekin irte-tea eta arratsalde pasa egitea eta bueltatxo bat ematea gustatzen zait.

Kirola egiteko, edo ikusteko, gustatzen zaizu?
Ikusteko, bai, pilota gustatzen zait. Egiteko... mendi bueltaren bat noizean behin.

Asteburuan jateko edo zeuk prestatzeko plater bat?
Jateko, entsalada epela txipiroiekin. Eta neuk egiteko, gazta tarta. Oso ona iriteten zait, gainera.

Eta gustuko edari bat?
Txakolina, adibidez. Udan, gustura edaten dut *Lejia* bat.

Ordenagailuak eta Interneten ibiltzea gustatzen zaizu?
Ibiltzen naiz, bai. Normalean, bidaien gaineko informazioa bilatzen dut Interneten; eta ikastetxean, umekin lantzen ari naizen gaia begiratzeko.

Hondartza gustuko duzu?
Ez horrenbesterraino, baina 15 eguneko oporrak ditudanean joaten naiz hondartzara, bai.

Zinemaren falta igartzen duzu Aretxabaletan?
Zinemarena baino gehiago, antzerkiarena.

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Flores rotas
Egubakoitza: 22:00.
Batman begins
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Firewall
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Ice age 2
Domeka: 17:00.

Manderlay
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Wilbur se quiere suicidar
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Ice age 2
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR UNZAGA

Plan oculto
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Memorias de una geisha
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Déjate llevar
Domeka: 22:30.

Misión imposible 3
17:00, 19:45, 22:30.

El código Da Vinci
Egubakoitza: 16:45, 19:45, 22:35.
Zapatua eta domeka: 16:45, 19:40, 22:35.

Hard candy
17:30, 20:00, 22:30.

Ice age 2
17:30.

Burt Munro: un sueño, una leyenda
Egubakoitza: 17:00, 22:35.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Plan oculto
20:00, 22:30.

Himalaya
Domeka: 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Zona libre
17:30, 20:00, 22:30.

Saraband
17:30, 20:00, 22:30.

Volver
17:30, 20:00, 22:30.

Estrellas de la línea
20:00.

Eres muy guapo
17:30, 20:00, 22:30.

Un franco, 14 pesetas
17:30, 20:00, 22:30.

Pregúntale al viento
17:30, 22:30.

De latir, mi corazón se ha parado
17:30, 20:00, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

La niñera mágica
16:00, 18:00.

La huella del silencio
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

El caso Slevin
16:00.

Ice age 2
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Misión imposible 3
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

In the mix
22:00, 00:30.

El código Da Vinci
16:00, 19:00, 22:00, 00:40.

El mundo alrededor
20:00, 22:00, 00:30.

Bienvenido a casa
20:00, 00:40.

Salvaje
16:00, 18:00, 20:00.

Míos, tuyos y nuestros
16:00, 18:00, 20:00.

16 calles
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

La huella del silencio
20:40, 22:45, 00:55.

Bajo cero
19:55, 22:20, 00:40.

Misión imposible 3
12:15, 16:00, 18:30, 21:00, 23:45.

La pantera rosa
12:15, 15:40.

Ice age 2
12:15, 15:45, 17:45.

Déjate llevar
Egubakoitza: 17:40.
Domeka: 12:15.

Caos

12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 23:45.

El código Da Vinci
12:15, 16:00, 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30.

Un franco, 14 pesetas
12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

Salvaje
12:15, 16:10, 18:10.

Plan oculto
17:35, 20:00, 22:25, 00:50.

Zathura
12:15, 15:50, 17:50.

V de vendetta
Egubakoitza eta zapatua: 16:15.
Domeka: 12:15, 16:15.

Slither: la plaga
20:05, 22:05, 00:05.

El caso Slevin
20:35, 22:45, 01:00.

Burt Munro, un sueño, una leyenda
19:50, 22:20, 00:50.

La niñera mágica
12:15, 16:40, 18:40.

Crash
12:15, 16:05, 18:20.

Novia por contrato
12:15, 16:05, 18:05.

Volver
19:45, 22:05, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaieguna izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

V de vendetta
12:00, 16:30.

16 calles
12:10, 16:30.

Misión imposible 3
12:00, 17:00, 19:45, 22:15, 01:00.

Bajo cero
12:10, 16:30, 20:00, 22:30, 00:30.

Volver
22:10, 00:45.

Déjate llevar
20:00, 22:30, 01:00.

Ice age 2
12:15, 16:15, 18:10, 20:05.

El código Da Vinci
12:00, 16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:20, 01:00.

Bodas por encargo
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:45.

Caos
12:00, 17:00, 20:00, 22:10, 00:45.

Novia por contrato
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Salvaje
12:00, 16:25, 18:15.

Plan oculto
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.



Hard candy *

Zuzendaria: David Slade.
Aktoreak: Patrick Wilson, Ellen Page.
AEB, 2005.
103 min. Thriller psikologikoa.

A itortzen dut gaur egun egiten diren beldurrezko filmak ez direla nire gustukoak. Hori dela eta, oso gutxitan hurbiltzen nahiz zinema geletara genero horretako lanak ikustera. Dena den, sari eta kritika on ugari jaso duenez, *Hard Candy* ikustera joan naiz; eta egia esateko, nahiz eta mota horretako filmetatik desberdintzen dituen osagai interesgarriak eduki, gauzak gehiegi luzatzea eta ematen duen mezu ideologikoa nahiko zalantzagarriak iruditu zaizkit.

David Slade zuzendaria mendeku istorio bat kontatzeko bi aktore oso onen gertuko plano ugari erabiltzen ditu, eta, horien atzetik, nahiko kolore motelak. Osagai horiek filmari nahiko kutsu biluzi, suntsitzaile eta berezia ematen diote. Zuzendaria planotik kanpo gertatzen denarekin jokatu du, ez digu dena erakusten, eta, horrela, kasu askotan, tortura jasaten ari den pertsonaiaren barnean sartzen gaitu, datu guztiak ez jakitearekin jokatu du. Alde horretatik, *Hard Candy*, beldurrezko beste filmeekin konparaturaz, ez da hain esplizitua, odol eta errai gutxi ikusten dira, tentsio psikologikoarekin jokatu du. Baina tamalez, baditu halako filmeekin komunak diren osagai kaltegarriak: maltzurkeria eta sadismoan gehiegi erortzen da. Hau da, beharrezkoa da ehun minutu baino gehiago erabiltzea istorio hori kontatzeko? Prozesu guztia azaltzeko biraketa gehiegi gertatzen dira, gertakizun guztiak gehiegi luzatzen dira, eta morboan erortzen da. Gainera, *Hard Candy*-ren mezua kirastua edo gutxienez zalantzagarria da.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Manderlay ***

Danimarka-Suedia-Erresuma Batua-Frantzia-Alemania-Herbeherak, 2005. Zuzendaria: Lars von Trier.
Aktoreak: Bryce Dallas Howard.
139 min. Drama.
Manderlay delako landara iristen dira Grace (Dallas Howard) eta aita, Dogville herritik irtenda. Esklabutzako baldintzetan bizi den jende talde bat dagoela konturatzen da Grace.

Ice age 2

AEB, 2006. Zuzendaria: Carlos Saldanha.
90 min. Animaziozkoa.
Izotz Aroa bukatzeaz dago, eta animaliak mundu berria gozatzeko hasi dira: ur-parkez, geiserrez eta galipot lubakiez betetako paradisia.

De latir, mi corazón se ha parado ***

Frantzia, 2005. Zuzendaria: Jacques Audiard. Aktoreak: Anton Yakovlev, Melanie Laurent, Roman Duris.
107 min. Drama.
Tom-ek 28 urte ditu eta, aita bezala, badirudi higiezin merkatu basatian lan egingo duela. Baina halabeharrezko

topaketa baten ondoren, ama bezala, piano-jole izan daitekeela pentsatzen hasten da.

Novia por contrato

AEB, 2006. Zuzendaria: Tom Dey.
Aktoreak: Matthew McConaughey, Sarah Jessica Parker.
97 min. Komedia.
Tripp-ek 35 urte ditu eta jaiotetxean bizi da oraindik. Gurasoek joan dadin nahi dute, eta mutilaren ametsetako neska zoragarria kontratatzen dute etxetik atera dezan.

Hard candy *

AEB, 2005. Zuzendaria: David Slade.
Aktoreak: Patrick Wilson, Ellen Page.
103 min. Thriller psikologikoa.
Hayley 14 urteko neska da Jeff-ekin, 30 urte betetako argazkilaria batekin, harreman egiten du Internetez, eta kafetegian ezagutzen dute elkar.
Hayley-k Jeff-en etxera joan daitezen proposatzen du, biok bakarrik...

Volver ****

Espainia, 2006. Zuzendaria: Pedro Almodóvar. Aktoreak: Penélope

Cruz, Carmen Maura, Lola Dueñas.
110 min. Komedia dramatikoa.
Raimunda (Cruz) eta Sole (Dueñas) ahizpek aspaldi hildako ama (Maura) fantasma moduan heriotzatik itzuli dela entzungo dute. Herritik Madrilerara bueltatzen direnean, amaren gorpu autoan daramatela konturatuko dira...

Rosas rojas

AEB-Erresuma Batua-Alemania, 2006. Zuzendaria: Ol Parker.
Aktoreak: Piper Perabo, Lena Headey, Matthew Goode.
94 min. Komedia.
Rachel (Perabo) eta Heck (Goode) gaur ezkontzera doaz. Dagoneko elizan daudela, Rachel Luce neskekin maite-mintzen da.

Eres muy guapo

Frantzia, 2005. Zuzendaria: Isabelle Mergault. Aktoreak: Michel Blanc, Medeea Marinescu.
97 min. Komedia dramatikoa.
Aymé izeneko gizona da protagonista. Emaztea hil egin berri zaio bizi diren baserriko lan-istripu baten. Bizitzan zer egin ez dakielako geratuko da gizona.

El caso Slevin

AEB, 2006. Zuzendaria: Paul McGuigan. Aktoreak: Josh Hartnett, Bruce Willis, Morgan Freeman.
109 min. Thrillerra.
Slevin-i etxea hondamendian aitortu diote, eta neskalaguna beste gizon batekin tranpetan aurkitzen du. Egoera borobiltzeko, hilzaila batekin nahastean dute.

Caos

AEB, 2005. Zuzendaria: Tony Gilgio. Aktoreak: Jason Statham, Ryan Phillippe, Wesley Snipes.
98 min. Akziozkoa.
Goiz baten, banketxe batek ateak irekitzen ditu, eguneroko bezala. Halako baten, kaputxadun bost lapur sartu egiten dira eta jende guztia bahitzen du.

Declaradme culpable

AEB, 2006. Zuzendaria: Sidney Lumet. Aktoreak: Vin Diesel, Ron Silver, Alex Rocco.
129 min. Drama, komedia.
1987an, AEBetako mafioso familia bat epaitegian esertzea lortzen dute. Kide batek bere burua defendatuko du.

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2006/05/31, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN

Holiday zirkua, ohiko bisitaria

BETERANOAK 1987an jarri zuten abian Ramon Sacristan eta Maria Trinidad Antolin senar-emazteek

FAMILIA HANDIA Gaur egun 64 lagun bizi dira zirkuan eta urte osoa ematen dute hara eta hona, nomaden antzera

ERRELEBUA Ramonen eta Maria Trinidaden seme-alabak ere zirkuan ari dira: Ramon gaztea tigre hezitzailea da

EDU MENDIBIL > OÑATI

Holiday zirkua izan da berriz gure artean. Arrasaten eta Oñatin egin dituzte emanaldiak eta aste bukaeran Zarautzen izango dira. Holiday zirkua 1987an jarri zuten abian Ramon Sacristan eta Maria Trinidad Antolin senar-emazteek eta gaur egun 64 lagun bizi dira zirkuan. Burgoskoa izatez, Errioxan, Alcanadren bizi da Sacristan-Antolin familia, baina urte osoa ematen dute hara eta hona, nomaden antzera, Espainiako iparraldean nagusiki.

Ramonen eta Maria Trinidaden seme-alabak ere zirkuan ari dira: Ramon gaztea tigre hezitzailea da; Justo zaldiekin, krokodiloekin eta gameluekin aritzen da; Abraham orekaria dugu; Mercek eta Blancak trapezistarena egiten dute eta Antoniak bestelako lanak egiten ditu.

HIRU TIGREKIN PISTARA

Bengalako hiru tigrekirin irte ten da pistara Ramon (31 urte): *Prince*, *Simba* eta *Nala*. Billy Smart aitagarreba edo Redy



HIRU TIGRE Ramon Sacristan hiru tigrekirin aritzen da pistan. 15 kilo haragi behar du bakoitzak egunero. JOSETXO ARANTZABAL

Cristiani izan dira Ramonen maisuak. Gustuko lana duela dio: "Pazientzia handia behar da eta ordu asko sartu behar dira animaliekin, baina ondo moldatzen naiz tigrekirin. Ez dut susto handirik izan. Orain ez daukagu lehoirik, baina orain dela urte batzuk, batek haginkada ona eman zidan sabelean... Arazoren bat dudak bakoitzean Billyrekin edo Redyrekin kontsultatzen dut". Redy Cristiani Suedian bizi da gaur egun. 1998ko urtarrilean Bergaran jaiotako hiru tigrekumeak ere berarekin dira.

Oraindik ere animaliekin egiten diren ikuskizunak dira arrakastatsuenak, Ramonen iritziz: "Bai, jende askok ez dauka horrelako animaliak gertutik ikusteko aukera eta umeak batez ere txundituta geratzen dira. Ikusleei dagokienez, adin guztietakoak datoz. Baina zirkua behera egin du nabarmen: telebistarekin eta orain daukaten jolas eskaintzarekin zirkua ez ditu haurrak horrenbesteraino erakartzen. Ez da erraza aurrera egitea".

ahobero

"El Codigo Da Vinci filmaren estreinaldian ez da egon mehatxurik sumindutako Eliza Katolikoaren partetik.

Horrenbeste morbo ezertarako ez"

Carlos Boyero > Zinema aditua

Sekulako publizitatea egin diote Dan Brownen eleberrian oinarritutako filmari. Adituek gogor astindu dute.

iturri onetik

Zabalotegiko auzotarrek azertu dute aurkeztea Udal hauteskundeetara

Bergarako Zabalotegiko eta Boluko hainbat auzotar hase-rre daude Udalarekin, bi auzoak lotuko lituzkeen errepidearen proiektua dela-eta.

Zabalotegiko auzotarrek hainbat batzar egin dituzte azken hilabeteotan eta azkeneko egin duten batean, Udal hauteskundeetara aurkezteko aukera aztergai izan dute. 300 bat botorekin zinegotzi bat lortuko luketeela uste dute Zabalotegikoek.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Donostiara behar

Aste honetan, bi ekimen behintzat joan dira ibarretik Donostiara, hedabideen arreta bila. Lehena izan zen Ikerlan enpresa. Urteko batzarra egin bezperan, Kurasaalera deitu zituzten hedabideak, azalpenak eman eta oihartzuna lortu guran. Bigarrena, Arrasateko Jose Felix Diaz de Tuesta. Liburu bitxia argitaratu du, *Euskal Herria atzeritarren ahotan*, eta Koldo Mitxelena bildu gintuen, hedabide eta lagunak.

Biak ala biak, ibarrean jaiotako ekimenak dira baina, eremu zabalagoetara iristeko, beharrezkoa zaie kapitale-ra joatea, hedabideetan tokia izango badute. Istripu odoltsu edo istilu politikorik ezean, ez du hedabideak egiten informazioa dagoen tokira, baizik alderantziz.

Gipuzkoa orekatzekotan, aldatu beharko dira ohitura txarrok.

ai, ene!



Xaboi-burbuilen magia, haur eta nagusiendako

Xaboi-burbuilen erakustaldia izan da Vancouverren, Kanadan. Gaztetxoak zein nagusiak tontuta xaboi-burbuillei begira...

<http://tinyurl.com/elq72>



Maalako errabala 5 ARRASATE
Kale barria 18 OÑATI